


400 anaitasuna 400

1981.eko Apirila 410.alea-100 pzta.



* Iparragirrerere
ehun urteak

* Amuriza
gizona
eta
bertsolaria

* Bilboko
kontzejalek
dute hitza

* Lege
barria
demokrazia
nazionalak
ekarria

Porque lo nuestro es Vizcaya

Bizkaia geurea deláko

Coupe en nosotros

Zere urtea guzan



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA



1. KARTA

Donostia'n ekaiñá'ren 30ean.
Juan Mari Torrealday - Zuzen-
dari Jauna.

Zutzaz zenbat gogoratzen
naizen jakingo bazen du, etzi-
ñake gutxi arrituko.

Len bein baño geiagotan
aditzera eman nizunez nik zu-
rekin aitortza on bat nai nuke
ta ortarako askotan esan ni-
zun zuk aukeratutako kontra-
seña eman "Hanaitasuna"n
da berialaxe alkartuko giñake-
la bañan orain artean ez det
zoririk izan zergatik zure
deia orairdik ez da agertu zu-
re aldizkarian.

Tarteka izketaldi goxo ba-
tzuk izaten dituz idazle argia
dan Itziar Urtasun ekin Bilbao
ko Cortes etan eta nere jakin-
miñakin galdetzen diotenian
zure zuzenbide zuzena nun
dan, berak erantzutzen dit ez
dakiala, berak esaten dit zure-
kin aitortzen dala beti eta zu
oso goxua ta marxista jatorra
zerala dio, ori bai, gona az-
pian oso erraminta polita eta
bizia ibiltzen omen dezu,
egurrezko ixopoa ez dan bes-
te zerbaít ¿Zer aundia ta mira-
garria zeran zu...! ¿Zer eder,
biñjin da ona dan zure lagun
Itziar emakume au!.. Zer luma
jakintzua ibiltzen dun "Ha-
naitasuna"n eta gutxiago ez
dan anka tarteko arrosa-
krabelin nola erabiltzen dun
berak nai duenian zuk ondo
dakizun bezela... ¿ez da ala?

Emakume orrekin aprobe-
txatzia ondo egiten dezu, zo-
rionak, beste praile karmeldar
eta apaiz burges jeltkideak ez
dira gauza ori bera egiteko be-
ren puritanismo faltoarengat-
ik.

Arrazoi guztiakin pentsatu-
ko dezu zer mania sartu zaiten
nere buruan zurekin prexio
aitortu bear au, bai ala da, ba-
ñan nik nere arrozoiak ba di-
tut, zergatik nik emen Donos-
tian apaiz eta praile jeltkide
nazkagarri oiekin ez det aitor-
tu nai, zergatik oiek burgesak
dira ta oiekin ez det kutzatu
nai, bañan bai nai det zurekin
zergatik aurrerakoia zeralako,
ta beste doai onenetako bat
dezuna marxista zeralako ni
bezelaxe.

Lagun batek esan ziran
zuen komentuko beste praile
guztiak ere marxistak zirala
baño nik zurekin bakarrik asi
nai det lendabizi.

¿Zer ederki idazten dezun
huskaranto batuan zure "Ha-
naitasuna"? ¿ay zure laurdena
baneki...! ¿Utikan "Goiz Argi"
ta "Euzkadi"ko jeltzale mada-
rikatuak...! oiek nai dutena
zera da "Jan naikua ta Zagi
zarra" garai batean Olazabal
karlistak ondo esaten zuen
bezela.

Nere animatxoa zure es-
kuetan dago, kitu zaitez ni-
tzaz, len Prantzisko doneak
eta Marx sozialak gugatik egin
zuten bezela, orain zuk nere-
gatik urren egin zazu.?

Zure oñairi muñ emateko
irrikatzen nago.

GORA ETA koen komunis-
mo euskalduna, ta etzai diran
burges jeltkideak beera gure.

Penitente bat

2. KARTA ARRIKA

Bai, ARIKA bai, esaten
degu Donostia'n eta ez
"Harrica zuk idazten dezun
bezela Iriondo jauna, ainbes-
teko zintzoa ba zera "el
Bathua" kontu oietan zure
abizena Iriondo ere hache re-
kin izenpetu bear zenduke.

Zuk ondo dakizu nola itz
egin da ulertzen geran Donos-
tiko euzkaldunak; ez "ahal"
bai "al", ez "euzkeraz" bai
"euzkeraz", ez "bainan" bai
"bañan", ez "delakoan" bai
"dalakoan", ez "lehen" bai
"lenen", ez "dugula" bai "de-
gula", ez "otsailean" bai
"otsoilean" ez "niri" bai "ne-
ri", ez "inori" bai "iñori"...
eta dana olaxe lllargi'ko
"ehuskaranto" izkuntzan
idatzi dezu; ta ori gañera
"zenbait euskaldunen aýrka-
ko erasoak ikusten ditudane-
ari min ematen dit..." diozu-
laik, besteri miñak emateko
ere etzaitut ain aul ta makala
ikusten.

Eta orain Itsaso eta Harkaitz
ek izenpetuta dakarren Dima
ko L.A. artista zurgina gan
noski saminduta erneatua da-
gola "ANAITASUNA"n tzako
zergatik azpalditik "Eusko Al-
derdia'n gatik gaizki esaka
aritzen dala ta...

¿Zer esango nioke oni...?
Bada bietakoren bat dala...
edo bera ere Euzko Alderdia'n
aurkakoa eta azpi jokoan dabil
edo abertzale-jeltkide inuxu
inoxente batzuk izaten dira
oietakoren bat da, zergatik
begia argi ta garbi daukanak
joan daneko azken amar urte
oietan "bathua" sortu ta ETA
komunisteri serbiziýorako jarri

zan ezkerostik "ANAITASU-
NA"ren joko maltzurra edo-
zein arrontontoa ez danak
garbi ikusi du.

Ni neu guda garaian "Itxar-
kandia" batallioan ibilli nitzan
da alde ederra ikusten det or-
duko egitako gudariak orain-
go "dirala" dioten "ehusco
hudariac", oraingoak itxututa
daude eurak diotenez rusuak
beren tankiak in etortzen diran-
ian Españira guri euzkaldun-
nari "independentziya" ta ko-
munismoa ekarriko digute...
etziok gaizki ta zuek zeuren
mukiyak milixkatuko dituzute.

Donosti'an 19 Epaillean
(euzkeraz)

(ez "marchoa" latiñeraz)
Juan Ameztoty

3. KARTA BAT

Halako kartak aspaldian, hi-
ru, lau, bost urtetaik hona
hartzten ditugu. Egia esan egi-
lea ez da edonola nekatzen
eta firmaz eta izenaz aldatzeaz
behintzat "imajinazioa" duela
erakusten digu. Imajinazioa
edo "Imajinazioa", zuetakoe-
nola esaten duzue hori Do-
nostian? Baina, zergatik ez
esan! Bere idazkien zain ego-
ten ez bagara ere, bere kartek
barregura handiak sortzen
dirizkigute eta beti ongi etorriak
eta behar den bezela onartuak
izango dira serioegia den etxe
honetan. Tamalez, bere ez jak-
in gura, penagarria da, ez
baita oraíndik konturatu
munduko hizkuntza guztietan
modu bat dagoela idazteko
eta beste bat ahozkatze-
ko eta penagarria berriro diot,
nire ustez ezezagun horrek
grafiaren ezberdintasunak al-
de batetara utzita, sena oso
ona du euskaraz idazteko eta
alor guztietan zorimaloak
ikusten egongo ez balitz gaz-
teriaren maisua litzateke. Hori
nire irudia da, ez al dakizu be-
tiko leloa: "la a con la i e, la o
con la u, la e con la y con la
u o" edo eta "los terminados
en ado pueden hacer en ao"
etab.

Bai gizona,, "fonetikaren
misterioak". Euskaraz behin-
tzat hainbat lekutan i+n=ñ,
i+l=ll, z+b=zp, z+g=zk,
z+z=tz, z+d=zt eta abar.

Zer esanik ez, zilegiak eta
batzutan beharrezkoak diren
láburtzapenak, "ikusi-
koitugu", "oaindik", edo eta
ahozkatze bereziak, "etxia",
"maitia", "aulkija", "erua"
eta antzeko asko eta asko
guztiz euskaldunak eta zile-
giak direla. Are gehiago, eus-

kara batuak ez du zentzurik,
herriak sortu duen ahozkatze
eta soinua baztertu balitu.
Gauza bat beraz idazkera eta
beste bat ahozkerara, munduko
hizkuntza guztietan bezala.
Eta ongi idazteko eta hobe ira-
kurtzeko (euskaldun batek
egingo lukeen modura) esko-
lara joan behar da eta irakasle-
ak ere onak izan behar dira.
Dauden baldintzapenak
daudela, hori guziori ez da
konpontzen erraz eta bereha-
la.

P.S. Gure zoritxarrerako
"Anaitasuna" gauden fraile
konkordatarioak, komunisten
zerbitzuan eta abar eta abar,
(hobe, zeuden) ez gara ibil-
tzen "aitortzetan" (konfese-
tan) hemen lan egiten duten
neskekin. Zuk hori eta gero-
koa egiteko konbentzitu baze-
nitu esker beroenak emago
genizkizukeen. Hurrengorrar-
te gudari!!

T.Trifol

**ANAITASUNAren
ZUZENDARIAri**

AGUR JAUNA:

Eskutitz hau Anaitasunaren
azken alean Harotzaren "ain-
gerutxoak" artikulua irakurri
ezkeru sortu zait.

Artikulu hortan eta zure al-
dizkariaren beste batzuetan
aize bera sentitu dut. Artiku-
luan ikusi dut nahastuta Poli-
tika (= Giza arazoan aritzea)
eta Demonologia (= mundu
kanpoko izpiritu gaiztoetan
aritzea).

Espekto politikoan alder-
diek (Harotzak izendatzen di-
tuen alderdiok) leku bereziak
gordetzen dituzte. Haien ara-
zoa da. Harotzarekin ados
egon naiteke gai batzuetan,
horiek jende askoren eta nire
iritzi eta nahiak ez dituztela
defendatuko.

Baina artikulua muintetik
ateratzen den susmo txarra ez
zait atsegiten. Dirudenez eta
haren ustez politikari asko eta
jende batzu egunero Gaizto
Handiarekin dantzatzen du-
te.

Gure etsai politikoetan ez
dugu Deabrua ikusi behar.
Irabazi behar dugu baina bu-
rujabetasuna lortzeko, geure
bizitza geuk gidatzeko, ez mi-
tologizko borrokan parte har-
tzeko. Hau ez da zerua lortze-
ko gaia.

Harotzak ez digu ezer pro-
posatzen baina alderdi ba-



tzuen sasi-salbazio osoaren aurka ohararazten, prebenitzen digu. Eskerrik asko, baina zure zerua urrunegi ikusten dut.

Hildo beretik baina puntu berezi batetan geratu nahi dut. Gure egoeran dauden posizio politikoak, borroka harmatuaren kontra doazenez trufatzen da:

“Orain borroka harmatua erokeria da. Horren beharrik ez dugu. Zoroena da gaisotasun hori!

Askok ez du ikusi oraino Euskal Herri eta hemengo jende askatasun orokorrarako borroka harmatuari darizkion kalteak. Luzaz mintza gaitzake Euskal Herrian azpiko arazoak estaltzen direla, boterearen eraso ideologikoak handiagotzen direla beste eritziak baztertuz, masa-mogimenduen norabiderik eza momentu batzutan, ... baina hemen ez dago kakoa, nahiz eta garrantzia izan eguneroko

borrokarako. (Ryan erahilketa ondoren sortu zen konfusioa eta apalaldi. bersotuko da ekintzak beregingo ahala).

Militar hau, polizi hori, ala politikari hura garbitzeak Euskal borrokarako ez du ezer laguntzen. Bidean ez dugu galdu behar. Erabilitako medioak ez dira egokirik. Eta gure etsaiek erraz erabil dezakete, orain arte baldar egin dutena, beste arlo politikoetan bezala.

Zutik dirau Fernando Savaterrek militarismoari egindako kritika (eta ezker abertzalegari garaipera ere).

Euskal populua bere burua gidatu behar badu, nahi badu, talde harmatuetan ez du bere botere, politikoa utzi behar. Gasteizeko Floridan, erdi izkutua eta katecral berrira begira dagoen pintada bat ikustean gero eta sariago sinisten dut: han umekerizko mamu (honela marraztu egin dute) metrailetadun bat dago.

Hortaz ez dut ezer espero.

Harmada salbatzailearengan ez dut sinien. Bere errelejo militarrek ez ditu inoiz galduko (bere ekintzetan ikuskizun militarrek bakarrik ditu aurrean, besteak ahazten).

Polemikan sartzeko presnago edonoiz, aurrerantzean suposatzen dut aitxaki frango. Bakar baten aurka hitzgingo dut = ikusitako egoeran ez dago posibilidaderik (zentsura eta datozkigun orduak kontutan harturik, bereziki..., e.a.), baieztatu behar dugunak ezer ez dela aurreratu ideien zabalpen arloan.

Ni ez naiz betirako finkatu eta ondo burututako esaldien zalea, aurre-eritziaren zalea are gutxiago, horregaitik behar bada ikusten dudanetik ondorioak ateratzen ditut, hori besterik ez dut saiatzen.

Lerro hauek argitaratuak izan ditezen nahiaz bidaltzen dizut eta ere agur bero batez.

Jose Inazio Martinez Salazar

Anaitasunako adiskideok:

Ohizko irakurle bat nauzue eta, oraingo honetan, zera esan nahi dut: katzera natorkizue: ondorengo olerkia argitaratu diezazaidazue nahi nuke.

Besterik gabe, agurtzen naiz.

Mikel Garmendia Ugarte

NIRE INGURUKOEI

Erro ziurrik gabe noraezetzutako
beti legoke horrela
ez balego dagoeneko gauza normalik

erro ziurrik gabe noraezetzutakoak
beti lekarke fruitu berdina...
ahula...

ez bazeundete dagoeneko erroetara abiatu
ez balego dagoeneko erroetara abiatutako gauza normalik.

Mikel

BANCO DE BILBAO **nire soldatak** **lan egiten du.** **Bitartean ni atsedenean.**



Orain hileroko soldatatik abantail haundiagoak lortu ahal dituzu.

Bakar bakarrik zera adierazi behar diguzu, alegia, hemendik aurrera zure lantsaria BILBO BANKUko kontu ireki edo Aurrezki libreta baten bidez eskuratu nahi duzula.

Honela, zure soldata egunero lanean arituko da interesak ekoiztuz eta arrisku guztietatik babesturik.

Zure diruaren administrazioa emanez gero, lantsaria BILBO BANKUaren bidez eskuratu, beste

abantail garrantzitsu batzu eskainiko dizkizu.

Adibidez: Zuk zeuk inprima ahal dituzu bileteak, eskudirurik erabiltzeko beharizanik gabe. Bestalde zure egokierara luzatu ahal dituzu zure erosketen ordainketak, Kreditu Txartela erabiliz. Eta dirua behar baldin baduzu nahiz gaez nahiz egunez, 24 Ordu Bankuek estualdietatik aterako zaituzte.


Zatoz guregana eta mintzatuko gara. Bost minututan lortu ahal dituzu abantail haundiagoak zure soldatatik.

Eskura




delakotik zure soldata

BANCO DE BILBAO



ADIERAZPEN ASKATASUNAREN IZENEAN



Azken egunotan Euskal Herriaren egoera politikoari buruz lotu ioturik dauden ikuspegi ezberdinak izan ditugu. Lehenengoa, Gasteiz, Bilbo eta Donostiako apezpikuen agiria. Bigarrena, Herri Batasunak Euskal Herriari eman dioena.

Zer esanik ez, lehengoaz Euskal Herriko eta Estatuko komunikabide gehienek aipatu edo eta osorik zabaldu dute. Bigarrena aldiz, EGIN egunkarian soilik atera da. Balorapen politikoetan sarturik gabe esan dezagun biek jator jokatu dutela ikuspuntu ezberdinak adieraziz. Hurrarte artikuluburu honen jarrera. Hortik aurrera gure jarrera aldatzen da eta aldatu beharrean gaude adierazpen askatasunaren defentsa guri ere zuzen zuzen doakigu eta.

Agiriok irakurri ahal izan ditugu. Haietarik bakoitzaren azalpenak neurtu ditugu eta beste edonor bezala, konturatu egin gara zer ez zaion gustatu Espainol Gobernuari apezpikuen komunikatu horren artekotik.

Ezin ulertuzkoa, ezin onartuzkoa zaigu baina, adierazteko askatasunaren alde daudela dioten zenbaitzú komunikabide, inolako argitasunik eman gabe, H. Bren agiri ordaindua osorik edo zatika publikatu nahi ez izatea. Adierazpen askatasunaren kontrako bidgabekeria dela deritzogu guk horri; areago, halako agiria indarrean daudenetarik inongo Estatu lege (1) berrien menpean jartzen ez zelarik, benetako erasoketa politikoa egin da. Gure begietara arras geratu dira zizairen parekotzat "Deia" eta "El Correo" eta adierazpen askatasunaren izenean egiten dituzten editorialak guztiz funtsabakoak izanen dira. Hala izanen da akatsok zuzentzen ez diren bitartean.

Halako ekintza antidemokratikoa burutzeko lege zigorraren beldurra ez dela izan tontoenak ere jakin dezake. Arrazoiak bestelakoak iza dira.

Ezin sinetsi ere dugu, adierazteko askatasunaren defentsaz eta demokrazia hau Polizi-Estatu bihur daitekeen arriskuaz Deiatik mintzo zaigunean. Bere hitzak hutsal desonest, mamirik gabe, egitateetan erakusterik ez dutenak. Eta apezpikuen agiriaz baldin badakigu Gobernuari gustatu ez zaiona, argi ere ikusten dugu zer ez zuen eramaten Deiak H. B. renetik. Hortxe duzue, adierazteko askatasunaren izenean Deiak eta beronekin ados jarritako El Correok ezin irentsi dutenaren zati bat:

"HERRI BATASUNA no puede entender cómo el gobierno vascongado puede declarar tranquilamente que "las nuevas medidas no afectan a los

derechos individuales y colectivos de los ciudadanos vascos". ¿Significa esto que está de acuerdo con la filosofía de HERRI BATASUNA considerando que nada fundamentalmente nuevo va a cambiar sobre la represión a los derechos democráticos de los ciudadanos vascos a la que estamos tan acostumbrados?

Estamos convencidos que cuando se pretende ahogar las aspiraciones de este pueblo es más que nunca la hora de impedirlo, basándose en la unidad de ese mismo pueblo, proclamando con fuerza una delas verdades más antiguas: "EUSKADI ES LA PATRIA DE LOS VASCOS".

Y este es el verdadero problema del gobierno de este país. El verdadero problema de Estado, pese a quien pese, es la existencia del llamado "problema vasco" y que en la solución de este problema esta presente esa fuerza mayoritaria de este país que es HERRI BATASUNA; quien no está dispuesta a vender a Euskadi en ningún mercado bajo las amenazas ni la coacción, por muy violenta que sea. Otros "nacionalistas" textualmente afirmaron que "los derechos de los pueblos son, por lo que se ve entre nosotros, meras afirmaciones abstractas o frágiles utopias en el sentido más peyorativo del término. Este derecho no se recoge en la constitución, como también es insuficiente el artículo que se refiere a las lenguas de las nacionalidades". Hoy también han seguido afirmando: "...Nunca hemos puesto en duda la unidad de España...", es decir la España de la Puerta del Sol, única real, disolvente de la personalidad de los pueblos integrados en este Estado.

Que duda cabe que entre unas y otras declaraciones, entre unos y otros actos, se ha empezado una verdadera disolución de los principios del nacionalismo vasco en ánimo de adecuarse a esa "nueva" situación "democrática" impuesta por los poderes fácticos. Están en su legítimo derecho, como nosotros estamos en el de no cambiar un ápice nuestros principios al respecto. Si el gobierno vascongado cree que la paz en Euskal Herria consiste en la venta apresurada de todo el bagaje ideológico del patriotismo vasco, recuerden en conciencia a aquellos gudarís vascos del 36 a los que no se les dio aquella oportunidad de "Paz" desde su gobierno para haber pactado con Franco y defendido los principios del movimiento, evitar tanta sangre y sufrimiento..."

... "Hoy como ayer estamos convencidos que tras amplias declaraciones de intención la reforma ha fracasado, que las instituciones aquí creadas son totalmente inoperativas, que lo único que se ha creado son unas formas sin contenido, una especie de gobiernos y parlamentos fantasmáticas que por muy buena voluntad que les quieran algunos atribuir están incapacitados para poder tomar decisiones y llevarlas a la práctica cuando estas molesten o exasperen los planes del gobierno de Madrid, y es que, el gobierno vascongado jamás pondrá en práctica una decisión contraria a la reforma que le dio origen. Es el hijo natural concebido entre la madre arrepentida y el padre fáctico...."

EUSKALTZAINDIA

Duela zenbait urte, Euskaltzandia, eta beronen baitako Irakasle-go Batzordea bereziki, jabetzen hasia zen oraindainokoa "D" titulu izenaz ezagutu den azterketarako programaren behinbehinekotasunaz eta zehaztu beharraz —Azkenik, zenbait bilera, azterketa eta proposamenen ondorio gisa, programakuntza eraberritu eta zehatzago honen izena bera ere aldatzeari beharrezko eritzi zaio, "irakasle titulua" alde batera utzirik, gaitasun agiri izena edukinari hobeki dagokiolako.

Oraingo programak hiru atal nagusi ditu:

1. **Hizkuntz ezaguperak:** alderdi fonologiko, morfosintaktiko eta lexikalak hartzen dituenak.

2. **Hizkuntz trenetasunak:** entzumena eta irakurriaren ulermena, idazmena eta mintzamena kontutan hartzen dituenak.

3. **Kultur Edukinak:** euskal literatura, geografia eta historiazko ezagupenei dagozkienak.

Lehen atalari dagokionez, programa zaharrak eskatzen zituen hizkuntz ezagupenezko edukinak zehaztea eta osatzea izan da helburu nagusia, metodologia edo glotodidaktikazko saila kendurik, zeren lehen esanaren arabera, gaitasun agiri honetarako programak ez baitu irakasle gaitasuna eskuratzeko asmorik, baizik eta hizkuntz ezagupenezko sailik. Irakasle gaitasuna beste programa eta antolamendu batzuren arabera lortzeko helburutzat jotzen du Euskaltzaindiak.

Bigarren atalari bagogozkio, Euskaltzaindiak garbi utzi nahi izan du bere programa berri honetan euskara jakitea ez dela hizkuntzazko ezagupen batzuz jabetze soilera mugatzen, baizik eta trebetasun psikolinguistikoa batzuz lantzeari derriozko deritzala. Ondorioz, ahozko azterketan mintzamenari beharrezko den garrantzi guztia emango dio aurrerantzean, eta agiria lortzera datorrenak gero eta euskara bateratuagoz mintzatzeko gai dela erakutsi beharko du, idatzizko frogak gaintzeaz gainera.

Eta azkenik, kultur edukin atalari dagokionez, orainarteko literatur ezagupenak hedatzeaz eta sakontzeaz gainera, euskal geografia eta historiazko ezagupen orokorrak eskatzeari beharrezko eritzi dio Euskaltzaindiak euskararen osagarri gisa. Beraz, kontutan har bedi, 18. orrialdeko oharrak dioenez, "sail honetako kultur edukinak, oinarriko hizkuntz ezagupenak nahitaezkoak dituen heinean sartzen dira programan, eta ez geografiazko eta historiazko eduki bezala", hau da, hiz-

kuntzazko osagarri diren neurrian hartzen ditu programak batipat.

Bukaeran datorren Oinarriko Bibliografiari buruz ere, ohar bat egitea nahitaezkoa da: Euskaltzaindiak berak dituzten lanak proposatzeko ofizialki eta lehen mailan eta gainerako liburuak orientabide gisa eta arrazoi praktikoengatik soilik sartu dira zerrendan. Beraz, ez dira derriozkotzat jotzen programa hau betetzeko eta bertan ageri ez direnak ere ez ditu inola ere gutxien eta proposaturikoen maila berdinekotzat jotzen ditu.

EUSKALTZAINDIAREN HILEKO BATZARREA

Euskaltzaindiak hileko batzarrea egin zuen, Otsailak 27, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, Donostian, Luis Villasante buru.

Bertan tratatu zirenen artean, **Dialekoti Ikastaldiak** merezi du aipatzea. Ikastaldia Deban izanen da, Apirilaren 23, 24, 25 eta 26an, Mitxelena, Veny, MacMurrough, Rafael, Rotaetxe, Allières, Cerdà eta Etxaide irakasleen mintzaldietan.

Bi Kongresotara euskaltzain oso eta urgazle batzuz bidaltzea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Bata Holandan ospatuko da, erromantizismoa eta hizkuntza minoritarioak gaiarekin. Bestea, berriz, Israelen, eta oroimena aztertuko du, zenbait alderditatik.

Euskaltzaindiaren Biblioteka eta Artxiboa dagoen lekuan gaizki dagoenez, beste leku batetara aldatzeko gestioak egin dira eta horien berri jaso zuten batzartuek. Orobat Euskaltzaindiaren Biltoki-rako beste leku bat bilatuko da.

Frantzisko Ondarraren sarrera-hitzaldia Altsasun, Martxoak 22, egingen da. Erantzun-hitzaldia Jose Maria Satrustegik irakurriko du.

Bi Batzorde berri sortu ditu Euskaltzaindiak: bata, Literatur Batzordea, eta bestea, Kazetalaritza Batzordea. Bi batzordeekin Euskaltzaindiak berari zuzen dagozkion bi alor garrantzitsu nahi ditu zaindu. Egituratzeko osoa ondorengo batzarreetan egingen da.

Irakaslego Batzordeak bere bilkura izan zuen egun berean. Programa berria aurkeztu zen eta, gainera, aurtengo probak hasi zen prestatzen. Probak Maiatz erdian eta Irailaren hondar astean egingen dira.

Juan Thalamas Labandibar urgazle jaunaren heriotzaren berri eman zuen Euskaltzaindiari.

Azkenik, bi txosten irakurri ziren. Bata, Jean Haritschelhar jaunarena, euskararen bi latibodia, eta bestea, Juan Garmendiaz Arruebarrena jaunarena, Lardizabal-en lan ezezagunez.

ESKOLARTEKO BERTSOLARI GAZTETXOEN LEHEN

TXAPELKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskal Herrian bertsolari-tza indartzea asmo nagusitzat harturik, eta zehazki bertsozaletasuna eskolarteko neska-mutikoengan eratzeari helburu izanik, Eskolarteko Bertsolari Gaztetxoaren Lehen Txapelketa eratzeko Euskaltzaindiaren laguntasunez, eta oinarri hauen arauera:

OINARRIAK

1.- Euskal Herri osoko ikastola edo ikastetxeetan dabilzan 16 urte arteko neska-mutikoentzat eratzeko Eskolarteko Bertsolari Gaztetxoaren Lehen Txapelketa.

2.- Bi taldeetan banatuko dira bertsolari gaztetxoak: lehen taldea 13 urte bitarteko neska-mutikoek osatuko dute; bigarren taldea berriz, 14tik 16 urtetara bitartekoek. Talde hauen arauera, epai-mahaiaik talde bakoitza txapeldu bat izendatuko du.

3.- Eskolarteko Bertsolari Gaztetxoaren Lehen Txapelketa datorren maiatzaren 9an, larunbata, jokatu da, Donostiako Balda pilotalekuan, arratsaldeko 4etatik aurrera ospatuko den jaialdi nagusi batean.

4.- Txapelketara agertzen diren bertsolari gaztetxoak hiru proba hauetan neurtuko dira:

a) Buruz ikasitako bertsoak: bertsolari gaztetxo bakoitzak bere gustoko bertsolari baten lau bertso kantatuko ditu buruz. Bertsolariaren aukera atzoko edo gaur egungo bertsolarien artean egin dezake bertsolari gaztetxo bakoitzak.

b) Txapelketara agertzen diren bertsolari gaztetxoek aurrez idatzitako bi bertso kantatu beharko dituzte. Bi bertso hauek idatzeko gaia jaialdian bertan emango zaie eta hoge minututan idatzu beharko dituzte bi bertsoak, gero pape-retik jendaurrean kantatzeko.

c) Azkenik, bikoteak puntuera egite direlarik, puntutik suntera hiruna bertso kantatuko dituzte bertsolari gaztetxoek zortziko txikian. Ondoren lau oinak emanik, bertso bat osatuko du bertsolari bakoitzak. Amaizteko, azken puntua idatziz emanda, bertso bat osatuko du bakoitzak zortziko nagusian.

5.- Txapelketa honetako epai-mahaia Euskaltzaindiak izendatuko hiru lagunek, Ikastolako beste hiru, Bertsolari Batzordeko batek eta Foru Aldundiko beste batek osatuko dute.

Epaimahiaren erabakia onartu beharrezkoa izango da.

6.- Txapelketara aurkeztu nahitaez duten bertsolari gaztetxo guztien beren jaiotagiri eta argazki bakoitzari gainera, eskuhartzeko beren batzordea agertuko duen ikastola edo ikastetxeko zuzendariak izen-petutako idatzi bat bidali beharko dute, honoko zuzenbide honetara: Euskararako Zerbitzua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako Enparantza z/g, Donostia, Tf.: (943) 42 22 41.

7.- Txapelketan eskuhartu ahal izateko izen ematea apirilaren 30 aurretik egin beharko da; geroztik jasotzen diren bertsolari gaztetxoaren izen guztiak txapelketatik kanpo geldituko dira.

8.- **SARIAK.** Gipuzkoako Foru Aldundiak 400.000 pezeta emateko onarturik du Txapelketa hau antolatatzeko. Sariak dagokionez, honela banatuko dira hauek:

a) Talde bakoitzeko onenari txapela, Foru Aldundiaren zilarrezko domina eta 4.000 pezeta.

Bigarrenei brontzezko domina eta 3.000 pezeta.

Gainerantzkoek 2.000 pezeta eta oroigarria, parte hartzaile guztiak emango zaiona.

b) Talderik onena aurkeztu duen ikastetxe edo arduradunari 25.000 pezeta, AUSPOA bildumako zenbait bertso liburu eta bertsolarien kasetak.

c) Sari berezia: parte hartzaile guztiekin Iparraldera ibilaldia, egunpasa eginez. Martin bertsolaria Ahetzaren bisitatu eta Arraingoitzeko ikastolan bazkaria eta jaialdia.

Donostia, 1981eko Martxoan.

IPARRAGIRRERI BURUZKO KARTELAK

Eusko Jaurlaritzaren Kultur Kontseilaritzak Iparragirrerren urtea dela eta antolaturiko kartel lehiaketako lehen saria hutsiki gerratu da, Epai-mahaiaik hala erabakirik. Jakina denez, 100.000 pezetakoa zen lehen sari hau.

Maila berdineko bi akzesitu berratu dira, bakoitza 25.000 pezetakoa, "Bardo" eta "Imanol" izen-peturiko bozetoentzat, lehen Donostiako Alfreddo Tiendarena eta Manuel Santos arabarrarenak besteak.

Epai-mahaia Nestor Basterretxea, Antton Elizegi eta Rafael Lafuente artistek eta Xabier Aramburuk, honek idazkari gisara eta botorik gabe, osatzen zuten.

Lehiaketara aurkezturiko ehundaka hiru bozetoak Gasteizko Kultur Etxean ireki den erakusketan egongo dira Apirilaren hasiera arte.

3.or.- **Artikuluburua**

4.or.- **Agiriak**

5.or.- **Aurkibidea**

6.or.- **Lege barria demokrazia nazionalak ekarria**, "Militarrak amatzat eta zibil militartuak aitatat dituen lege honen mirari batzu aipatuko dizkizuegu ondoren".

9.or.- **Bertsolari gazteen txapelketa Zaldibin**. "Ba ziren huts batzu txapelketaren prestakuntzaz... hamasei bertsolari goizeko saioan biltzeko gehiegi dira"...

10.or.- **Bilbao Gurea**. Artikulu honetan "kontzejal" batzuren eritziak eta Bilboko arazo asko aipatzen dira. Ezinbestean, Bilboko alkatearen eritziak ez dira hemen agertuko, edizio hau ixterakoan Castañares-en lana iritsi gabe izan dugu.

20.or.- **Hankaz Gora**

22.or.- **Frantziako hauteskundeetat**

24.or.- **Amuriza, gizona eta bertsolaria**

Elkarrizketa luze honetan bertso-laritzari buruz ere berba eginarren, helburua beste bat izan da: Ez da bertsolariengana joan, gizonarengana eta langilearengana baizik.

31.or.- **Demokraziarik ez, mesedez!**

32.or.- **Iparragirre gurea**. Hildako batekin «hizketan»ari da egilea. «Elkarrikusketan» bitxi honek Iparragirreri buruzko datu asko hankaz gora jar diezaiyuke. Erraztasunez eta arintasunez konturatuko gara zer nolako gizona aztertzen ari garen. "Degenerada e ingrata tierra" dio Iparragirrek. Hil eta gero bizitzen hasi zelako edo, izango ote da?



35.or.- **Iparragirre bertsolaria**. Kantaria, bertsolaria ala biak batera?

37.or.- **Iparragirreren lana laukitan** Abiapuntu ezberdin bitatik egina da lana. Alde batetik kuantifikazioa erabiliz datu batzu ematen dira, bestetik lan beran erabiliz nortasun bat hatzemateko bideak jani dira.

42.or.- **Lurra ikarutzen denean** Sismologiak aritzen den artikulu honek gurekin bereziki ikusi handia dutela lurrikarek erakusten du.

44.or.- **Mari Blanchard-en men-dehurrena**

45.or.- **Superman, heroeak eta hondamenak**

46.or.- **Pertsonaia inportanteen hizkera**

Askok uste du pertsonaia inportateak kultura handiko gizakiak direla. Egia esan eta egileak erakusten duenez, matematika txikiaren aran simple batzu besterik ez dakitzate. Txarra ala ona litzateke gure politikoei berdin egingo balute euskara?

48.or.- **Maskarada antzerkia**

50.or.- **Mugari erantzunez** Mugak argitaratu bati E.H.E.K erantzuna ematen dio

51.or.- **Hiztegia 80 erabiltzeko den tresna bat**

52.or.- **Sortuko al da gizakien detektorako zerbitzu bat?** Ironiaz irakurriz gero, gauzak erraztuko zaizkigu. Abortoaren kontrakorreki kritika ironikoa egiten baitzaio.

54.or.- **Postaz etorriak**

56.or.- **Arau fonetiko erraz batzu** ematen dira bertan. Baina fonetika korapilotsuago eta hain simple ez denez, gai honetan adituek dute hitza. (Lehena, erdikoa, eta azkena)

anaitasuna

Ale honetan lankide izan gara:

Millan Aldana, I. Antiguada, I. Alvarez, J.I. Basterretxea, J.R. Bilbao, J.R. Etxebarria, M.J. Esteban, J. Idigoras, M.A. Landa, J.M. Pastor, X. Portugal, K. Santisteban, T. Trifol, G. Urrutikoetxea, Euskal Herriaren Euskaraz.

ANAITASUNA

Zabalbide 68 - entlo.
Tfnoa.: (9-4) 411 66 20 - 30.

MOLDIZTEGIA

Estudios Graficos.
Lege G.D.L. BI 1753 - 1967.
Printed in the Basque Country.

"Maia" delako erle motorizatua gure herriko zeruan zebilan bitartean, Madrildik zetozen cetme-artistak kontutan izanik eta Rodolfo Martin Villak Euskara armonizatuko duela-
ren esperantza osoaz, heldu zitzaidan eskuetara, sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik, konstituzioa zaintzeko eta terrorismoa urkatzeko lege berria.

LEGE BARRA NAZIO

Estatu Kolpearen ondotik datorkigun lege bat da eta legalki eman ez den kolpe horrek eragin duen zerbait dugu gure eskuartean agertzen den lege hau. Lege honek sail ezberdinak ditu eta zatirik garrantzitsuenak ondorengo bi hauek ditugu: Alde batetik terroristen aurka zuzenezuzenean, doan atala; eta bestetik, Komunikabideen aurka (terrorismoa laguntzen duten komunikabideen aurka) egindakoa.

LEGE ATZERAKOIEN KRONOLOGIA BAT

Estatu honetan, prentsez behintzat, eman diren lege guztiak oso kritikagarriak izan dira, baina azken hau uherka aputzen duen zerbait delakotan gaude.

1938. urteean eta 1966. erarte iraun zuena eman zen lege probisionalak Estatuko komunikabiderik gehienak Estatupean jartzen zituen kazeta eta irratietako zuzendariak Gobernuak izendatuz. Bestalde batetik orduan aplikatzen zen zentsura hori aurre-zentsura bat zela esan dezagun; hau da, zerbait ondaz irakurri baino lehen edo paperez herriko etxeetara bidaltzeko aurretik Estatuko ordezkariak informazioaren kontenidoa jakin behar zuten. Baina hau guztiau gutxi bailitzan Estatuak egunkari eta irratietako tresnak inkautu ei zitza-



RIA, DEMOKRAZIA ALAK EKARRIA

keen komunikabideren batek aurrean jarritako legeak ahutsiz gero.

1966. urtean (Martxoan, ere, aurten bezalaxe) "Prensa eta Moldategia" legea asmatu zuten Espainiako zuzendariak. Lege honek, aurrerapausu handi bat izan arren, ez zuen betetzen orduko gizarteak eskatzen zuen beste. Nahiz eta adierazpen askatasuna ukatu, lorpen baikor bat susmatzen genuen lege hartan: Kazetari-tza unibertsital mailara eramateaz publikotasun batez ornitzen zen ordurarte faxiskeria huts baten barruan kokatuta aurkitu izan zen ogibide bat.

Azkenez eta 1978. urtean agertzen zen Espainiako Konstituzioa. Baina nahiz eta zuen zuzenean lege honek ezer gutxi esan kazetaritzari buruz, badira dato batzuk kontutan hartzekoak. Askatasunaren bermagarriak aipatzean ondorengo hauek kondatzen dira: Pertsona askatasunak, Pentsamolde askatasunak Kolektibo askatasunak eta Ekonomi askatasunak. Ez da garaia banan banan denak aztertzeko eta heuratariko batetan geldituko gara: pentsamolde askatasunean hain zuzen. Atal horretan ondorengo askatasunak zehazten ziren: sinesmen askatasuna, erlijio askatasuna, kulto askatasuna, adierazpen, informazio eta hezkuntza askatasunak. Konstituzioan ez ziren zehazten bal-

dintzok eta hurrengo lege batek zuzenduko zituen arazo guztiak. Orain agertzen zaigun legeak adierazpena eta informazioa debekatzen ditu askatasun guztiak (?) emanten dituen lege honen aurka aurkezten diren medioak.

AURTENGO LEGEA

Militarrak amatzat eta zibil-militartuak aitatatz dituen lege honen mirari batzuk aipatuko dizkizuegu ondoren.

- "Konstituzional ordenua mespreziatzen dutenei eta zuzenbidezko Estatuto bizikidetasun baketsua arriskua jartzen dutenei zigor neurriak ezartzeko bidea da lege hau" (Sarretarik hartua).

- Aipamen berezia egiten da lege hone-



tan Komunikazioetaz"... hauek baitira jarrita dagoen sistema demokratikoaren subertsio gogortzalera deitzen dutenak".

- "Indarrez, delako Konstituzio hori kentzea nahi luketeen guztiak kartzela pena nagusiaz zigortuak izango dira".

"Esanez edo zabaltzez, konstituzio hori kendu nahi luketeen horiek bultzatzen dituen kartzela pena txikiak zigortuko da" (216. artikulua)

- "216. artikuluan zehazturiko deliktuen bat betetzen duten komunikabideen makina, egoitzak eta tresnak oro deliktuaren langailutzat hartua izango da... Akusatzaile Ministeritzak agerturiko hauzia onartua izanez gero epaikariak komunikabidearen herste behin behinekoa eta deliktuaren langailuen okupazioa aginduko du" (Azken zati hau, herste eta okupazioarena, 1938.eko legean entzuna genuen).

Askatasuna ematen digutenek askatasuna bera ken diezaigukete; horrela gauza guztiak bihurtzen dira haien hasierako lekura. Lehen Gobernu Militarra eta orain Estatu Kolpe Demokratiko Nazionala.

BESTE NEURRI BEREZIAK ETA EUSKAL HERRIA

Zain ditugun neurriok norainokoak izan ditekete inork ez du ikusten, baina nolako aurkezpena dakartzaten ongi ikusia ta

ikasiaz dugu gure herriotan: Gau batez 30 detenitu, zazpi gerra barku gure kostaldetan eta COES delako lagun horiek Aña-mendietan jolasten. Espainiak onartu zuen konstituzioak dioen bezalaxe (kontutan har gehienok Espainiaratuak gaudela) preso guztiek izango duten harrera demokratiko berbera. Baina Tejero jauna (Estatu kolpe bat ematearen salaketaz) gartzelan bisita ugariz bizi da eta gure herrietako bahituek, askotxotan ezer izan gabe, egunak igarotzen dituzten inkomunikaturik. Hau guztiau Neurri Bereziak jarri aurretik.

Gerora begira ezin dugu ezertxo ere jakin ahal, baina konkretuki duguna lege baten prozedura da; hau da, Gobernuaren prebisioak ongi irtenez gero, nola ekitaldiak ezagutuko ditugun. Aipatzen dizugun lege honek hiru aldi bereizten ditu bere baitan: Deiaraldi, Salbuespen egoera eta Hesialdi Egoera.

Ordenu edo/ta seguritatearen izuikarak gobernuaren indar arrunteen bidez kontontzea ezin denean Deiaraldi ezarriko da Ministru Kontseiluak horrela erabagiten baldin badu. Egoera hau hamabost egunetako izan daiteke guztira, baina gobernuak luzatzea nahi izanez gero lor dezake Parlamentuan eskaturik. Egoera honek ekar ditzakeen bi ondorio aipatuko dizkizuegu. Lehenen eta behin deiaraldi zabalduz gero lurralde horetarako agintaritzak zibila eta bere azpiko bai langile eta funtzionarioak zuzendaritzak gubernetibaren azpi gelditzen direla zuzen zuzenean esan dezagun.



Salbuespen Egoera aurrekoa baina astunagoa da. Kasu honetan zuzendaritzak zibilak (gobernua irakur) orain arte eskubide izan diren horiek debeka ditzake. Egunez gehienez baina luzatzeko era berridutela Parlamentuan eskatuz gero. Kasu honetan, salbuespen egoera honetan, Estatutuak garraioak, komunikaera guztiak (bai postazkoak eta bai telefonozkoak) kontrola ditzazke. Zuzendaritzak honek beste alde batetik, pertsonen eta ibilgailuen ibilera debekatzeko eskubide osatuta du. Norbaiti eta bere etxetik kanpo, beste bititoki berezi bat ezarri dezaioteko Gobernuak horrela baleritza. Errosario luze hau bukatzeko zera esan dezagun: publikazioen, irratsaio eta zine ikustaldiak debekatu ditzakela lurraldean dauden (lizenziadun eta lizenziabako) arma eta lehergailu guztiak jabetzen den bitartean edo lantegiak eta dendak sarratzea eskatzen duelarik.

Azken pausua Hesialdi Egoera genduke, kasu honetan lehen Gobernu Zibilararen esku egon diren ahalmen guzti horiek aipaturiko Gobernu Zibilak aukeratutako Gobernu Militar batek hartuko lituzke, eta zuzendaritzak zibilak barne eta kanpo seguritateari ez dagozkion gauzetan arduratuko litzateke erabagitako guztiaz informazio zenhats bat Gobernu Militar hori pasatu ondoren.

Orain arte ezagutu dugun demokrazia hau Monarki-Demokrazia izan baldin bada, hurrengo hau nola deitu behar izango dugu? Demokrazia-Militarra, ote?

Boletín de suscripción

Izena
Nombre
Kalea
Calle
Herria
Población

ZK
N.º
Bizitza
Piso
Herrialdea
Provincia



Hartu nahi dut.
Deseo suscribirme a:

- ANAITASUNA** Hamabostkaria. Urteko harpidetza: 1.500 pzt. Publicación quincenal. Suscripción anual: 1.500 ptas.
- ARGIA** Astekaria. Urteko harpidetza: 2.500 pzt. Publicación semanal. Suscripción anual: 2.500 ptas.
- HERRIA** Astekaria. Urteko harpidetza: 2.250 ptas. Publicación semanal. Suscripción anual: 2.250 ptas.
- JAKIN** Hiru hilabetekaria. Urteko harpidetza: 1.100 pzt. Publicación trimestral. Suscripción anual: 1.100 ptas.
- SASKI-NASKI** Hilerokoa. Urteko harpidetza: 900 pzt. Publicación mensual. Suscripción anual: 900 ptas.

X batez jar ezazu harpidetu nahi duzun aldizkaria.
Señale con una X la revista o revistas a las que quiera suscribirse.

Txartel hau bete eta gero bidai ezazu mesedez 495 posta kuxara. Bilbo, **PRENTSA EUSKARAZ** karta azalean jarri. Una vez rellenado este boletín, envíelo, por favor, al apartado 495 de Bilbao, poniendo en el sobre **PRENTSA EUSKARAZ**.

ORDAINKETA MODUA: Harpidea hartzen duzun aldizkariak zurekin sartuko da harremanetan ordainketa modua jakin dezazun.

FORMA DE PAGO: Cada revista, a la que se suscriba, se pondrá en contacto con usted para darle a conocer sus formas de pago.

Harpidedun berriak gabe, Euskal Prentsak ez du etorkizunik.

Eta aldizkariok desagertuko balira, ondorio larzak izango lituzke horrek Euskal Herriko kulturarentzat. Gure Herriaren ondare eta gure nortasunaren ezaugarri den euskarak, elkarri aditzeko erabiltzen dugun tresna horrek, beren ateak zabal-zabal irekitzen dizkion komunikabide bakarrek galduta lituzke betirako.

Egoera honi erremedioa jartzeko, zure laguntza behar dugu.

EGIN ZAITEZ ALDIZKARIOTAKO BATEN EDO GEHIAGOREN HARPIDEDUN. BETE EZAZU TXARTEL HAU.

"Prentsa euskaraz" en izenean, mila esker.

BERTSOLARI GAZTEEN TXAPELKETA ZALDIBIN

ZALDIBIKO SARIAREN SAIOEZ

Martxoaren hamabostean hirugarren Artzanberri eta Patxi Errota saria ospatu zen Zaldibin. Hogeita zazpi urtez beheko bertsolari gazteei egin zitzairen deia Goiherriko herri tiki polit horretara abia zitezten. Hasieran hamazazpi izen parte hartzaile bazen ere, Oiartzabal ez zen ageri eta orduan hauexek aritu ziren kantuz: Ibarguren, Elortza, Olano, Olalde, Laka, Iraola, Zapirain, Peñagarikano, Zabala, Pagola, Telleria, Salvador, Zeberio bigarrena, Ziarda, Iturbe eta Argiñarena.

Bertsolari gazteen txapelketa hau saio bitan banatu zen: Bata, goizeko hamaiketara eta bestea arratsaldeko bostetan. Azken saio honetara goizean ihardun zutenarik sei iritsi ziren, onenak, epai-mahaikoen aburuz: Olalde, Peñagarikano, Argiñarena, Telleria, Zeberio, eta Ziarda.

Sei Bertsolari hauek ofizioka, oinak eta puntua emanez kantatu ondoren gartzelako gaia tokatu zitzairen bakarka ari zitezten. Honetaz bertsolari bakoitzak bere abildadeak erakutsi zizkigun. Ipiniriko gaiak bi ziren: Bata parte hartzaileak gura zuen neurri eta doinuaz kantatzeko, "Lepoan hartu eta segi aurrera"; besteak "Zakar edo basura ontzi batetan jan bila dabilen gizonari" bertso bi eskatzen zituen zortziko txikiak. Juezek eztabaidatu eta gero Peñagarikano txapelkun izendatu zuten, bigarreanean Telleria izanik.

Sariak halakoak ziren: 22.000 pezeta, kopa eta txapela irabazlearentzat: 16.000 pezeta eta kopa bigarrenarentzat. Arratsaldeko beste parte hartzaile lauri hamarna mila pezeta eman zitzaizkien eta goizekoan bakarrik ibiliei, bosna mila. Ba zeuden beste sari bi ere: bertso onenarena eta graziarik haundieneko bertsoarena. Bi hauek ere Peñagarikanok eskuratu zituen.

Apai-mahaikotzat izan zirenak oso ezagunak ditugu bertso-arloan: Abel Muniategi, Jesus Mari Etxezarreta, Joxe Mari Aranalde eta Patxi Iraola. Gaijartzaile, Rufino Iraola.

BETSOLARIEZ

Zaldibin ikusitakoaz, oso maila ezberdinetako bertsolariak bildu zirela esan beharrean gaude. Gazte-gazteak izanez ez ditugu txit helduak oraindik eta honetaz, bertsolariarentzat ahalik eta esperientziatzeko urte gehien hobe dela dioen pentsaerak arrazoia ematen digu. Guztiengandik nabarmenenak Peñagarikano eta Telleria izan ziren gure eritziz. Lehenengo-arengan dakusagun kualitatetik handiena, bapatekotasun zentzua da. Telleriak, ostera, teknika du landuago, "txispa" txikiago daukan artean.

Zaldibin batzutan entzun genituen bertsoak ez genekizkike sailkatzen zeren eta neurtzerakoan arkodeoiak ematen baitziztuzten. Eta hau bertsolari guztiengan zen nabari, gradu ezberdinez izan arren. Dena dela, eta lehen aipatu dugunez, ez da harritzekoa, noizean behin "maisuek" ere egiten dute eta.

Txapeldunaz, harritu egin gintuela generrake, batez ere bere bederatzi puntu-koak botatzean. Ia zortzikoetan baino erraztasun handiagoa ba zuen, gaiari helzteaz zein neurtzeaz.

ZENBAIT OHAR ANTOLATZAILEEI

Ba ziren huts batzu txapelketaren pres-takuntzaz. Esaterako, eta honi buruz jende asko ados izanen delakotan gaude, hamasei bertsolari goizeko saioan biltzeko gehiegi dira eta hain denbora luzez kantatuz entzulegoa asper daiteke, batez ere agur bana botatzen baldin badigute hasieran, agur horrek puntu-kontuan deusik balio izan ez arren....

Gero, eta arratsaldekoaz, txarto dirudit gaijartzaileak egindakoa: Oro kantatzen hasita, ez zion Elortzari bukatzen utzi, argi eta asti arazoengatik. Esker txapelketa amaitu zena eta txanda hori juezen erabakien zai zeuden pertsonak entretenitzeko zena, bestela....

Geroago, beste huts handi bat egin zuen: Epai-mahaikoen bertso-rik barre-garriena hautatzeko paperak aztertzen ziztuzten bitartean, bakarrik Peñagarikano eta Telleria ipintzea puntua jokatzeko, besteak aulkietan jezarrita utzirik.

Gaiei buruz, behin eta berriro aipatzen dena: Ba dirudi ondino XX. mendearen hasieran gaudela. Beti bikotearenak, mozkortienak eta maitasunarenak jartzen baitira, dibortzioari buruzkoa ezik, Noiz arte?

Hala eta guztiz ere, Zaldibin ikusi zen garrantzitsuena bertsolariaren gorakada izan omen zen. Euskal Herriko arte hau ez dela galduko, alegia, bertsozale eta bertsolari on asko baitago. Eta azken esan hau frogatzeko demagun Peñagarikanok kantatu zituen bederatzi puntuko hoieta-rik bat. Arratsaldeko saioan izan zen kantatua, "Lepoan hartu eta segi aurrera" gaia zelarik. Hauxe da:

Gu guztiok alkartzen behar degu hasi bestela ezin liteke Euskadin bizi.

Alkartu gaitzela gu zazpi probintzi askatasuna baita guretzat irrintzi. Nahiz ta izan gutxi, hortzak erakutsi, ez burua jetsi, ez dezagun etsi, libre izango gera bihar edo etzi."

José Mari Pastor

BILBO



Udal guztiek izugarrizko arazoak izaten dituzte. Gero eta handiago gero eta arazoak konponezinago; dudarik gabe frankismo garaia-oren ondorioak. Norberaren hiriaren arazoak bideratzeko ez da behar irudimen handirik. Oraindik oroitzen gara zenbait autagaik auteskunde garaiean egindako deklarapenez. Castañares "el hombre capaz de cambiar Bilbao" omen zela denok gomutatuko gara. Baina ez zen berak edo eta bere segitzaieleek promesa demagogikoak botatzen zituzten bakarrak. Halako zirtzileriak leku askotatik bota egin ziren. Eskusartzeko programa aberats eta oso politak alderdi gehienek aurkeztu zituzten eta egia esan, irudimenik eza ez dugunez ez da zaila izaten norberaren buruaren idorreria guztia momentu larri batetan askatzea. Nori ez ote zaio burutzen hibaia estali daitekela Udaletxetik Atxuriraino ibilbide zabal eta zuhaitzez inguraturik eginez? Halako proiektuak erraz imajina daitezke baina errealitateak apurtzen ditu beti. Bilbotarra adimen azkarrekoa izan da beti, fantasisalea eta ba liteke arrazoiak inguratzen gaituzten ingurugiro krudelaren ondorio bat izatea. Askotan entzun ohi dugu Bilbo konponezina zela eta soluziobide bakarra bombaz apurtzea zela beste ingurugiro bat sortuz. Nola baina, zegoen koska. Urte askotan guztiz abandonaturik, lur honetan espekulazioak bereak eta bi egin ditu. Hiri handi askotan ikus daitezke espekulatzeko horren ondorioak baina sekula ere Bilboko tatainean. Neguritikoek ez dute maite Bilbo, are gutiago proletarizatuz eta burjes ttikien egoitza bilakaturik joan zen neurrian. Gainerakoek erremedioa topatu zuten Bil-

botik kanpo, Negurin, Getxon, Unben, etab. Hemengo oligarkiak Euskal Herriaz ezer nahi jakin ez bazuen, Bilborekin berdintsu jokatu du. Bilbo, atzerri horren beste parte bat bilakatu zitzaien, langileria eta burjes nazionalisten bilgunea. Hiri inperiala, kapitala, lekutan zeukaten: Madril. Espainiako Estatuan ez da antzera inon pasatu. Goiko burjeseriak propiotzat eta maitagarri kontsideratu du hainbeste hiri azken 40 urte hauetan: Bartzelona, Valentzia, Sevilla. Hemen ez. Bilbo 40 urtez gain guztiz abandonaturik eduki dute. Bilbo izan da "ciudad conquistada", "Ciudad separatista" eta ezer egitekotan

beren interesen ondorio logikoak zaintza besterik ez da egin: Banku batzuren egoitza berriak, industria eta lan indarrak aberastasunaren ondoan. 40 urte hauetan ez da inolako proiekturik aurrera eramatu. Ez da eraiki ezer artistikorik, ez da egin hirigintza klasikorik. 35 urtez gain ez da hiri on eraikuntza artistikoen aurpegirik garbitu eta beratu nahiko adierazgarri delarik te dugu; jauntxoek eta burjeseriaren korpeptu propioak etalehen motibazioak baitituzte errespetatu hortan ere ez. Ez da harrigarria beraz frustrazio horretatik Bilbotar berak ateratu dituen portaerak, hain artean kanpoan zabaldu dituzte.



Herensugearen burua. Aurtengo presupostutik (7.500 milioi pza), 4 mila milioi funtzionarioen soldatak pagatzeko izanen dira.

GUREA

BILBO ZIFRATAN

Egunoroko errealitate lazgarria den Bilbo honetaz txostena bat egitea txotxoiotzat kontsidera daiteke. Nork esango omen dio Bilbotar bakoitzari berririk dagoela eraman behar duen gurutze gainean?

Gaur egunetako Bilbok eta gure arbasoen hark ez x du inola ere elkar ikusirik. Orduko paradisuako foto zuribietzekoa edo eta ilunak, marroiak ala grisak, garai hartako tranbiak, zaldi eta gabarrak, oroitza pen erromantikoak besterik ez dira.

Orain oroitza penak baztertu beharrean gaudelarik interes osoa gure eskuez kanpo dauden interesetara dago: Hirigintza, espekuiazioa, populazioren gehiegia alde batetik eta bestetik garrai publikoen prezioak, zenbait istorio edo historia luze ia fikziozkoak dira guretzat interesgarriagoak. Istorio luze horien artean, dudarik gabe, metroa ere aurkitzen da.

BILBON: 450.700 BIZILAGUN

Bai. Azken zeritzuaren araura (1979.ko 12-31-koa), Bilbok eskubidez 450.700 bizilagun ditu. Horietatik % 48,42 (hau da, 218.204) gizonzkoak dira eta % 51,58 (232.496) andrazkoak.

Bilboko auzorik populatuena Begofia da zeinek baituta 108.803 bizilagun. Bigarrenik, Dugu dago (58.243) eta hirugarrenik, Abando (58.940). Populaziari begira, auzorik txiki-kiak Bilbo zaharra (13.345) eta Txori Herria (15.010). Hektareako bizilagunei begiriturik Abandoko geltokiko auzoa populatuena da, (674,87 x H); bigarrenik Atxuri (660,5); hirugarrenik, Diputazioa (468,15). Hektareako populazio guttien daukatenak ondokoak dira: Txori Herria (3,13) eta Erandio (15,9).

Bestalde, orain dela hogeit eta hamar urte Bilbok zeuzkan bizilagunak aipatzekoa da. Izan ere, orain bi hamarkada Bilbok 297.942 bizilagun zituen. 1950.ari egin ziren kalkuluen araura, Bilbok 265.000 bizilagun eduki behar zituen hirurogeietan. Ikusi dugunez, errore handi bat egin zuten orduko estatistika egileek hogeitamar mila bat gaizki kalkulatu. Errorea jakina, pentsaezina zirudien ez baitzen hainbeste etorkinik espero. Eta etorkinak erakartzeko planak ba zeuden inkestaegileek ez zuten inoiz pentsatu hain kopuru handi etor zitekeenik. Mila bederatziehun eta hirurogeita hamargarren urtean, Bilbok 405.798 bizilagun zituen, zeinetatik % 51,79 andrazkoak eta % 48,21 gizonzkoak.

E.H.



"farolismoa" rena esaterako. Baina Bilbo kaka bat izan da eta kakatzat kontsideraturik dago Bilbotarren artean edo kanpotarren artean. Azkenaldi honetan edifizio bat garbituta gero, zenbat aldiz ez da entzuten "pero este edificio estaba aqui"? si era una mierda... Arriagaz, Diputazioaz, Sota-eneaz, gobernu zibilaz etab. etab.

du; kriston ipuin polita. Inork ez daki omen zer gertatzen den istorio horrekin, ez udalan, ez administralgoan, ez hirian. Kilin kolo dabil beti eta interes politikoak seguraski ibiliko dira hor nonbait ezkutuko jo eta ke. Errontegiko zubia urtebetea gel-dirik darama. Bukatuta, sarbiderik ez. Imajina al daiteke halakorik beste nonbait?

Errepublikako garaian zegoen hainbeste arreakuste eta proiektu lohietara bota egin dute buruhausterik gabe. Artxandako Tunela, trenbide eta geltoki nagusien baterakuntza, Abando Geltokiaren lurperatzea, hibaiaren estaltzea, Txori Herriko ensantzea, Olabeagako zubia. Guztietan oligarkiaren interesak nagusitu egin dira. Interes hauen indarrez Bilbo edo eta gaur Bilbo Handia izena duenak hogeitabi kilometro ditu luzeran, Galdakaotik Santurtzi eta Getxoraino baino bere zabalera handienak bi kilometro ere ez ditu egiten. Eta herensuge hau benetako monstruo bat bilakatu da bere bizilagunak egunero irentsiz. Egunero mila litro gasolina alferrik gastatu, mila ordu lanera edo eta etxera joateko, mila atasku eta denbora galdu zentrora sartzeko dauden hestubide urrietatik; hiru milioi, bost milioi bizilagun bailuen bezala. Eta honetarako dauden soluziobideak moeta askotakoak izan daitezke baina garabiak, ezinaparkatzeak eta debekapen guztiak beste, benetakoak prestatu behar dira, benetako herri garraioak sortuz. Metroa hor kokatu beharko genuke baina metroaren istorioa, hori besterik eta ez gehiago dela ematen

Arazoak arazo, auzotegietakoak ere hortxe daude. Berdegunerik ezean auzo guztiak benetako inurritegi bihurtu dira. Kale asko asfaltaturik gabe, estoleriarik gabe. Bi urte darama Echevarria fabrikak itxirik eta hainbeste proiektu eta aurreproiektu entzun ondoren, fabrikaren orma deslari horiek jausiko zaizkigu egunen batetan gure gainera eta arazoak konpondurik gabe jarraituko du. Interesak beti leku berean daude eta interes horien kontra egiten ez den artean ez da ezer aldatuko. Azkenez beti bezala, problema oso politikoa da. "Ley de regimen local" aldatu beharrean dago baina horiekin batera hainbeste lege ere bai. "Ley del suelo", "ley de expropiaciones" gizaeskubideak errespetatuko dituen legeak atara behar dira eta Castañares nahiz eta oso kapaza izanik, zulo berean jausiko dira Castañares bezalako kapazak hainbeste lege atzeratu eta faxita aldatuko ez diren bitartean. Ez du zentzurik beraz, politika ez egitea udaletan, berek egiten dute bada! Nortzuk proposatu dute Bakearen nobel sarirako Espainiako erregea?

**ARRIAGA, ALHONDIGA ETA
BESTE PROIEKTU**

Hirigintza alorrean kanpo betidaniko gaurkotasuna duten proiektuak aurkitzen dira: Arriaga, Alhoñdiga batez ere. Biak Udalaren kultur sailaren babespean.

Arriagako lehengo lanak oraintxe honetan egiten hasi dira. Lanak 80.miloi pezeta eskatzen du eta uste da hurrengo Abuztuan, Bilboko jaiekin batera berriro irekiko dela. Udalak dioenez, Arriagarekin duten ideia, udal antzestoki bat egitea da eta horretarako arduratuko da omen Batzorde bat.

Alondigaren proiektua iretenbiderik gabe aurkitzen da presupostu arruntek emateñ dute diru kopuruarekin ez baita nahiko.

Udalak zor emisio bat egingo du bere kontura eraberritze honen kostuak betetzeko. Proiektuak bilakatu nahi du etxe hau (orain arte ardotegia) kultur etxe batetan eta modu honetaz arlo honetan Bilbok daukan urritasuna beteko du.

HIRI GARRAIOA HERRI KALBARIOA

Egunen batetan ezkutuka eta inori abisurik eman gabe, batetik bestera, autobus guztien prezioak altxatu egin zituzten TUGBSAkoek. Ibili ziren asmo horrekin hilabete batzu gorago baina auzoelkartek eta Bilbon bertan atera zuen iskanbilak atzeratzea eginarazi zieten. Autobus asko erreta gelditu ziren garai hartan eta auteskunde garaia zegoenez autobusek "Aginaga ladrón" letreroekin paseatu ziren.

Aginaga horrek TUGBSAren akzioetako parte garrantzitsu bat zeukanez, eta UCDren zerrendetako lehengoak izanik,

altxatze horretarako ez zela momenturik egokiena pentsatu omen zuten. Baina "altxamendua" iritsi zen eta Udalak (EAE) ez omen zekien ezer. Hamabost hilabete tan zehar bi gorakada egon dira. Udalak egin diren diskurtso guztiak alferrik geratu dira; azken batez hartutako erabakiek onartu egin dira. Baina prezioa ez da arazo bakarra. Urdin batek 28 pzta balio du Gorri zikin eta zaharrek 18. Askotan auzo batetik beste batetara joateko bi eta hiru autobus hartu behar dira. Santutxu eta Deustura joateko bi autobus. Errekalde berrira berdin. Eta gauzak horrela TUGB



Auzoak larri. Udalak udaletxe aurreko lorategiak konpontzeko 150 miloi gastatu du.

ZINEGOTZIAK MINTZATZEN DIRA

SA BERARENGANA joan gara ea honi buruz ezer erantzuteko zeukateneentz. TUGBSAren ustez, "ezin daiteke dagoen linea-zerbitzuei linea berri gehiago ipintzea, zirkulazio problema handiak sortuko bailirateke" "...Kasu guztietan linea berrien irekitzea Udalari dagokio, udalak eskakizunak bideratu behar baititu".

Gure ustez erantzun hauetan benetako azpijoko demagogikoa dago, linea luzeagoak irekitzeak, logika batetan oinarriturik behintzat, ibiltzentzu bereko linea laburragoak kentzea suposatzen du. Casco Viejo/Misericordia, Indautxu/Deustu, Santutxu/Indautxu, Arenal/Indautxu eta bezalakoak kentzea suposatuko bailuke eta benetako hiri garraio bat irekitzea: San Inazio Santutxu, Santutxu Errekaldeberria etab.

Benetako arrazoia guztiz diruzalea da. Hogeta zortzi pezetekin Bilbo guztia korri liteke eta orain Bilbo berdina korritzeko hiru aldiz kopuru hori beharrezkoa da askotan.

TUGBSAk dioenez prezio berdintsuak daude Estatuko ia leku guztietan baina TUGBSAk ez dioskuna zera da: Bestelako toki horietan hiri osoa korri daitekela gehienetan, autobus bat bakarrik hartuz.



TASIO ERKIZIA (HB)

1.- Bai, lehenengo galdera hori buruz, zer balorazio egiten dudan ayuntamentuko funtzionamentuari buruz, ni hasiko nintzake esanaz udaletxeetan, noski, ba Euskal Herrian politika orrokorrean gertatzen den gauza berdina gertatu dala, hau da ayuntamentuan gauden indar politiko guztiak aukera bat egin beharrean arkitu garela, hau da frankismoarekin jarraitu ala berrogei urte illun eta triste hauen historia apurtuz, herriaren zerbitzuan jartzea. Eta Bilboko ayuntamentuan noski, egoera edo hobeto esanda, bide gurutze honetan, erabaki bat hartu da, eta PNVrena da, noski, frankismo garaian bezala jarraitzea, eta erabaki honek berekin dakar zenbait ondorio, ez dagoela demokraziarik ayuntamentuan, udalbatza guztiz mugaturik aurkitzen dela eta demokrazia eza eta mugaketa hau konkretatuko nuke batetik, ekonomi arloan. Guk badakigu Bilboko zerbitzuak orain hogeita hamar urte bezala daudela eta orain hogeita ha-



Hirigintza demokratikoa.

mar urte baiño hiru aldiz bizilagun gehiago dituzenez Bilbok, ba guztiz desfasaturik aurkitzen direla. Ez da egin azken urte honetan ez polikiroldegirik, ez da lurrik aukeratu berdegunea bezala uzteko, eskolak guztiz abandonaturik egon dira. Kultur etxerik ez da egin. Beraz, esan nahi dugu honekin, Bilboko infraestruturara orain hogeita hamar urte bezala dagoela ia ia eta Bilboko ayuntamientoa arkitu dela honi ezin erantzunik, honi ezin erantzunik ekonomia guztiz mugaturik dagoelako. Bestetik politikoki mugaturik arkitzen da: ley de régimen local, delako honek, alkateari izugarritzko boterea ematen diolako, herri mugimendua igotzera doalako eta globalki ayuntamentuaren funtzionamendua ba, guztiz antidemokratikoa bihurtzen duelako; eta hirugarrenenez frankismoaren estruktura eta legeak onartzeak funtzionario berdinak edukitzera garamatza; ta funtzionario berdinak edukitzera esanai du ayuntamientoak ez duela aurreratzen eguneroko funtzionamenduan, lehenengo txartulo berdinekin, lehenengo gauza zikin berdinekin jarraitzen duela ayuntamiento honek.

Laburtuaz, esango nuke, nola baloratu bi urte hauek, ba praktikoki ez dela aldaketarik egon, ayuntamientoak ia ia berdin jarraitzen duela; hau da, ayuntamientoan daudenak, kaso honetan PNVk lehen bezelaxe, burgesiaren interesak defenditzen dituela eta noski burgesen kritikatzeko duten guztiak zapaltzen eta baztertzen jarraitzen dutela, beraz hitz batez, ayuntamientoan praktikoki ez da ezer aldatu ia ia berdin jarraitzen du denetan.

2.- Bigarren puntuari lotzen garelako gaurko funtzionamendua nola definitzeko edo gaur egun ayuntamientoak dituen arazo larrienak zeintzu diren. Benetan pentsatzen dut luze mintza gindezkela hontaz, baina dena den iruditzen zait askoz interesgarriago mugatzea eta zehaztea zenbait puntu. Ayuntamiento hontako gaurko funtzionamendua definitzeko nuke hola: lehenik izugarritzko deskoordinazioa dagoela gaur egun. Denak dakigu PNVek bere kanpainan, Jon Castañares presentatu zuela esatera honekin: "Jon Castañares el hombre capaz de cambiar Bilbao, el hombre capaz de cambiar el ayuntamiento" Nik esango nuke praktikan ez duela ez Bilbo aldatu eta bestela galdetu edo-

zein Bilbotarri, eta ez da ere ayuntamientoa aldatu. Ayuntamientoan oraindik lehen bezala zen, plenotetan, hartutako hainbat erabaki ez dira praktikara eramaten, eta areago oraindik grabeago esango nuke, ayuntamientoan arazo larrienei ez zaie erantzuten. kasu konkrituak: TUGBSAren gorabehera. Denok dakigu aspaldian eskatu dugula TUGBSAri buruz estudio edo ikerketa sakon bat egin behar dugula erabakitzeko nola jokatu, benetan munizipalizatu ala orain bezala jarraitu. Bi urte pasatu dira, bi plenotan erabakia dago TUGBSAri buruz estudio sakon bat egitera eta ez da ezer erabaki. Beste ejemplu bat: El sol enpresa famatuak eramaten du Bilboko garbiketara, batez ere hainbat plenotan eta erabaki hartu da hontan ere egin behar dela ikerketa sakon bat, jakin dezagun kontzejalok zer den

egokiago Bilboko herriarentzat, eta ayuntamientoarentzat, el Solen eskuetan jarraitzea ala hori munizipalizatzea, baina guk ez dugu esaten beste estudiorik gabe egin behar den horrekin, baina erabakia dago eta eskatu dugu mila aldiz honetaz estudio sakon bat egin behar dela, eta gauden egoeran oraindik estudio sakon hori presentatzen ez ditugutena. Honekin esan nahi du, alkatea, ta ez PNV ez dala enfrontatzen ayuntamientoan dauzkaten problema nagusienari.

Beste ejemplu bat: taxisten arazoa egon da urte bat eta bi hilabete erantzunik gabe. Zergatik? PNVek bildurtzen zelako eta PNVek bildurtzengatik arazoa gelditu da atzeratzen eta azkenean kalean egon dira izugarritzko nahasteak. Eta honekin ondoren bat ateratzen dut eta da, Ayuntamientoko arazo larrienak ez direla azter-



tzen, ez direla sakontzen, eta erabaki bat ez dela hartzen arazoeri buruz, ba, azkenean guztiz proletatizatzen ez diren bitartean, eta benetan pentsatzen dut negargarria dela, bakarrik ba dirudi ayuntamientoak funtzionatzen duela, ba ia mila pertsona ayuntamentuan sartzen dehean edo kalean zehar Bilbon izugarritzko arazoa egoten danean.

Bigarren aspektua defini dezakeguna, ayuntamiento honen funtzionamentua da, ez dagoela gardentasunik jokaera edo ayuntamiento funtzionamentua ez da garbia. Herria ez da enteratzen ayuntamentuan pasatzen den gauza askotaz, baino askoz negargarri bada, ez bakarrik herria baizik kontzejalok ez gara enteratzen ayuntamentuan pasatzen diren gauza askotaz. Lehen bezalaxe, jarraitzen dute, faboritismoak, entxufeak, lagunt-

suak... lehen frankismo garaiko funtzionari berdin berdinak jarraitzen dute. Baina kasu hontan nik ez nuke esango bakarrik funtzionariak, baizik ayuntamiento ko kontzejalak, batez ere PNVtarrak frankismoren garaiko jokaera berdin berdina dute. Eta eredu konkretu bat.


Egun deskubritu genuen, Ayuntamentua ari zela jendea apuntatzen zentsua egiteko eta guk, hain zuzen Santi Brouard eta biok joan ginen eta galdetu genuen: zentsuara apuntatzeko, nork daki zentsua egiteko langileak behar ditugula, publiko egin al da hori?, eta esan digute: ez, ez da publiko egin. Beraz, zer esan digute: ez, ez da publiko egin. Beraz, zer esan nahi du? Ikusi ditugu apuntatu direla mila pertsona, bertako kontzejalak, estadistika batzordeko kontzejalak esaten zuen laguneri, laguneren artean, eta guk exijitu dugu

hori publiko egiteko eta guk exijitu duguelako ez da egin publikoa. Baina ez bakarrik hori, baizik, eskatu dugu horretako apuntatu duen pertsonen izenak, lista, zerrenda eskatu dugu eta ikusi dugu zerrendan eskumaldean apuntatu zutela noren entxufeaz zetozen. Eta orduan guk esan dugu, mesedez zertan gabiltza. Frankoren garaian bezala gaude, Frankoren garaieko entxufeak berdin berdinak ikusi ditugu, egia da momentu hontan hori pixka bat aldatu dela eta korrejitu dute guri esker, Benetan usten dugu gauza askotan jokaerak berdin berdinak gertatzen dela. Ayuntamentun oraindik absolutismoa, laguntsuen eragina, lehen bezala zen jarraitzen.

Hirugarren gaudegun ayuntamentun beste bereiztasun nabari hauxe da, ta nere ustez grabenatarikoa: Hauzo elkarteak, asociación de vecinos, deuseztu nahi dizkigute. PNVek badaki bere jokaera garbi burgesieren aldekoa dela. Eta badaki bere etsai nabarmenak hauzo elkarteak direla, eta ondoren, egunetik egunero garbiago ikusten ari gara, nahi dituztela hauzo elkarteak deuseztu nahi dizkugutela Nola? Modu askotara. Baina besteen artean honelaxe, hauzo elkarteak presentatzen dituzten rebeindikazio guztiz baztertuaz eta boikoteatuaz. Besterik hauzo elkarteak eskatzen dizkiguten lokal guztiak ezetz emanaz edo permisua debekatuaz, eta bestetik kanpaina publiko ta eginez hauzo elkarte horiek ez dirala hauzoen ordezkari ez direla inoren errepresentante edo ordezkari, eta guk noski, gero esango duten bezala, guretzat oso inportantea da hauzo elkarte hoiere zer eginga ayuntamentun.

Laugarrenez, PNV zuzenki doa ezkerreko kontzejal hoiei boikoteatzera guk egiten ditugun proposamenak, egunetik egunero, baztertuago daude, izugarritzko pegak jartzen dizkigute eta ejenplu konkretu bat da orain egiten ari geran elkarrizketa hau, normalki guk ayuntamentun egin beharko nuke. Zergatik? Ba nik arratsaldeetan ayuntamentun egoten naizelako lanean. Ezin dugu egin, ez digutela usten arratsaldeetan inor, kontzejala, ez den inor ayuntamentuan sartzen, nere ustez hori benetan lotsagarria da.

3.- Eta azkenez, hirugarren puntua loturik, zeintzu diren Herri Batasunentzat aurrera begira, puntu nagusia edo nola



JON NIKOLAS

definituko genduke aurrera begira Herri Batasunaren jokaera. Nik konkretatuko nuke arlo hauek. Gure kanpainan guk erabili gendugun esaera famatu bat: alkaterik honena herria, esan genduan. Beraz horrek esan nahi du, eta gaur bi urte pasatu ondoren guretzat funtsezko helburu bezela jarraitzen du, hau egia bihurtzea, alkaterik honena herria, eta egunetik egunero konbentziatuagoa nago bide egokiena hauxen dala, ez dugula ordezkari burukratikurik nahi, baizik herria parte eman behar digula, ta parte hartu behar duela ayuntamiento, eta herriak parte hartzen ez duen bitartean ayuntamiento demokratikorik ez dugu izango. Nola hartu parte? Modu askotan. Lehenengoz herriari ayuntamiento ateak zabaldurik. Ateak zabaldurik zer esan nahi du? Ba momentu hontan ba daramat aste bat, nik konkretuki ta Herri Batasuneko kontsejalik gure despatxoko mahaia hartu eta ayuntamiento atean edo ayuntamiento sarreran, hallan jartzen gerala. Zer dela ta? Ba sinpleki ta soilki, bi arrazoiengatik, lehenengo gaur egun ayuntamientoan sartzen dien guztieri eskatzen diotelakoz fitxa bat betetzea. Zertarako fitxa hori? Alkateak kontrolatzeko nortzuk doazen Relaciones Ciudadanas delako sekziara, eta guk ez gaude prest hortarako Praktikoki kontrol hori da alkateak nere pertsonangan eta Herri Batasunengan eraman nahi duen Kontrolaren espresio bat.

Eta lehen esaten nizuen bezala, bestetik arratsaldeetan gauregun ezin da sartu inor ayuntamientoan, ez gaituzte uzten inolako bizilagunekin gora igotzen eta gu guztiz honen kontra gaude, nik arratsalde asko pasatzen ditut ayuntamientoan, baino pasatzen ditut Bilboko bizilagunek zerbitzuanta ez naiz burokrata bat, baizik herriaren zerbitzari bat eta hortarako ateak zabalik behar ditut.

Hori batetik eta bestetik, noski exigitzen dugu ayuntamiento ditun lokal guztiak zabalik egon behar dira herri mugimenduztat, eta hirugarrenez beharrezko ikusten dugu ayuntamiento onartzea hauzo elkarteak, entzutea hauzo elkartei, eta auzo elkarteekin batera lan egitera gure helburua da herri mugimenduaren alde jokatzera era hontan. Beraungandik infor-

mazio jaso eta ayuntamiento guk beraiei informazioa emanaz.

Gure helburu bat izango litzateke alkaterik honena herria praktikara eramaten, konkretatuaz herriaren partizipazioa. Bigarren herria informatuaz. Modu askotara guk egin dugu Bilboko eskolen egoerari buruz txosten bat, nahiko zabala, eskolen egoera guztia, azalduaz gure ustez oso positibo izan da, ba guraso askori begiak zabaldu dizkiegulako eta konturatu diralakoz zein den Bilboko eskoletako egoera. Ba hortik aparte ari gara beste dossier bat prestatzen eta pentsatzen dugu urte honetan zehar beste hirugarren bat ere prestatuko dugula. Orduan, guretzat informazio bide inportante bat da dossier horiek prestatzea.

Bestetik, nahi dugu eta ari gera prestatzen auzo guztietara joan nahi dugu Herri Batasunako ordezkariak, kontzejalok, informatua eta bi urte hauetako lanen balorapen bat eginaz. Nik uste dut benetan hauzoetan izugarriko desinformazio dagoela eta orduan informatu behar dugula jendea zehazki zer nahi dugun egin, PN-Vek zer oztopo jartzen dizkigun eta zeren interesen zerbitzuan dagoen gaur egun ayuntamientoa. Zoritxarrez gu ere ayuntamientoan gaude, baiña guk esan dezakegu, esan beharrean gaude ayuntamiento aparatua burgesiaren zerbitzuan dagoela ez auzotarren zerbitzu.

Eta hirugarrenez guk jarraituko dugu eta gainera askoz zorrotzago jokatu nahi dugu jauntxokeria eta jokaera zikin guztiak denunziatu eta publikoak eginaz. Lehen esan duten bezala ayuntamientoan Franko garaian bezala jarraitzen du, bizio berdinez praktikoki eta gu ez gaude ados eta ez gaude prest hori onartzeko eta orainarte zenbait denuntzia egin ditugu, hemendik aurrera pentsatzen dugu denuntzia zorrotz eta zehatzagoak egitera.

Beraz, hiru puntu horiek izango lirake aurrera begira gure jokaera nolabait definituko lutekena: hau da alkaterik honena herria, hau da herriaren partizipazioa, benetako partizioa bihurtu, bigarrenez herria informatu lehen esan duten era ez berdinetara eta hirugarrenez jauntxokeria eta jokaera zikin publiko eginez eta denunziatuz.



ERRONTEGIKO zubia. Urtebetea bu...

1.- Ayuntamentuko egite demokrati-ko berri honek benetako arazo kontradiktorioak ditu zeren EAJk udal problemen aurrean "Regimen local" delako legean finkatzen baititu bere ahalegin guztiak. Delako legea bilakatu beharko zen Moncloako paktuan baina ez zen egin. EAJk bere talaiatik eta udaletxean gehien- goa osatzen duenez beraiekin konforme ez dauden Bilbotar guztien dinamika edo eta auzo elkarteek aurrera eraman zituzten bideak, parte hartzea esaterako, moztu eta ito nahi ditu. Askoz demokratiko-ago litekeen administralgoa eta administretaren alde EAJk ez du ezer egin. Bilbotarren parte hartzeari izugarritzko oztopoak jarra dizkio. Udalak berdin zentralizaturik segitzen du. Txori Herrin esaterako azpitik jokatu egin du. Administretaketa

hirikoari hurbildu baino urrutiratu egin du. Berak sortu dituen batzorde kontseilariak ez dute administretaketa herriari hurbildu.

EAJk auzo elkarten kontra benetako burruka bat antolatu zuen eta aurrera eraman. Kontradizio askotan erori egin da horregatik. Hortxe daude Bilboko jaiak, Otxarkoagako arazoa, zerga bereziak, udal garraioa, taxiak etab. Gauza hauetaz plenoetan aritzea ukatu egin du beti EAJk. Arazo guztiak desbideratzen eta atzeratzen jarri ditu, beste norbaitek soluzionatu beharko bailukeen. Egoera honek berdin jarraituko du ezkerrek gehien- goa lortu arte.

2.- Itxurazko demokrazia honen denboretan programa sail batzuren ezak zera adierazten digu: EAJk ez du benetako

planik aurrera eramateko. Funtzionarioei buruz ez dauka inolako antolaketarik, zerbitzuak ez dira errentagarriak, funtzionarioen artean ematen den batzbesteko adifia 50 urte baino goragokoa da. Gazteak urri dira eta gainera lanpeturik ibiltzen dira eta soluziobide bat ematekotan bakar bakarrik aurkitzen dira. Gauzak horrela, administretaketa berez geldoa bada, halako arazorekin apoarmatua dela ematen du.

Auzoetatik itzelezko arazoak ekartzen dizkigute. Auzo asko abandonatu egon da hainbeste urtetan eta defizitak jakina ikaragarriak izaten dira. EAJk zerga berezen bidez soluzionatu nahi ditu arazook baina ezin. Frankistar udalbatzak utzi zuen zuloa ezin du bete auzokoak. Arrazoez gainera ez dute nahi. Bideak, estolteria, argiak, hor daude ezin konponduz.

Beste arazo handi bat herri garraioa da. Denbora zaharretan orain dela urte asko, udalak herri garraioaren esplotakuntza entresia pribatu bati eman zior. Tratu honek 2.006ra arte iraun behar du kontrako ahaleginak ez baitira egiten. delako entresiak TUGBSA du izena eta frankistar udalak denetariko kontzetsioak eman zizkion. Hontaz ere inolako planik ez dagoenez Bilbotarrok jasan egiten ditugu konpainia honen gehiegi guztiak. Ez da irtenbiderik bilatzen. Udalak ez du jakin automobilak hiritik kentzea. Zirkulaziorako batzordeak eskatutako garabiak ez dira inondik ere iritsi:

Otxarkoagako arazoa ere larria da. 4.000 etxebizitza eraberritu behar dira eta bi mila familiarentzat toki berriak topatu dira. Udalaren gehien- goak ezin du ezer egin MOPU-ren kontra ez baitu egin nahi presiorik beraien kontra eta arazo hau ere ustelduz doa.

3.- Nik uste dut oraingo udalak ez duela anbiziorik. Hau oso tristea da baina erraz ikusten da. Egitez, Udalaren ezkerrek bultzatu egin du EAJ inbertsio programa bat egin dezan. Inbertsio programa hau bi mila bostehun milioi pza baino gorakoa da eta EAJ ibili da beti kontra eta halako inizatibei oztopoak ipintzen. EAJk sortu duen egoera guztiz burokratiko da eta udalan ez da bilatzen irtenbiderik EAJ'ren zenbait sektorek presiorik egiten ez baitute.



arama eta sarbiderik ez. Ez du ezertarako balio.

XABIER MARTIN (LAIA)

1-Balorazioa ikuspuntu politikitik egin behar da; ezin da udal gestioaren balorazioerik egin, kaotikoa gertatuko bailitzateke. Zergatik ote kaos hau Aiantamenduan? Puntu bati oratuko diot: Aiantamendua talde politikotan zatituta dago. Hasiera batetan ba zegoen guztiongandiko zerbait egiteko borondatea, baina pleno baten ondotik haustura argia egon zen. Pleno hartara auzo elkarteak etorri ziren eta ez zituzten hartu nahi. Orduan, nola hurrengo plenoan "ertzainek" jipoia berotu baitzieten, bi jarrera agertu ziren, bata, niregandik sortua eta EE, PSOE, eta ordu hartan HBren multzoa zena batzen zituen; bestea, PNVk eta UCDk egindako eskuineko taldea. Honek haustura ekarri zuen. Zer hau gerta ez zedin ezer egin beharrean, PNVk gehiago erradikaldu zuen bere jarrera eta neurri ikusi saminak hartu zituen, halakoa baita kontzejalak ez zirenei sartzen ez uztea.

...Geroztik, PNVk indartsu ikusi zuen bere burua, bilera permanente-plenoetan nahi bezala guztia ateratzeko beste botu zeukalako. PNVk alkatea bere du, bilera permanentean gehiengo absolutua du, eta plenoan, UCDren laguntzaz, estatu onean daude, zeukaten problema bakarra bazen ere. Honek aldean dakar oposizioa eskuak lotuta egotea, hark berak organo exekutiboak kontrolatzen zituenez, guztiz leloena zen aiantamenduaren barruan behar bezalako politikan aritzea. Guk alderdi gisa egin genuen balorazioa jarrera politikoz aldatzea zen, hasiera batetan, hiritar mugimenduari autonomia osoa

eman behar zitzaioela eta honen planteiamendu politikoen artean nahasi behar ez zela uste genuelako. Guk uste izan dugu, gaur egun gauden gaudenean, auzoek bere kontrolatu behar zutela udal gestioa; beraz, ezkereraren kontzejalen lotura ageririk ez zen egon behar hiritar mugimenduarekiko, ekintzaren zentzu politikoan, ez ideologi arloan. Aiantamendu barruan inolako gestiorik ezin egin zitekeela ikusi zenean, beste maila batetara pasatu ginen, hots, kontzejaltak eta postuak eragile politiko gisa erabiltzera: haustura gertatua zen, beraz ez kontzejalik, ez gestiorik, ez ezertxo ere, gauza zen hiritar mugimenduan sartzea, berririk izatekotan abisu ematea, antolatzea, azken batetan, aldaketa erradikala, alegia. Gaur egun aiantamenduan ezin egin daiteke inongo gestiorik, den-dena menpean dute; oraintxe ere egoera politiko zaila gertatu da, zeren eta plenoan, gehiengo absoluturik ez duen-leku bakar honetan, kontra jarri baitzaio UCD, hain izan baita arbitrarioa PNVren jarrera.

Ezkerra ez zatituta huts egin zuen PNVk, gauza askotan elkarrengandik guztiz aldentuta gaudelako. Hau guztiau galduta ikusirik, ez zitzaion, bada, bururatu autoritarioagoa izatez besterik Honela, bada, UCD ere kontran jarri zitzaion. Orain marka ederra dugu: 13-16 proportzioan gaude plenoan, baina, dirudienez, independenteetako bat PNVra doa, beraz 14-15 heinean geundeke oraindik, baina nola UCDren Coterak kontzejalak karguari utzi baitio, hainbatean gaude, hots, 14-

14. Honelakotan, Alkatearen botuak gero gaitzen du eta ageri denez, gaur egun gestio politikoren bat behar dena antolatzen lana da, hiritar mugimenduari eutsi eta laguntzea, eragitea, honekin ez da esan nahi hiritar mugimenduaren barneko planteiamenduan sartu beharko denik presio ikuspuntu batez. Kontzejal batengan kontzejal eta alderdi iraultzaile baten kide den aldetik, egon daitekeen bitariko ikusmoldean, garaitu behar omen du kontzejal jarrerak, hasiera batetan, bestetarik jarrerak ikus ditzan herriak, baina orain honetan iraultzailearen jarrera nabarri gaintzen zaio besteari, aiantamenduan iragaitzaz dagoen arren, alderdikide gisa baitago, egon ere.

2-Lehengoa esan honekin lotuz, aiantamenduak dauzkan arazorik larrienak ez ditu Bilbok arazorik larrienak. Bere beharra dago, halere: programarik ez dagoenez gero, ez dago epe luzerako alternatibarik eta geroan begira perspektibarik ez dagoenez gero, bultzaka eta tipustapastean ari da.

Oraingo arazorik astunenak bitan bariatuko lirateke: bata, Bilboren geroa, hots, zer gertatuko ote zaion Bilbori 10 urterer barru, eta zeintzu arazo dituen lehendik eta bestea, Aiantamenduak dituen arazotak. Gaur egun, lehendik geneuzkan defizitez bultzaka ari gara; hementxe dago geroa: lehendik etorritako arazoak zeintzugenituen, zergatik ote genituen infrastrukturarik ezagatik, Bilboren bazieragatik; bestalde langile, etorkiner esplotazioa, herritar auzunenak, espeku



lazio maila garaiak dituztelarik. Hau honetara jotzen da, etorkina bertara zetorrenean ahal bezala finkatzen zen lana zuelako eta gauza handirik eskatu gabe, alegia; etorkina bertakotu da jadanik eta zenbait arazo, zergatik bizi ote den hola edo hala, planteiatzen hasia da. Honetara, infrastrukturarik ezaren arazoak ikusten ari da eta hemendixek sortzen da infrastruktura hoiek kontribuzio berezien bidez pagatu beharra eta jendea kontra eta nazkaturik dago.

Ondoan arazo larria dugu Otxarkoaga-koa; lehenik eta behin, arazo hauek guz-

kek sortzea eman dio halako entpresa handitzat bati laneku espezializatu gabea behar duela eta hondatzeaz dagoela. Entpresa hauek hil-bizitan daude gaur egun, denok dakigunez, gero eta galera itzelagoak dituztela. Beraz, burjeseriaren asmoa ondokoa da:

1.- Superportua egitea, Europakorik hoberena bihurtu nahiz. Bere eragina Gasteizeraino helduko litzateke. Superportuak ekarri egingo luke neurri handitako entpresa, laneku txit espezializatua beharko lukeena. Modu honetara, halako langile aristokrazia bat sortuko litzateke,

Txorierri ere zerbitzutarako hiri handi bihurtuko da. Oraintsu, pertsonaia batek esan zuen, eta arrazoa lagun, argi asko ezen "Txorierri ondoan Estatu Espaino-lean dagokeen espekulaziorik handiena gordetzen dela". Ikusmira honetatik aireportuaren arazoa ikusiko litzateke berak hartzen duen orubearen arazo gisa, ez berzko arazo gisa, hona, bada.

Derio'ko alderako proiektu ekingiz guztiei eta traba egitea nondik sortzen den, langilegoa haziko bailitzateke.

Honetara, PNV saiatu egiten da desanexio prozesua boikotatzen, udal gestio berriak ekarriko bailituzke hark.

3.- Gaur egun ez dago inolako projekturik, errealtate usainik ere duenik.

- Bilborako plan jenerala dago baina ez da batere eginkorra. Orube legea eginarren, ez egitearen arauerakoa behar da izan. Leloaren gauza litzateke beste ikuspuntu batetik begiratzea, zeren Bilbo jadanik eratuta baitago.

- Beste proiektu bat, kontribuzio berezien (?) hazierakoa dugu.

Ez dago besterik; zerbait egiten saiatu izanda aireportuaz baina PNVk enbarazu egin zion. Ez dago aurrekontuei buruzko politika, gisakorik ere. Aurten, ekonomi akordio ekin, 4.700etik 7.000 milioitara pasatuko da aurrekontuan. Inork ez daki zertarako den eta zertan gastatuko den dirutza hori.

Finean, Bilboko Aintamenduan ez dago elkarriketarako aukerarik. Beraz, ezin onar daiteke inongo proiektu politiko koherentziadunik.

Hau honetara jotzen da, etorkina bertara zetorrenean ahal bezala finkatzen zen lana zuelako eta gauza handirik eskatu gabe, alegia; etorkina bertakotu da jadanik eta zenbait arazo, zergatik bizi ote den hola edo hala, planteiatzen hasia da. Honetara, infrastrukturarik ezaren arazoak ikusten ari da eta hemendixek sortzen da infrastruktura hoiek kontribuzio berezien bidez pagatu beharra eta jendea kontra eta nazkaturik dago.

tiok aurreko urteetako infrastrukturarik ezak sortuak dira.


Bilboren auziak bere geroaren menpe funtziotan daude: ba dago burjeseriak asmatutako proiektu ageri bat. Makina bat datu fidagarri dago, gaia ondoko eran doakeela pentsatzeko:

Bilbo Haundiko eskualde multzo batua dugu, berezitasun behinena duena: langile askotxo du eta eskuina beldurtzen du honek. Industriatsua da, entpresa deskapitalizatua gehien bat dagoela. Hone-

langile multzo handiak hautsiko litzukeena.

2.- Honek Bilbo hirugarren zektoreko hiri bihurtuko du, hots, zerbitzu-hiria, merkatalgoan oinarritua. Gaminiz (Plentzia) luxuzko zona luke hark.

Gisa honetara, bigarren sektoreko hiria (langilegoaren auziak dituen), zerbitzu-hiri bihurtuko da, dirutza handiak dakartzana. Horrela, ezkerrekoa jendez hustuko litzateke pixkanaka eta baratzetarako gordeko.



BERMEON ENTZUNIKOA

A.- Zelako folloia dakar-zue PNV-en aspaldion, bat-tak direla eta bestak direla.

B.- Ba dakizu zelakoak garen hemen, eta batez ere horiek: geu nagusi ala musturra hausi.

A.- Horiek?, zeu ze partetakoara zara ba?

B.- Ni, sabinianoa.

A.- Orduan gauetan, noizik behin, batzokian tokatuko zaizu lo egitea, ar-zallustarrak ez etortzeko, ez da?

B.- Ez, hori antonianoak egiten dute.


A.- Zelako antonianoak?, erretuta zagoz. Sabinianoak gura izango duzu esan, antonianoak frailetakoak dira eta.

B.- Ez andrea, ez. Ondo esan dut. Frailetako antonianorik ez dago orain, haiek desagertu ziren, San Antonio gizajori inork ez dio kasurik egiten eta. Oraingo antonianoak santu berri bat daukate: Antonio Ormazza, eta horiek dira batzokia jagoten dagoenak, gau eta egun. Benetako sabinianoak geu gara: arzallustarrak.

EDDY

Giza tximinoa sortuko ote? Azkenaldi honetan jakin izan denez, txinatar zientziz gizon batzuk gizaziz (1) ernaldutuzten tximino eme bat. Kultur Iraultzaren garaia ziren eta halako une batez Txinako gardia gorriek hartu zuten indarrez, tximino emearen, hots, txinpantzearen ernalketa burututako laborategia. Honen eta ardurarik ezaren, ondorioz hil egin zen hiru hila-betetako umedun zegoelarik. Medikuek ez zuten autopsia egiteko aukerarik izan eta beraz, gizakumea, tximinokumea ala giza tximinoa ote zen jakin gabe geratu gara. Baina azkeneraino heltzearen, holako ernalketa batez zer (ala nor) sortuko ote zen jakitearren, alegia, aproba berriz egin beharko litzateke. Tximino emeak ba daude makina bat; azuia litzateke emea ernaltzeko gizazia emango lukeen gizonik aurkitzea. Agian bai, agian ez; txoria eta eskribaua luma ederrez.

(1) Semen humano.




"Hablar por telefono con Tejero es muy fácil".

Ha-lazioen Diario 16 egunkariak eta delakoa egia zela frogatzeko egunkari horretako kazetari baten elkarrizketaxoa argitaratu zuten. Tejero Alcala de Henares-eko gartzela militarrean aurkitzen da eta edonork telefonoz hitzegin diezaioke. Tejeroren hizketaldi telefoniakoaren arauera, "oso ongi aurkitzen da hiru izarretako hotel horretan". Gauza bat bakarrik falta egiten zaio: "Harantz honantz ibiltzeko askatasuna". Telefonoz hitzegin nahi baduzue, ez duzue zuen izenik eman behar, sasi-izen batekin nahiko. Zergatik ez gara saiatzen Soriako eta Carabancheleko presoekin berdinegin?

Polizianoek ez dute "barregurarik sortu nahi".

Batallon Vasco Español delakoa ez da atzoko erakunde bat. Orain dela sei edo zazpi urte, bere ekintzak egiten hasia da. Denbora oso luzea benetan. Hala ere, orain oso gutxira arte polizianoek ez zuten inor arrapa eta atxilotu. Guk, egia esan, "apologia del terrorismo" egiten duten guz horiei kasu egiteagatik edo, beraiekin harreman oso estuetan zeudela ere uste genuen. Baina ba dirudi ez dela horrela. Begira zer dioten Gipuzkoako gobernadore zibilak; egiozu kasu eta konprenituko duzu zergatik ez den egon orain arte atxilotzerik: "No podemos caer en el ridículo de detener a unas personas acusándolas de ultraderechistas y asesinos para luego tener que ponerlas en libertad". Horregatik ez dute orain arte inor harrapatu. Aurrerantzean, inongo atxilotetaren aurrean barregura etortzen bazaizu, esaziozu lehenbailehen Gipuzkoako Gobernadore Zibilari eta ez zaituzte detentituko. Esan zuen lagunei berdinegin dezaten.





Nahiz eta barre egiteko go-go guztiak euki, 600 atxilotu egon da Euskal Herrian. Jende guztiak omen dakienez, 600 atxilotu egon da Euskal Herrian azken hilabete hauetan. Askoren ustez hasi besterik ez da izan eta berdine jarraitzeko asmoa duela gobernauk uste dezakegu. Harrapatutako batzuek askatuak izan dira, beste batzuek oraindik ere inkomunikaturik segitzen dute. Denei "ley antiterrorista" delakoa erantsi zaie. Beti bezala "behar diren neurriekin trataturik izan dira" Gobernuak bere aldetik demokraziaren defentsan zenbait lege berri proposatu du Espainiako legebiltzarrearen aurrean. Adierazpen askatasunari dagokionez murrizketak itzela dotozkigu gainera. Eusko Jaurizaritaren lehendakaria "egunkariaren hertsialdiaren kontra ageri da". Zenbait jende galdetu digu ea guri (ANAITASUNARI) lege berria zetorkigun ala ez. Tristeziak ezetz erantzun diegu, Euskal Prentesak ez baitaki zer den "adierazpen askatasun" hori. Euskaraz ez dago horrelakorik. Guk lege berezi baten menpean gaude. Euskararen genozidio-legea deritza gureak.



Fraga jaun demokrati-koa eriotza pena zabaltzearen alde "terrorismoa uxatzeko". Adineko espainarrek nahi zutela (eriotza pena hau, noski) esateaz batera honelako honetaz harritzen gintuen: "Erailketa gogor bat egin edo lehergailuz biztanle in-defentsoak arriskuan jar-tzen duen terroristari ongi legokio pena hori jezartzzea". Dirudenez Fraga ez da ahaztu oraindik 1976.ean Gasteizen gertaturiko har-taz, eta ahaztu baldin badeherria ez da ahantzi inolaz ere. Han jazo zena terrorismoa izango ote zen, ezta?

1980. urteak industriak ez du desaroiliorik izan: Arrantzan eta Nekazaritzan hamarkadako hazkortzeak handiena izan baldin ba da pasatutako urte honetan, urte berean, baina industriari dagokionez desaroiliorik hori zerokoa izan dela esan genezake. Finantziatzeko ahalmena, ihaz esate baterako, guztiz negatiboa izan zen 1979. ean 24.100 milio-tan positiboa zen bitartean. Datu hauek Martxoan argitaratutako datu ofizialeak ditugu, baina oraindik ezin kapitalista ez da gosez hil.

Ballesteros eta Dopico jaun agurgarriak Polizianoaren barnean azenditua izango dira: Arregiren hilketaren erantzule zuzenak diren polizia bi hauek ego-era hobea bat ezagutuko dute poliziagintzan. Arregi hil ondoren polizianoaren aurka egin ziren kritikak zirela me-dio haien dimisioa aurkeztu ondoren eskertuak izango



tuzten subentsioak moztu egin dizkielako. Dirudienez kultura ez da batera garrantzitsua estatu horietan, arnabak dira mundua mogitzen dutenak eta. Trogloditiko eta atzerakoi guztiek esaten dituzte horrelako gauzak. Herri txikien nortasunak txikiak baina ez omen dira. Reagan, Fraga eta Calvo Sotelo aska bardinetik datozkigu.

Azken hamar urteotan 90.000 erlijiosok gonak utzi: Gonak uzteaz batera estatu sekularra eskatu ere bai egin dute erlijiosook azken hamarkada honetan. Gure berri hau erlijiosoek zabalduzako notizia batetik datorkigu, ez ote dira gehiago izango?. Baina ikus dezagun nola sailkatzen den kopuru oso hau. Alde batetik monjak ditugu, gremio honetakoen artetik 72.057k egin dute hanka. Fraileen artean kopurua txikitxoagoa izan arren ere 17.000tatik ez da jeisten. Korpuruotan ez ditugu sartzen boto txikiak egin dituzten lagunak. Sartuz gero kopurua askoz altuago litzateke gure ustez. Nahiz eta langabezia handi izan, guzti hori normala dela deritzogu. Norberak nahi duena sines dezake, baina sinesteen gainetik norberaren dignitatea dago eta gizateriaren errespetua ere bai, eta egia esan Eliza ofizialak ba du honetan franko ikasterik.

dira eta ondorengo postu hauek eskuratuko dituzte: Ballesterosek terrorismoaren aurkako ekintzetan goi-ardura eta Dopickok bere aldetik Poliziaren zuzendaritza orokorra.

Reaganek Hezkuntza elebiduna debekatzen du: Jendeak ez badaki ere, Estatu Batuetako zenbait estatutan elebitasun bitxi bat zegoen orain arte, batez ere, Hegoaldeko eta mendebaldeko zenbait estatutan. Dakigunez, Hego Ameriketako bizilagunak ugariak dira aipatutako estatuotan. Mexikar, Portoriko edo/ta Venezuelarrek gaztelaniaz egiten zituzten haien ikasketak. Gaztelania irakasten zen eskola askotan estatuon barne, kalkulo batek esaten digun bezalaxe ia hiru miloi terdi haurrek ikasten zuten aipatutako gaztelania hau. Reagan jaunak dituen pentsamolde berriak direla eta, hezkuntza elebidunak aldi berri bat ezagutuko du. Lehendakari berriak, orain arte izan di-

Euskal Hertzaintzak bi-kinidunak ere izango ditu: Eusko Gobernuak barne ministeritzak aditzera eman duenez denbora gutxi barru andrazkoek ere jantzi ahal izango dute euskal hertzaintzaren kolore liluragarria. Urte amaieran zabalduko omen da izena emateko epea eta promozio honetatik irtengo diren neskek hertzaintzaren % 15-20a bete-ko omen dute.

LKI alderdiak Aberri Eguna bateratsu bat eskatzen du: Bazko igandean Euskaldunek ospatzen duten jaietarik nagusi bat Aberri Eguna hau dugu. Aberri Egunok historia luze bat dute gure Herriaren kondaira berri honetan. Batzutan debekatuak izan dira beste batzutan onartuak baina zigortuak eta beste batzutan "goizaldeko Errosarioa" bezala amaitu egin dira batzuk besteen kontra gogor eginda. Oraingo honetarako alderdi honek egun bateratsu bat egitea gomendatzen digu nazio askatasunen alde.

Markos Bizkaia kostituzioaren zaintzaile porrokatua: La Gaceta del Norte-ko idazlea den Charo Zarzalejosi esan zionez "PNVak kostituzioaren zaintzale nagusia bihurtu da beste alderdi batzuk gaizki interpretatzen dutelako "Ez genekien guk PNVak hainbeste interesik izango zuenik Kostituzio hori defendatzeko orduko haretan abstenidu egin baitziren. Markos honen Euskal Herriak zuen zultatik irtetzeko zegoen bide bakarra erreforma zela esan zuen.

"El Libro Rojo del Cole" eta "El no vasco a la Constitución" liburuak Barakaldoko udalan: Jaikingo duzuezen liburu bi hauek debekaturik agertzen dira aspaldidanik, hala ta guztiz ere aipaturiko udal horrek erostea erabagi du Adierazpen askatasunaren alde daudelako. Baina erosi diren liburuen artean badira ere erotikotzat kontsidera daitezkeenak, "Fanny Hill" kasureko.

"La Arboleda" herrixkan aurkituriko armategiak 20 bala baino ez zituen: Propaganda gehiegia egin arren herri hortan agertu zen armategiak hogeita bala zituen bakarrik erabiltzeko modukoak, beste guztiak ustelduak baitzeuden. Poliziak, berak, esan duenez han aurkituriko hainbat munizio gerra denporakoa dela ematen zuen! "Hurrineko intzaurrak hamalau, bertara joanez gero lau" esaten zuen gure amama zaharrak irratitik entzuten zituen berriak interesatzen ez zaizkionean.

Blas Piñar Militar Gobernu baten aurka: Armada eta Milans jaunak jau ohoretuak direla aipatzen zuten bitartean eta Palma eguzkitsu horretan aurkitzen zelarik Militar Gobernu baten aurkakoa zela adierazten zion efe agentziari. Dena den — dio berak — "Erregeak militar bat aurkeztuko ba lu kongresoan eta onartua balitz niri oso ongi irudituko zitzaidan, baina halan eta guztiz ere, ni Gobernu Militarren aurkakoa naiz". Eta zeuk dioskuzu hori, muxila?

FR HAUTS

Bageneraman nahiko denbora hemengo lehendakaritzarako hauteskundeetatuz entzuten eta eztabaidatzen, baina epea betetzen ari denez gero, propaganda gero eta gehiagotu egin da azken egunetan.

Ez dut hemen beste hauteskunderik bizi, baina ematen dit inoiz baino hotzago dabilela jendea beraiei buruz; bai, hori da karpaina honen berezitasun nagusia: hoztasuna, edo ausartuko nintzateke ia esatera; gehiengoaren indeferentzia edo eskeptizismoa.

Aurrez aurretik nortzuk burukatuko dute bataila horretan: lehenik, eta batez ere, alderdi handien ordezkariak, hau da J. Chirac (R.P.R., gaullistak), V. Giscard d'Estaing (U.D.F. gobernuan dagoen alderdi edo koalizioa), R. Mitterrand (P.S.), eta G. Marchais (P.C.F.). Gero, alderdi txikien ordezkariak, alderdi handien beste zenbait, et independenteak: R.P.R. tik, M.F. Garaud emakume gogorra, M. Debré ministro-ohia, H. Bouchardeau, (P.S.U., h.d., Alderdi sozialista batua), L.V. L. tik A. Krivine, etab. eta gero independenteen artean, Coluche komikalaria, pasotismoaren izenean, eta B. Lalonde, ekologista.

Zerrenda luze hau eman badut, ez da izan inor aspertzeko, dagoen aukeraren ideia emateko baino.

Hala ere, oraindik ez dago argi arestian aipatu ditudan guztiek parte hartuko dutenentz, zeren hemen parte hartzeko 500 alkateren sinadurak lortu behar baitira, eta hori zaila egingo zaie talde txikienei eta independentei. Selektzio beste modu bat, beraz, edo beste era batetara esanda, alderdi handien handitasuna gordetzea, zeren alderdi horiek ez badiete askatasunik ematen beraien alkateei, sinadura besteei emateko; hortaz, interesgarria iruditu zait azken astean intelektual talde batek egingo deia: ezkerreko talde handiei eskatzen diete alderdi ezkertiar txikiak laguntzea. Ez dakit egingo duten...

Edonola ere, hainbeste jende egonda, ez dago horren beste posibilitaterik; ez dakit jakingo duzuen, baina hemen hauteskundeek bi parte dituzte; lehenean botu gehien

lortu duten biak aukeratzen dira, eta bigarrenean, beraien artean hautatu behar da.

Beraz, oraingoz zeraz pentsa dezakegu, ea zein izango den lehen aldiko bikote irabazlea. Giscard-Mitterrand dirudi posibleena, baina nork daki? Dena den, ba dirudi bikote horri problemak planteia diezaiokeen bakarra Chirac dela; besteek inola ere ez.

Eta 2. aldian zer gerta daiteke? R.P.K.

koek Giscard-i emango diote botua, komunistek eta beste ezkertiarrek, Mitterrand-i? Ez, ez dago batere argi, batez ere ezkerrearen batasuna apurtu zenetik, eta txarrak direlako harremanak komunistek eta sozialisten artean.

Baina zer pentsatzen du kaleko jendea? Gehienek, nire ustez, Giscard edukiko ditela lehendakaritzat 7 urte gehiago.

Azken asteetan egin diren inkestak



Oso txarrak om...

FRANTZIAKO HUTSUNTZEAREN KUNDUETAZ

Giscard-en aldeko portzentaia jaitsi egin da, baina geure buruari egin diezaiokegun galdera hau da:

Giscard ez bada, nor izan daiteke? Eta gehienek ez dugu besterik ikusten, zoritxarrez. Hau da, Giscard-ek gehiegi konbentzitzen ez badu ere, eta pasatutako 7 urteetan gauza asko txarto egin baditu, nork eskaintzen die gehiago, beraien nahiak aztertuta gero?

Mitterrand-ek nahiko irudj seguru eta kontziliagarria eman du orain arte, batez ere beste ezkerera begira, baina ez dut uste irabaz dezakeenik, batez ere, beste ezker horrek apoiatzen ez duelako. Bestalde, Mitterrand-ek parte hartuko zuela esan baino lehen, dudatan egon zen Rocard-en kandidatura, h.d., sozial-demokratena, baina lehen idazkariaren erabakiak, duda guztiak ezabatu zituen; ihez, eztabaida handiak

egon ziren, hala ere, alderdi sozialistaren tendentzia guztien artean, eta askok diote, seguru aski arrazoiz, Rocard Mitterrand-en lekuan aurkeztu ondoren, posibilitate askoz gehiago eduki zukeela P.S.k hauteskundeetan, horrela zentruko botu gehia o lortu ahal izango baitzukeen; baina ez du merzi gertatu ez diren gauzetaz mintzatzea, nire ustez.

Alderdi edo kandidato bakoitzaren kampainak ez dira izan orain arte itzelak; komunistak, langabezia desagerraraztea agindu, eta Frantziako independentzia (zentzu guztietan) bultzatu; Chirac-ek, ekonomia-aren liberazioa (zergak gutxitzea, dirigismo-arekin amaitzea, orden eta "segurtasuna", Frantziak munduan daukan irudia berrindartzea; P.S.U., justizia, eta marginapen guztien bukapena; Coluche-k, barre egitea...

Oraindik hilabete gelditzen da lehen parte gertatu arte, eta gauza berriak ager daitezke bitartean, baina berdin segitzen jokoak, gehiegi horrela egoteko.

Noizean behin, halere, jasoera txiekiek eztabaidara bultzatzen dute, beste handiagorik ez dagoelako, noski; hala nola, azken astean, kanpo-arazoei buruzkoa. Kontatu egingo dut lau hitzetan, dauden debaten irudia ematearren:

Joan den astelehenean, telebistan hitz egiten zuelarik, buruz egin dituen iruzkin onetaz, hots, hori dela Giscard-ek Breznev-ekin eduki zuen elkarrizketaren soldata, hau da, gutxi gora behera, saldu egin dela berriz ere, zerbait positibo lortzearen. Beno ba, horrek mina egin dio "erregeari", eta eztabaida gogorra agertu da komunikabideetan, bakarrik horri buruz, aste osoan zehar...

Eta hemen segitzen dugu, itxaroten, esperantzarik gabe...

Maria Jesus Esteban



arremanak "ezkertiarren" artean.


AMURIZA

BERTS

Xabier Amuriza Zarraonandia, naiz eta orain ia 40 urte jaio Etxanon, ba dirudi askorentzat, atzo ikusi duela lehen aldiz argia, hau da, Euskal Herriko Bertsolarien Txapeldun bihurtzean.

Guk, elkarrizketa luze honetan, bertsolaritzari buruz ere berba eginarren, gure helburua beste bat izan da: hau da, ez gara bertsolariarengana joan, gizonarengana eta langilearengana baizik.

Beraz, gure helburua, langile eta burrukalari hau bere osotasunean agertzea zen, bertsolaria dela ahaztu barik, idazlea, itzultzailea, politikoa, apaiz konprometitua, linguista, euskaltzain laguntzailea, bertso-ikertzailea eta abar ere ba dela ala izan dela adieraziz.



IZONA ETA OLARIA

**ORDUAN GAUZA GOGOR ZEGOEN
ETA GOGOR EKINTZA BAT IZAN ZEN**

ANAI.- Noiz sartu zinen seminariora?

X.A.- 11 urtekin. Fraile lehenengo eta gero bigarren urtean seminariora. Zornotzako karmelitetan lehen eta gero Deriora apaiz. 1965.ean egin nintzen apaiz. Gizaburuagan egon nintzen destinatua eta urte bete eginda Amorotora hiru urte ta piko.

ANAI.- Eta GOGOR taldearen asuntua noiz izan zen?

X.A.- Hori gartzelara joan baino urte bat aurrerago izan zen, 68.urtean.

ANAI.- Eta gartzela GOGOR asuntutik etorri zen?

X.A.- Bueno, GOGOR asuntutik ez. Orduan gauza gogor zegoen eta GOGOR ekintza bat izan zen. Errepresioa gorantz joan zen eta handik zortzi hilabetetara izan zen gure ekintza, gose-greba, bosten artean.

ANAI.- Eta gose-greba izan zen kartzelara bialtzeko kargua?

X.A.- Kargua hauxe izan zen: rebelión militar. Ez gehiago, ez gutxiago. Gose-greba egin genuelako...

ANAI.- Eta gartzela beti Zamora?

X.A.- Bai beti Zamoran. Bueno, sarreran hogeit egun Basaurin, baina pasoa, eta gero Zamoran. Gero erdian Carabanchelgo ospitalean egin genituen zazpi egun. Motin bat eta gose-greba famatu bat eta gartzela erre egin ondoren atera egin gintuzten, Carabanchelera, baina berriro handik aste batera lehengo zulora...

ANA.- Eta gartzelan ze denbora egin zeunen?

X.A.- 69.eko Maiatzaren 30'etik, hortik dator "maiatzaren egun batez, hogeit hamar hain suertez", 75.eko Abuztuaren 25'era. Beraz, sei urte ta hiru hilabete.

BOST URTE EGIN NITUEN EGUNEAN KANTATU NUEN TABERNA BATEAN

ANAI.- Zu noiz hasi zinen bertsoan?



Xalbadorrek ez du izan bere bizitzan merezi zuen aitormenik. Ez zen sekula izan txapeldun, eta historia guztiko bertsolari handienetarikoa izan da.

X.A.- Hasi, ba, berbetan, hizketan hasi nintzen batera. Gure aita bertsozalea zen... orduan bertso zaharrak kantatzen hasi nintzen ni hizketan hasi nuenez batera. Publikoen, mutikotan, txiki-txikitari gure aita oso umore onekoa zen eta tabernetan, saltseroa eta animazioa sartzen zuena. Ni gogoratzen naizela behintzat bost urte egin nituen egunean kantatzen nuen taberna batean, mostradore batean gainera altxatuta. Gero fraile eraman nindutenean, eta batez ere seminarioan, utzi nuen erabat, guztiz, euskera egitea erabaki nahiko persegiturik, nahiko ez, oso persegiturik baitzegoen, eta 18-19 urtekin berriro hasi nintzen neure kontura eta pixka bat burua erakusten; orduan, udako oporraldietan, 21-22 urtekin, herriko jaietan kantatu nuen publiko aurrerakoa herriko jaietan eta hauzoren batean edo bestean. Gero, apaiz nintzela, ia norma kantatzen nuen, Bizkaian behintzat nahiko asko, udan batez ere.

ANAI.- Eta gartzelan kantatu?

X.A.- gartzelan kantatu? lehenengo urtean bertso berriak egin eta horrela baina Kanpoko oroitzapena ala gomuta fresko zegoen bitartean, lagun artean ere kantatzen genuen, baina urte bete pasatu eta gero ez genuen horrela lagun artean kantatzen. Gartzelan bertsoak eskatzen duen lagun arteko giro hori egitea zaila da. Egiten genituen lanak, teorikoak zirela gehienbat.

ANAI.- Eta bertsolaritza landu?

X.A.- Hori bai, landu bai. Batez ere errima-hiztegia. Gero, tarteka, bertso bat tzu egin. Baina, gartzelan egin nuen hain beste denbora ikusita, ba, ez nuen askorik egin. Gartzelan, ni behintzat, oso zaila da —autzu— aurkitzen nintzen bertsoak egiteko, batez ere, pare bat, hiru bat urte aurrera. Zerbait izaten zenean, gertaeraren bat, (beti gertaera txarra, Gartzelan baitago gertaera onik) motina edo gose greba edo gauza gogoren bat, orduan egin nituen bertso batzu.

ANAI.- Eta doinurik asmatu?



Jendeak gartzelatik datorrenari, lehenengo, arnasa hartzen utzi behar dio.

X.A.- Bai, doinuak asmatu ere; batzu egin nituen gartzelan, ez dakit zenbat. Esate baterako, azken txapelketan atera nituen doinu berri bi horietatik bat gartzelan kantatzen genuena zen.

JENDEAK GARTZELATIK DATORRENARI, LEHENENGO, ARNASA HARTZEN UTZI BEHAR DIO

ANAI.- Handik itzultzean zer egin zenuen?

X.A.- Ba, gartzelatik etortzea nahiko giro latza eta nahiko gomuta... tristea edo gogorra daukat nik kartzelatik irten nintzeneko giroa. Garai haietan, gartzelako preso-
ei buruz, zatiketak eta gauzak eta zurrumuruak esaten ziren kanpoan, hau ginela, hori ginela, komunistak, españolistak, abertzaleak... ez dakit zer, ba dakit zer; orduan, kanpora etorri nintzenean mundu guztia ikusi nuen erpeak gainera botatzen bezala, konkistatzen bezala,... horrek oso inpresio eskasa egin zidan. Jendeak gartzelatik datorrenari, lehenengo, arnasa hartzen utzi behar dio, sospetxak, erreze-
loak eta interrogatorioak utzita. Horregatik, pare bat hiletan nahiko txarto ibili nintzen.

ANAI.- Eta bestsolaritzari buruz?

X.A.- Erabakita neukan denboraldi bat pasatu arte ez kantatzea, jakina. Gartzelatik irtetzean beste gauza batzu egin behar ziren: jendea ikusi, munduarekin berriro adiskidetu, errekonziliatu, nondik genbiltzan ikusi... Ni Abuztuan atera nintzen gartzelatik eta udaberrian, Apirilean edo, Gernikako bonbaketaren urtehurrean izan zen nire lehenengo debuta. Orduan, ba, zazpi bat hilabete pasatu nituen kantatu gabe.

ANAI.- Momentu hortan ez zinen apaiza, ez da?

X.A.- Bueno, ni gartzelatik irten eta praktikan ez nintzen apaiza baina herrira joaten nintzen, eta denborarekin pentsatuko nuela esan nien. Gero, handik urte batera utzi nuen ofizialki apaizgintza.

ANAI.- Eta noiz sentitu zinen lehen mailako bertsolaria?

X.A.- Apirilean Gernikan egin nuen lehenengo debuta, debut inportantea izan zen, jende asko etorri zen, eta asko, uste dut, niregatik etorri zela. Jaialdi haundia izan zen. Orduan, obligaturik, behaturik nengoen maila hartan segitzera. Larritasun haundiak pasatuta, hurrengo udan hor ibiltzen nintzen beste guztiekin.

ANAI.- Bilboko jaietan, ez dakit seguru noiz, protesta bat egon, protesta bat egon zen esanez zu ez zinela lehen mailakoa. Zer da hortaz?

X.A.- Bai, baina hori oraintsu izan da, orain bi urte edo. Bai gogoratzen naiz gogoratzen naiz egunkarietan jartzen zuela "lehen mailako bertsolariak", eta ia nork esan duen Amuriza lehenengo mailakoa dela eta horrelako protestak izan ziren, EGIN-
era deituta.

XALBADORREK EZ DU IZAN BERE BIZITZAN MEREZI ZUEN AITORMENIK.

ANAI.- Eta gero, ihaz, txapelketa etorri zen. Baina, aurretik, zu sarritan izan zara txapelketako epaimahaikoa, ez da?

X.A.- Lehen, sarritan ez, baina bai aukera inportante batzutan. Basarrik saria irabazi zuenean, Uztapidek irabazi zuenean ere bai, Xalbadorri txistua jo ziotenean ere bai. Orduan, bi txapelketa eta sariketa batetan izan naiz ni mahaiko.

ANAI.- Entzuna daukat, zu Xalbadorrekin zorra daukazulakoan edo geratu zinela txapelketa hartan?

X.A.- Ni eta beste asko ere bai. Ni epaimahaikoa izan nintzen txapelketa batean, hain suertez, txistua jo zioten txapelketa hartan, Xalbadorrek bertso antologikoa bota zituen, ez nuke esango orain zenbat, baina zortzitik gora bai, antologikoak, neurritik kanporakoak. Eta neurritik kanporako zortzi-hamar bertso saio bate-

an botatzen dituenak txapelik merezi gabe badu, ba ia! Eta orduan zorretan asko geratu ginen. Xalbadorrek ez du izan bere bizitzan merezi zuen aitormenik. Ez zen sekulan izan txapeldun, eta historia guztian ere txapelketa merezi zuen bertsolari haundienetakoa izan da.

TXAPELKETAK ARRISKU HAUNDIAK BAITAUKAZ

ANAI.- Gero txapeldun izatea pasatu zara. Nola prestatu zenuen aurretik txapelketa?

X.A.- Batez ere, mentalizazio psikologikoa, horretan saiatu nintzen ni asko. Parte hartzen nuen lehenengo txapelketan. Parteharzera obligatua aurkitzen nintzen. Jende herritar askoren artean bertsolari ikasia nintzen baina txapelketatik pasatu gabea, orduan neure burua erantzunkizun edo erresponsabilitate nahiko teorikoa behintzat, ba neukan. Aurreko hamabost egunetan zentratzen eta mekanismo psikologikoak dominatzen, pentsatzen eta nerbioak dominatzen... hortan eman nuen denbor gehiena. Gero, prestakuntza teknikoa zerbait egin nuen, baina gehiegi ez. Bertsolari guztiek egiten dutena: errimaburur apur bat ekin eta ibili.

ANAI.- Zelako giroa izan zen txapelketan zuen artean, bertsolarion artean?

X.A.- Txapelketaren aurretik izan dira tabaidak, baina arazo extrinsekoengatik txapelketa komeni zen, ez zen, behar zen ez zen behar... eta hor izan ziren aldekoak eta kontrakoak. Eta gero, hortik aparte txapelketaren antolamendua, txapelketaren arrisku haundiak baitauka, lehen Xalbadorrekin eta beste batzuekin gertatzen txapelketan oso zaila da ondo neurtzen eta beti gertatzen dira oroitzapen latzak garratzak, eta horren bildurra zegoen herriak nola hartuko zuen, Azkenean baietz esan genuenok joan ginen eta ez esan zutenak gelditu ziren, eta horregatik denok lehen bezala, adiskide, gelditu ginen. Gure artean ez genuen euki ez baidarik ez gutxiagorik ere.



LITERATUR JENERORIK HERRIKOIENEAN NAHI NUEN DEMOSTRATU.

ANAI.- Eta zergatik kantatu zenuen batuaz? Bizkaieraz errazagoa ez da?

X.A.- Errezago? Ba, segun. Nik batuaz kantatu nuen planteiamendu bat eginez: Euskal Herriko txapelketa zen eta Euskal Herriko hizkuntzarik ez dago euskara batua izan ezik. Hori bat. Bigarren, bizkaieraz eginda gero, Donostian, finalean, nola egin behar nuen? Orduan, txapelketa berean, batean bizkaieraz eta bestean batuaz edo gipuzkeraz? Ba, ez. Orduan, hiru saietan modu batera egitea pentsatu nuen. Eta azken batez, hori ere arrazoi inportante, euskara batua ez zela hizkuntza lehor eta artifizial bat demostratu nahi nuen. Euskara batuak, balio dueja, literatura jenerorik herrikienean nahi nuen demostratu.

ANAI.- Gero hori argitaratu egin da, eta H-rik gabe. Zer dela eta?

X.A.- Aita Zavala etorri zitzaigunean bakoitzari bertsoak nola zeuden erakustera orduan, ba problema zegoen, beste guztiena H-gabez agertuko zelako. Orduan nik batzu H-gabez eta beste batzu H-ez jartzea ez zitzaidala iruditzen egokiegia esan nion. Onartuko nuela H-gabez jartzea baina ohar bat aurretik jarrita, nola besteenak H-gabez jaso zituen eta H-gabez egoteko konforme zeuden, ni ez nintzela "zozo beltza" neurea bakarrik H-ez ipintzeko, baina oharra jartzeko eta hala jarri zuen.

ANAI.- Txapelketa amaitu eta gero komentario pila bat izan da. Batzuk oso goitik zebiltzela kantatzen, hurrengo urteetan ez dela zereginik zurekin, etabar. Zer uste duzu horretaz?

X.a.- Ikusi egin behar! Uste izanda ere, nik esateko gauzak ez dira horik. Aldeko-eta ez ezer ere ez, baina kontrakoetaz bai. Mundu hau, euskal kultura batez ere, nahiko arlo hestua eta ziztrina da, eta orduan, izan diren erreakzio batzuri buruz

esango nieke: kontuz mutilak; hemen historia aurrera doa eta lehen ere izan dira gauza berriak eta orain ere bai... Gauzak hankaz gora eta bertsoaritzak hartu dituela ez dakit nolako moldeak eta lehengo estiloa hankaz gora doala.... hemen hankaz gora ez doa ezer. Hemen, aurrera doa, eta aurrera doa. Hori bakarrik. Besterik ezer ere ez.

BERTSO BERRIEN SAIOAK

ANAI.- Zuk egin dituzu hainbat aldiz bertso berrien saioak, musikatuak etabar. Zer dira?

X.A.- Bai, egin ditut eta orain liburu bat ateratzeko pentsatzen nago jaialdi guzti horiekin, bilduma bat eginez. Hamasei hamazazpi jaialdi dira, herri eta eskualde desberdinetan. Hori bertso jarrien tradizioa berritzea da, musikaz hornituz, bertsoaritzaren adar erdi ihartua berritzea eta freskatzea, arrakasta pixka bat izateko moduan. Hau da, bertso berriak jarri, eta jaialdi oso bat, herri edo eskualde baterako dedikatu, hango informazioa jasoz, gauza xelebreak, serioak, denetarikoak sartuta. Eta pozik nago lortu dudanarekin.

ANAI.- Zergatik utzi duzu lan hori?

X.A.- Mila eragozpen direlako: musikoekin problemak izaten direlako, lanarekin ere problemak izaten direlako, udaletxean ere sartu nintzen, orduan, ez zegoen lan hori eramaterik. Gero, beste lagunak ere lanpetuak, gauza askotan sartuak, eta horrelako gauza bat aurrera seriooki eramateko, ordu asko eta dedikazio handia eman behar zaio. Dedikazio handia emateko errentabilitate bat ere izan behar du, eta hor dago akats handia: ezin hontara dedikatu, dedikatu gabe, ezin ezer egin, eta dedikatzen bada, hortik ez dago bizi-terik. Dena dela, orain berriro nago Martxoan edo hasteko, Urrutxun Iparraguirren ehungarren urtemugan.

ANAI.- Honelako bertso-saioak zelan prestatzen dituzu aurretik?

X.A.- Ni jaialdi hori egin behar nuen herrira joaten nintzen eta lehengo

kazetari-lana egiten nuen: informazioa bildu, denetarikoa. Nik, gutxi gorabehera, jaialdiaren estruktura muntatuta nuen, eta estruktura horri buruz zegoen informazio guztia batu egiten nuen: pertsonajeak, gauza xelebreak, serioak, herrikoiak, ohiturak, oraingo problemak eta horrelakoak.

ANAI.- Eta aintzinako bertsoaritzarekin gonparatuz, ze urrats kualitatibo ikusten duzu honelako saio batean? Musika ote?

X.A.- Bertso jarriena aintzinako bertsoaritzaren funtsetariko bat da, bestea baino inportanteago. Bertso jarrietatik ezagutzen ditugu bertsoari famatuak, baina hauek egin zutena zen gai bati bertso berriak jarri. Orduan, nire salto kualitativoa sistema horrekin, muntaketa osoa egitea, jaialdi osoa, eta gainera, herri bati osoki dedikatua ematea izango litzateke. Eta bigarrena, musikaz laguntzea. Hori kualitativoa da Ba, ez dakit, bai eta ez. Iparragirre ere musikarekin ibiltzen zen!

GORAKADA HURA ARTIFIZIALA IZAN ZELAKO, FUNTSGABEKOA, GORAKADA

ANAI.- Zuk gaurregunean zenbat kantatzen duzu?

X.A.- Zer esango nuke nik! Neguan gutxi kantatzen dugu. Hemen ba dago dato bat oso adieragarria; ni txapeldun izan aurretiko urtean, askoz ere gehiago kantatu nuen txapeldun izan eta gero baino. Zergatik? Orain lau-bost urte bolada handia izan zen gorantz, eta dena zen jaialdia, dena zen bertsoa eta kantaldia eta zera.... Eta orain kantaldiak, zenbat entzuten dira? Orain horrek beherakada handia izan du.

ANAI.- Eta beherakada horren sustraiak non aurkitzen dira?

X.A.- Alde batera, gorakada hura artifiziala izan zelako, funtsgabekoa, gorakada extrinseko bat; gauza kulturalak egiten ziren baina ez barrutik horrek zeraman dinamikaz, baizik eta beste motibo batzuren gatik: jendea biltzeko, eta Franco hil on-



doren, denok dakigu zer gertatu zen, nola jendea biltzen zen... orain jendea biltzeko komeriak egin behar dira. Oraingo egoera seriagoa da ordukoa baino. Oraingoan, zerbait egin behar duenak serio egin behar du, bestela ez dauka zereginik. Orduan, kantaldiei begira gertatzen zena: kitarra bat hartu eta trunk trunk trink trink trink egin eta urtean berrogeitamar aldiz deitzen zioten, orain ez dago zer eginik. Bertsolaritzan ere antzera. Orain gertatzen dena beste gauza da: nik gehiago kantatzen dut, batez ere neguan, beste helburu batzuekin datozen jaialdietan: antinuklearrak, korrika, ikastolen aldekoak, haurtzaindegien aldekoak, mitinak, ez dakit zer politikoak, amnistiaren aldekoak... horrelako zerbait dagoenean niri deitzen didate, eta, nik hori printzipioz daukat, ahal badut baietz esan. Orduan, honelako jaialdiak ez dakit zenbat, baina urtean erdi beharbada honelakoak egiten ditut.

HEMEN GAUZA BAT EGITEN BADA POLITIZATU GABE HURRUN JOATERIK EZ DAGO.

ANAI.- Eta lehengo entzulea eta oraingoa konparatuz zer diferentzia edo azpimarkatuko zenuke?

X.A.- Alde batetik, tradizioa ez dagoen tokian gazteak gehiago ikusten dira bertsoen entzule. Tradizioa dagoen tokietan, zer esango nuke, ba? Orain gertatzen dena, saltsa politikoa ere ba da. Bertsolariok finkaturik gaude, ni ofizialki nago HBn, eta, jaialdietan ere izan dut problema hori. Nire jaialdietara, ba dakit automatikoki sail batek boikota ez bada ere, huts egiten duela. Zergatik? ni HBn nagoelako. Orduan, bertsozaleen artean ba dakigu zer base dagoen. Orain beste problema hau dago, orain bost urte ez zegoena: gaur honelako jaialdi bat edo bertso-saio bat dagoenean segun zertarako den halako jendea etortzen da.

ANAI.- Hori aipatu duzula, zure ustez, daukazun jarrera politikoak, Zornotzako kontzejala zara HBkoa, eragin handia dauka? Txapeldun geratu

zinean, antza denez, problema bat gertatu zen Zornotzan hango herriak egindako harreran...

X.A.- Ba normala. Hemen gauza bat egiten bada politizatu gabe hurrun joaterik ez dago. Bueno, normala ez, lotsagarria. ERE aldizkarian galdetu zidatenean, ia bertsotan zer nintzen bertsolaria ala politikoa, nik esan nuen, akto bereziki politikoa ez bada deitzen didaten toki guztietara joaten naizela eratzaila zein den galdezu gabe. Orain, akto politikoetan neurri koalizioan bakarrik hartzen dudala parte, normala den bezala. Adibidez esan nuen ez nintzela joango Alderdi Egunera hori akto politiko definitua ba da. Baina niri PNV-ek deitzen badidate politikatik aparte, ni joaten naiz. Horrek ekarri zuen buztan guzti hori.

KREATIBITATE PIXKAT EUKITZEKO, FRESKO EGON BEHARDA

ANAI.- Eta bertsolaritza prestatzeko denbora aldetik?

X.A.- Bueno, ba dakigu zer gertatzen den. Ni arazo askotan eta soltetan ibiltzen naiz eta orduan astia falta zait. Baina, astia, denbora fisikoa, denbora materiala, baino gehiago, bertsolaritza eramateko, nirengan behintzat, beste eragozpen bat ikusten dut: hain direla plataformak desberdinak, eta askotan kruzatuak, gauza batetan ibiliz gero bertsoetarako gogorik ez dudala eukitzen, eta sortzeko, kreatibitate pixkat eukitzeko, fresko, egon behar da. Ez nuke esango apolitikoa, baina saltsa horietan nabiltenean, horrek asko afektatzen nau, eraman egiten nau eta ez dago beste bueltarik. udaletzeko gauzetan batez ere, (Zornotzan azken aldion berriz izan ditugu detentzioak) eta honelako gauzak, psikologiz eragin handia egiten dit eta beste hontara dedikatzeke, astia edukita ere, ez daukat gogorik. Hori da eragozpenik haundiena.

ANAI.- Eta lehengoari eutsiz, bertsolaritza lan moduan, gaur egun ondo ordainduta zaudete? zaude?

X.A.- Ba, segun. Nik bizimodua modu askotatik ateratzen dut; Bilbo: bertsolari-eskola, bertsoak, Egin... gauza askotan ibiltzen naiz. Bertsoetan bakarrik zer esango nuke nik? ni ez naiz ari bertsoetan hortik bizitza ateratzeko. Lehen esan dizuedan bezala bertso-saio erdiak ezin dira debalde egiten ditut, zergatik? ekintza bezala delako: antinuklearrak, mitinak, gudari: hilen zerbait badago ba hara joaten naiz eta ez dut kobratzen, hori printzipioz. Urruti badago eta zerbait emateko badidate hartu eta etxera etorriko naiz baina hori bertsolari moduan egiten dudana aportazioa da. Gero, kobratzen diren saioetan, ba segun, sei mila, zazpi, segun noraino, baina normalean sei-zazpi hori ibiltzen gara. Etxe inguruan denean, hori zerbait da, baina urrunera joan behar denean gauza asko jaisten da.

ASKORI GALDETUKO NIOKE ZENBATEGATIK SALDUKO LITUZKEEN UDAKO LARUNBAT ETA IGANDE GUZTIAK

ANAI.- Eta txapeldun izanik gehiago kobratzen duzu? Ba dago diferentziarik lehen eta bigarren mailako bertsolarien artean?

X.A.- Ez, ez, ez dago. Saio batera doazenean lana egiten dute eta berdin kobratzen ere. Bertsoetatik kobratzen denean, udan, eta, ateratzen da diru apur bat, baina diru horregatik ezin liteke ibili, hemendik. Dena horretarako joatea, besterik gabe, joan eta etorri eta autopista eta hori, ba, hiru mila pezeteta bota behar dira kanpoan jan eta zerbait eginez gero. Orduan, egin ezin izatekeena da norbera debalde joan eta gainera hori ez da debalde joatea, hori norberak bi edo hiru mila pezeteta ipinita joatea da. Okerra, udaldian batez ere, nola hortik ez garen bizi eta nola hori laruntzetan eta igande guztiak. Hor, eskegitzen jarri! Hortarako bakarrik bizi bagina, baina hartzen duzu astean egun bat jai eta ondoren, baina nola ez garen hortarako bakarrik bizi...

ANAI.- Zuri esango balizute zure of-



zioa zein den, esango zenuke? Esate baterako karnetan ipintzeko.

X.A.- Borondatez edo gogoz BERTSO-LAROA esango nuke. Baina hori ez da ofizio ofiziala eta orduan, ba, idazlea edo... ez dakit,... bai bai bertsolaria... balego hortik bizitzerik!

ANAI.- Bertsolaritza aipatu duzu, baina zer da zuretzat bertsolaritza? Herri-literatura, kirola, komunikazioa, jokoa.... zer?

X.A.- Herri-literatura, eta herri-literaturaren barruan kirola, jokoa eta hori denori. Komunikazioa, jakina, hitz eginez gero! Herri-literatura, esan nahi dut Herriak jaso, asimilatu lezakeen literatura dela eta ez bakarrik asimilatu dezakeela irakurritz eta estudiantuz, ez, entzunda bakarrik. Orduan, ahozko literatura da. Honek ba ditu muga batzu, muga horiek entzunda batera jasotzeko moduko gauzak izateko izan behar dira eta ez euskaldun eskolatuak bakarrik. Hitz egiten duenak ulertzeko moduko gauzak esatea. Honek ez du esan nahi muga pobreak direnik. Mila edo bi mila hitzekin, jendeak erabiltzen duen hiztegiarekin eta errekursoekin posibilitate infinitoa daude. Honen barruan da bertsolaritza, kirola, dibertsioa, gozamina, artea....

BERTSOLARITZA IKERTZEN

ANAI.- Zuk zer lan egin duzu bertsolaritza aldetik, bertsolaritzari buruz?

X.A.- Bueno, kartzelan, esan dizuedan bezala, egin nuen lan bat errime buruz, eta uste dut lan oso inportantea dela, ez zegoena, eta ondo jartzen dugunean, orain jarrita daukagun bezala, eta argitaratzen denean horrek aurrerapide handia emango duela bertsolaritzaren barruan. Ikastaro batzu ere eman ditut, batzu laburragoak, beste batzu luzeagoak, Durangon eta Arratian ere bai, baina ahalegin sistematikoak bertsolaritza asignatura gisa edo, nolabait esateko, Bilbon egin dugu, Bilboko eta Santutxuko inguruan dabilten euskaldun batzuekin. Bi talde

izan dira, guztira hogeit bat lagun edo, eta astean lau ordu, bi egun astean, eta bost hilabetetan. Hori emateko, aurretik ari nintzen honelako sistematizazio-bat eginen, neure kontura, eta gero eskola horietan asko hornitu dut. Laster idatzi edo erredaktatuko ditut ataskaturik ditudan liburuak: errimenak, bertsolaritzaren testuaren eta lehen esan dudana jaialdiena. Orduan, hurrengo helburua hiru liburu hau ateratzea da. Aterako direnean ikusiko da ze aportazio izan duten.

ANAI.- Eta bertsolari-eskola horietan egon den jendea, zernolakoa izan da?

X.A.- Bilbon ikasten eta irakasten dabilen jende heldua izan da, jende egina. Urtez, aurrerantza doazenak, hau da, ez dira gaztetxoak, 24-25, hortik aurrera gehienak. Neska batzu ere izan dira. Euskararen inguruan edo euskal irakaskintzan edo besteala zaletasuna zuekatelako bildu dira hor, eta ba dira gipuzkoarrak eta bizkaitarrak, herrietakoak eta Bilbokoak ere. Euskaldun berri batzu ere izan dira.

ANAI.- Eta eskolako klaseak nola izan dira? Zer egin duzu?

X.A.- Lehenengo zati handia teoriari eman genion eta bigarren partea ariketa hutsa.

ANAI.- Zernolako jarraipena izango dute eskola horiek?

X.A.- Ikasleek nahi dutena. Hemen Bilbon, ikasle konkretu batzuekin zerbait luzea egin beharrik, giroa sortzea, foko bertsolaritza, mugimendua sortzea da helburua. Horretaz, esan beharra dago Deustun ere Filologiako lehen kurtsoko ikasle talde batekin ari naizela astean bi ordu ematen, esperimendu gisa. Han ikasleak dira, ez dira irakasleak. Horrelako tokietan posibilitate gehiago dago. Zer izango den hurrengo urtean? ba, hemen, Bilbon, euskaldun asko dago, gipuzkoarrak, bizkaitarrak, euskaldun berriak, hau da, foko bat, giro kultural bat sortzeko modukoa, eta Bilbon gainera! hori oso inportantea da. Ni behintzat eskolako esperientziarekin oso pozik nago, eta gauza berri guz-

tiak gauza haundiak eta onak badira, hau ere, berria eta gainera ona izan da. Mugimendua sortzen ari da eta, horrek ematen dit poza! Eta ikasleek ere, uste dut, hori daukatela gogoan.

JAIO GABE EZ DAGO EZER EGITERIK, BAINA JAIO TA GERO EZER EGITEN EZ DUENAK ERE EZ DU EZER EGINGO

ANAI.- Eta azken bolada honetan modan dagoen asuntua: bertsolaria egin egiten da ala jaio?

X.A.- Betiko asuntua da hori eta behin betiko erabakita utzi behar genuke: JAIO gabe ez dago ezer egiterik, baina jaio ta gero ezer egiten ez duenak ere ez du ezer egingo. Horrek esan nahi du fakultate edo ahalmen batzu behar direla, elementalak, eta elementalak baino gehiago behar bada, bertsolari izateko, beste edozer izateko behar den bezala: musikarekin nahiz antzerkiarekin nahiz literaturarekin konparatuz hor ba daude ahalmen batzu. Nola jakiten da ahalmen horik dauden ala ez? ba, aprobatuta, baina aurretik ezin liteke esan jaio ala zer egiten den, hori demostratu egin behar da,

ANAI.- Orduan, euskaldun berriak ere bertsolari onak izan daitezke?

X.A.- Bai horixe! euskaraz ikasten badu, euskara menperatzen badu izan liteke ona eta hobea eta txarra eta denetarikoa.

ANAI.- Umeekin egin duzu inoiz ezer?

X.A.- Bai, Durangon, ihazko urtean eta aurretik ere, umeekin eta gaztetxoekin, as-tebeteen... ihaz Durangoko ikastolan, Jesuiten ikastetxean eta Institutuan. Berrehun eta berrogeitamar edo hirurehun ume, eta gaztetxo pasatu ziren. Arlo hori oraindik arakatu gabea da eta hori infinitoa da. Hor bai egin daitekeela lana, zerbait programatu ahal izanez gero!!



BESTE GAUZA BATZUTAN GEHIAGO APORTATU NEZAKEELA USTE DUT

ANAI.- Entzun dugu zu Euskaltzaindian zeudela laguntzaile bezala. Noizdanik? Zer lan egiten duzu?

X.A.- 66 edo 67.ean izendatu ninduten Euskaltzaindiko laguntzailea. Ez dakit zergatik. Beharbada artikulu batzu egin nituelako, eta itzulpen batzu ere, ez dakit horregatik izango zen. Baina, egia esateko, nik Euskaltzaindiarekin ez dut harreman gehiegi euki; batzarretara ere ez nintzen beti joaten, gutxi baino. Gartzelatik irten eta gero, eta gartzelan ere bai, izan dut Euskaltzaindikoekin harremanak, Euskaltzaindiko batzarretara ez naiz joaten, ez daukat astirik, eta joatekotan, gainera, zerbait aportatzeko izan behar du eta nik maila horretan ez daukat aportatzeko. Agian bai, baina beste gauza batzutan gehiago aportatu nezakeela uste dut.

ANAI.- Zer lan linguistiko egin duzu?

X.A.- Gartzelan bertsolaritzari buruz egin nuenaz gainera, lan bat egin nuen, aurrizkiei eta atzizkiei buruz. Bata aurrizkiak edo prefijoak, euskarak falta duena. Huts handia dauka euskarak aurrizkietan, aurrizkiak baitira hizkuntza moderno eta aurreratu baten oinarri haundienetarikoa. Lan hori Euskaltzaindiak EUSKERA aldizkarian argitaratu zuen, separata bezala, eta horregatik, nahiko zabaldua eta ontzat joa izan da, eta lan hortaz baliatu dira beste batzu ere. Gero atzizkiei buruz, euskarak duen arlo handi horri buruz lan handi bat egin genuen Zamoran. Oraindik, argitaratzeko dago. Horren laburpen bat AEK-koek atera dute, Alfabetatze-koordinakundekoek, URRASPIDE batean; lan osoa ateratzea interesgarria izango litzateke, baina, oraindik hor dago. Euskaltzaindiarekin hitz egin nuen, baina... lan handia da, luzea, eta hori zenbaterosiko luke? hor dago problema.

ANAI.- Eta lan linguistikoez gainera, zer?

X.A.- Gartzelan Huxley-ren "Bai mundu berria" egin nuen, erderaz "Un mundo feliz" esaten zaion hori. Gero, ekonomiazko bi liburu, "Ekonomiako lehen pausuak" edo holako tituluren bat zen. Gartzela aurretik, apaiza nintzela egin nituen itzulpen batzu, liturgikoak etabar. Michel Quoist-en "Reussir" ere itzuli nuen. Irten eta gero, tesis bat, baserriari dedikaturik, euskeratu nuen, laburpen bat zen, baina nahiko luzea. Eta gero beste itzulpen xelebre bat, batzu harritzen dira nola egin nuen nik hori, "Bolibar" izenekoa da. Oraingo Venezuelako Kulturako Ministroak egindako liburu bat. Hori ere, ez dakit noren bidez, etorri zen niregana. Liburu oso zaila irakurtzeko, liburu historikoa eta asko kostatu zitzaidan. Baina, 200.000 pezeta edo eskeintzen zidaten liburu hori itzultzeagatik. Gartzelatik irtenda pezeta batzu irabazteko bidea zen, bestela liburu hori ez dut uste inork irakurtzen duenik.

NIK OSORIK DEDIKATU BEHAR DIOT ARTELANARI EDO SORMEN-ASUNTUARI

ANAI.- Eta lan literarioak?

X.A.- Bueno, bertsoak eta honelako gauzaz aparte, gartzelan nobela bat egin nuen, "Hil ala bizi", azpitik, ixilpean atera zena eta ixilpean zabaldu ere. Mugaz beste aldera publikatu zen, eta ba dakit askok zenbat ahalegin egin zuten ateratzeko, eta norbaitek dirua galdu ere. Gero liburu hori sekuestratzeko agindua izan zen eta Euskaltzaindiari itzulpena ere uste dut eskatu ziotela. Baina, ustez, paso eman zioten eta inork ez zuen hori erdaratu. Irten eta gero, "Menditik mundura"; horren zati batzu ere gartzelan eginak zire.

ANAI.- Bertsolaritzaz aparte zeozer publikatzeko asmoa ba al duzu? Literatura edo?

X.A.- Ez dakit ba. Ni ez naiz kapaz frakzionaturik ibiltzeko. Eta literaturara dedikatzeke, hortara dedikatu behar. Ni politikari ere sartta nago eta politika gogor bada, gurea behintzat, eta gero ez naiz kapaz, psikologiz, etxera joan eta ordu batean hamar ilada egiteko. Nik osorik dedikatu behar diot artelanari edo sormen-asuntuari. Gogo gabe ezin liteke sortu ezer.

KEINUKA ARI DEN BEGI GORRI HORI

ANAI.- Zuk zelan definituko zenutke "Semaforo gorria"?

X.A.- Ba hor kaleetan, edozein tokitan aurkitzen duzuen eta keinuka ari den begi gorri hori. Semaforo gorria eguneroko gertakaerekin egiten dudana saltsa moduko bat da. Gauza bizia edo gatza duena, komentario biziak egiteko ere ematen duena. Flash bat bezala, poutpourri bezala izaten da.

ANAI.- Eta "Arrano Beltza"?

X.A.- Arrano beltza luzeagoa da. Sortzeko eta egunero ez dagoena ateratzeko da gehienbat: ipuinak, kondaketak...

ANAI.- Eta "Haizelarreko bertimetroa"?

X.A.- Hori ere, Arrano Beltzaren antzera.

ANAI.- Zergatik da semaforoa gorria, arranoa beltza eta haizelarreko bertimetroak ez du kolorerik?

X.A.- Bueno gorria niri asko gustatzen zait, indarra duelako eta odola eta hori dena; baina semaforo gorria ez da gorriagatik, batez ere jarria. Ni titulo hori jartzeko luzaro ibili nintzen. Gauza moderno, nahi nuen, kontraste pixkat sortuko zuena eta halakoren batetan, ba, koñoi "semaforo gorria". "Menditik mundura", ni mendian jaio naiz eta mundura etorri, eta semaforo gorria beti da gauza berria. Arrano beltzaren kasuan beste konparazio bat jarri nahi nuen. Lehener-

DEMOKRAZIARIK EZ, MESEDEZ



Zure inguruko lagun eta adiskide bat daramatenean eta zure ezertarako ezintasunaz jabetzen zarenean edo/ta mundu madarikatu honek zure izpirituaren erdia aspiratzen dizunean; bakardadean jarririk, ezer egin jakin ezinik eta bihotzak taupada gutxiago ematen dituelarik manifestaldia gertatzera eta batasun antzeko zerbait egitera mugitzen zara.

Ez dirudi, inolaz ere, zure ingurua aldatzen denik. Ez dirudi zure etengabeko lanak ezertarako balio duenik. Ez dirudi furgonetak ikaritzen zaituenik, baina inork ez daki zure barnetik dabilen desesperazioa nolako eta norainokoa den.

Zure herrian bahituek geroz eta kopuru handiago osatzen dute. Zure herrian alderdi politikoak heuren esan mesanetaz gehiago fidatzen dira. Zure eskileretan arrarotzat jotzen zaitue eta aldatz gora zozazela, atzean, iribarreak nabaritzen dituzu.

Batzarrera joanez gero buruhausteak, jarrera amoralak eta gizaurkakoak jabetzen dira zure bihotzaz. Trukoa ixilik ez egotean datza, inork ulertuko ez duen gauzaren bat esatean, geroxeago jendeak galde dezaizun. Trukoa jendea harritzea duzu, eta harritzean, hazten zara, erreka bazterreko junkoa bezala, multxoan baina ia zein altuago.

Trukoa hortxe dago. Baina lana beste nonbaiten, edonon, han, hemen, zeruan, zuhaitzian, lorategian, aurrekoarengan, Jabirengan, Maitenarengan edo norberarengan.

Baina trukoa da nagusi. Besteetaz aprobetxatuz, zure nahiak bete arazi; ez norberak bete, baizik eta besteei norberarenak osatzeko eskatu. Ileak aidera bota, zapata zaharrak jantzi, errubioa erre ta mundua gaixorik dela esan; aurrera joan, atzera begira gabe, zertan zabiltzan ahazturik duzula, ahaztea nahi duzula, ahazterazten dizuela.

Ez, ez da batere normala gau batetan lagunik gabe gelditzea, ez da txit atsegingarria berarekin elkarrikuska bat duzula, kaleko adreiluekin mintzatu beharra bera ez datorkizulako. Ez da ahazteko historiak gira-bira handiak ematen dituela eta noizpeinka jazoera berdintsuak ezagutzen dituzula urte, ile edo aste berean.

Dekadentzian dagoan gizarte honek ez du ezer berririk asmatzen ez zientzia ez filosofia arloan, eta areago gutxiago politika arloan. Direla hogeit urtetako patroiberberak jarraitzen ditugu gaur egun, lehen gogor erreputiatzen genituen bideak gaur bidezkoak iruditzen zaitzaizkigu, lehen arerioa zena egun lagun eta orduan bekatua zena gaur egun praxiak eskatzen digun zerbait.

Inor ez da ausartzen lehengo aldiak hobetoagoak zirela baieztatzen, inboluzionistatzat hartua izango litzateke-ta, baina gaurko aurrerakoi asko lehengo postula-dotetara bihurtzen hasi da. Zertan gabilta, ba?

Demokraziarik ez, mesedez!

J.I.B.

go titulua ez zen "Arano beltza", "Arrano dendaria" baizik. Gero apur bat martxan joanda aldatu egin nuen. Semaforo gorria euki ez banu "arrano gorria" jarriko nuen. "Haizelarreko berrimetroak" ba, haizea eta larrea eta berria eta metroa eta...

ANAI.- Zér etorkizuna ikusten diozu bertsolaritzari?

X.A.- Etorkizunik duen. ala ez hori hizkuntzaren problema da. Hizkuntza mintzatuak etorkizunik duen neurrian, bertsolaritzak ere izango du etorkizuna, dudarik ere ez. Gainera, etorkizun horren seinaleak, euskaldun berri eta gazte eta jende eskolatuen artean ikusten dira. Honek zibilizazio moderno bateko jendeari gustatze moduko gauza dela esan nahi du. Orain, euskararekin zer gertatuko da?...

TXAPELA BRINDATUKO NION AURRESKUAN EGITEN DEN BEZALA

ANAI.- Eta amaitzeko erregea. Erregea Gernikako Juntetxean bertsolaritza laudatzen egon zen bitartean, Euskal Herriko txapelkunari egurra eta handik kanpora atera. Komentariorik?

X.A.- Hori jakin izan banu, txapela eramango nuen eta kanpora ateratzean txapela brindatuko nion aurreskuan egiten den bezala.

ANAI.- Nahi duzu zerbait gehiago gehitu?

X.A.- Bueno, txapelketa orain dela urte bete izen zela, eta aurrera doala. Garai hartan entrebista batzu izan ziren, baina geroztik galdezka etorri zaizkidan lehenengoak zuek izan zarete, Anaitasunak. Hitzaldietan eta asko hitz egin dut eta jende askok deitu dit, baina maila batetik gorako kultura ofizialean urtebete pasatu eta gero, zuek izan zarete lehenengoak. Honek, uste dut, zerbait adierazten duela...

Mila esker Xabier!

Itsaso eta Harkaitz

RE GUREA

I.- Erromantiko hutsa.

A.- Eta kultura aldetik?

I.- Erabat unibertuala. Kontutan hartu 13 urte ibili nintzela Europari zehar, ideia berrietatik edanaz. Hizkuntzen aldetik ere ondo apaindua nengoen: euskara eta espainoletik aparte, frantsesa eta italianoa ondo ezagutzen nituen, eta ingelesa eta alemana ere dexente.

A.- Zer egin zenuen itzultzean?

I.- Madriler nahi nuen joan ama ikustera, baina beti bezala, dirurik gabe nengoen. Bilbon kantu-saioa bat emanaz lortu nuen bidairako beste, eta 14 urterekin utzi nuen ama, 32rekin ikusi nuen berriro.

GERNIKAKO ARBOLA

A.- Hori 1852.ean izan zen. Hurrengoan, 1853.an, "Gernikako Arbola", ez da?

I.- Bai, Madrileko "Café de San Luis"-en kantatu nuen lehen aldiz, Juan Mari Altuna, durangarra, pianoan languntzaile nuela. Taberna horretan, euskaldun asko biltzen ginen.

A.- Eztabaida asko dago gaurregun "Gernikako Arbola"-ren egilea zeu ote zaren ala besteren bat ote denari buruz. Esaiguzu mesedez, norena den.

I.- Zuei, eztabaidetan sartuta ibiltzea gustatzen zaizuenez gero, hor utziko zaituztet.

A.- Orduan, inkestetan bezala: no sabe/no contesta?

I.- Bai, horixe.

A.- Zer egin zenuen gero?

I.- Euskal Herrira itzuli eta herririk herri kantari ibili. Niri, jende artean ibiltzea gustatzen zitzaidan eta hori egin nuen.

Karlistadan 14 urtekin sartu nintzenez ez nekien Foruak zer ziren, baina orain bai, eta heuren defendatzeagatik kantatzen nuen, eta herriak gustura entzun gainera. Hori zela eta, Tolosan, 1855.ean, goardia zibilek hartu eta kartzelara, eta jarraian, berriz desterrura. Oraingoan Santandere

aukeratu nuen, eta handik Asturias-a, Galiziara, Portugalera eta Andaluziara, eta bi urte garrenean berriro Euskal Herrira. Harrera zoragarria egin zidaten.

AMERIKETARA

A.- Zer zela eta joan zinen Ameriketara?

I.- Ez egidazu gogoratu ere. Hori izan zen nire errakuntzarik handiena. Nik neure bizitzan zehar emakumerik asko ezagutu nuen, eta maitemindu ere ez gutxitan, baina, 38 urte nuelarik, Angela ezagutu nuen, 18 urteko aingeru bat, eta ezkontzeko grina sartu zitzaidan. Euskal Herrian ez zen niretzat erraza ezkontzea, apaizek nire bizitza ezagutuz paper asko asko eskatzen bait zidaten, ea hortik ezkontuta egon nintzen jakiteko, eta, Ameriketatik asko irabazten zela entzuten zenez gero, 1858.eko Urriaren irten ginen Baionako portutik, eta 1859.eko Otsailaren 26.an ezkondu Buenos Airesen, euskaldun artean. Apaiza ere euskalduna izan zen.



A.- Ameriketara joatea zure errakuntzarik izan zela esan duzu. Zergatik hori?

I.- Ahalik eta laburren esango dizut, gauza tristeak gogoratzen ez bait da gozoa.

Heldu nintzenez, izugarritzko harrera izan nuen han zeuden euskaldunen alde-tik eta lagundu era asko egin zidaten.

Lehenengo eta behin, Uruguay-era joan nintzen. Lehengusu baten gana eta ez zidan lagundu nahi, baina azkenean lan txar bat eman zidan, baldintza latzetan. Ez nuen nik artzaintzarako balio izaten eta hiru urte iraun nuen. Handik Montevideo-ra, eta nafar batek utzitako diruarekin taberna bat ipini genuen: "Café del Gernikako Arbola". Hori ere gaizki joan zen, ez bait nuen juerga baino egiten: asko edan, inori kobratu ez, eta azkenean itxi egin behar izan genuen. Bueno, nire partez oraindik ere zabalik egongo litzateke, baina itxi arazi egin ziguten. Han galdu nuen nik osasuna. Gero berriro artzain inoren diruarekin eta berriro hondatu. Eta honela, beste bi aldiz ere. Egia esateko, hango euskaldunak oso ondo portatu ziren nirekin, baina nik ez nuen lanerako balio eta etsitu egin nintzen. Uruguay-en zazpi edo zortzi iraultza ezagutu nituen, eta ez nintzen baten ere sartu: hura ez zen nirea. Herriminak jan egiten ninduen. Negarrez pasatzen nituen orduak.

Orduan, laguntza eske hasi nintzen Euskal Herrira itzultzeko, eta asko erregutu eta gero, diru apur bat batu nuen eta itzuli.

BERRIRO EUSKAL HERRIRA

A.- Emaztea eta zortzi seme-alabak han utziz?

I.- Bai. Batek baino gehiagok putaseme baten modura portatu nintzela esango du eta behar bada arrazoia izango du, baina ezin nuen agoantatu gehiago. Esan dizudan bezala, negarrez pasatzen nituen egunak. Nire nahia denok etortzea zen, andrea eta biok, zortzi umeak hartuta,

ZUGANA MANUELA

Música y poesía de IPARRAGUIRRE

Moderato

Zu-ga-na ma-nu-e-la Nu-ani-an pen-sa-tu

Us-te det nin du-a-la de-abru-ak ten-ta-tu

I-ku-si be-zin o-kin Naiz ona no-ra-tu

o-ja-la oz-ba-zi-nan so-ku-lan a-gor-tu.

KANTARI KUZKALDUNA.

Música y poesía de IPARRAGUIRRE

Moderato

Gi-ta-fa zartxo bat da ne-ret-zat la-gu-na

O-ne-tu i-bil-tzen-da Artis-ta-ekaldu-na: na:

E-gun, be-te-an po-bre bes-te ba-tez jau-na

kanta-ri pa-sa-tzen det nik, be-ti e-gu-na.

baina ez nuen diru nahikorik lortu. Indiano frakasatu eta inadaptatua izan nintzen.

A.- Eta hona heltzean?

I.- Kaka zaharra. Omenaldi, agur eta besarkada asko, baina dirurik bat ere ez. Burdeos-a 1877.ean heldu nintzen, eta handik Madril-a 1878.ean: inork ez zuen dirurik niretzat, nahiz eta Alfonso XII-ek erregeak ere besarkatu. 1879.ean Euskal Herrira, eskean, txakur deslai baten antzera, eta hitz ederrak entzun arren ez nuen dirurik ikusi. Orduan, nire lagun Zubiriarekin kantari ibili nintzen, nahiz eta abotsik izan ez. 60 urte asko ez badira ere, ni oso zahartua nengoen. Azkenean, umillazio asko sufritu eta gero, berriro Ameriketara joatea erabaki nuen. Begira Ekainaren 2an zer idatzi nion nire lagun, benetakoa lagun Fermín Herran-i:

“Si, querido Fermín, es preciso hablar claro; yo agradeceré con toda mi alma si se organiza una función en Vitoria y otra en San Sebastián, y entonces daré el último adiós a esta degenerada e ingrata tierra, y con un abrazo a mis fieles amigos, volveré a embarcarme e iré a morir a lejanos países, lleno de desesperación y de vergüenza. Todo esto que pienso te lo digo porque nada puedo ocultar a mi hermana; y lo que acabo de decir hay que hacerlo cuanto antes, pues el mes de agosto y septiembre son los mejores tiempos para el mar. Contéstame pronto, dame algún consuelo. Mi salud va siendo mediana; no puedo cantar”...

Azkenean, asko itxaron eta ate askotan jo ondoren, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Diputazioen artean pentsio ematea erabaki zuten: 22 hoguerleko hilean: miseria bat. Nik, familia hona ekarteko asmoa nuen, baina diru horrekin ezin zen egin ezer. Gainera, esan beharra dago, ez zutela diru askorik gasjatu, handik gutxira nintzelako hil.

DEGENERADA E INGRATA TIERRA

A.- “Degenerada e ingrata tierra” esan duzu?

I.- Bai, horixe esan dut.

A.- Eta oraindik mantendu egiten duzu?

I.- Bueno, ba dakizu denborak dena aldatzen duela. Orduan hona gauza berri asko ikusi dut eta orduko batzu parkatu egiten ditut eta beste batzu ulertu, nahiz eta onartu ez.

A.- Adibidez?

I.- Adibidez, gaurregun ere ematen den arazo bat: euskaldunak ez duela onartzen inor euskaratik bizi dadin, hau da, ni kantatzen entzutea eta nire kantak kantatzea gustatzen zitzaie, baina ni hortik bizi ahal izatea ez zuten onartzen. Gogora ezazu, esate baterako, Xepelarrek egin zidan bertsoaren zatia: “ni ez nazu ibiltzen, kantuz dirua biltzen, KOMEDIANTE moduan”. Ni KOMEDIANTEA nintzen euskaraz egiten nuelako, ez beste ezergatik; erdaraz egin banu, beste askoren mo-



duan, KANTARIA izango nintzateke. Zuei gaurregun ere antzeko zerbaite gertatu zen zaizue: euskal kantariak, idazleak, kasleak, bertsolariak eta abarrak, “poeta causa” egin behar dute lan, bestela txantxi ikusiak daude.

Nik bizia kantatzen atera nuen, harria eta honantz neure gitarrarekin, eta hortaz zen lan serioa hemengo jendearen ustean beraz, nire mitoa rentablea zen, baina ez, ni, hilda hobeto nengoen. Hortik nire heriotza ondoren izandako reakzioa: primerako enterrua, diskurtsuak, Diputazioaren aktan “se ha enterado de esta irremediable pérdida con el más profundo pesar”, kalei nire izena, estatuak erabiar.

Gainera, nire mitoa eta ni ez ginena. Ni hona heltzean agure arraro bat nintzen eta hori ez zen eskemetan sartzen, beraz ez zuten onartu. Geroago ere holako zerbaite gertatu zait: alde batetik, nire biografia askotan Euskal Herrian pasatu nituen azken hiru urteen berririk ez ematen, lotsatu edo egiten dira, eta beste alde batetik, nire abertzaletasuna ere hobeto esateko, nire Euskal Herriaren kontzeptua falsifikatu egiten dute askotan zenbat aldiz entzun ote duzun “ara EUSKAL HERRI, lur hoberikan, ez da Europan guztian”, nik ESPAÑA idatzi nuen tokian EUSKAL HERRI ipiniz... Honetaz ere hitz egingo nuke hitz, baina hutz dezagun gaurkoz.

A.- Amaitu beharra daukagu. Nahi duzu amaitu?

I.- Bertso batekin, gaurkotasanik ez dutela galdu uste bait dut. Baina falsifikatu gabe, mesedez.

Esan, adiskideak orduan bezela, Nafarroakin gaur ere anaiak gerala; bat da gure izarra bat gure bandera: esan beti Laurak-bat izan nahi degula

NERE MAITIARENZAT (UME EDER BAT)

IPARRAGIRRE

Allargato.

U-mo e-der bat i-ku-si nubon Donos-ti-a ko ka-fi-
an Itz-er ditxo-bat a rie sanga bu No la pa batu po-ri-
an U-mo an --- Cor-pu-tza zu-ben li-ra ha-e-ta O-ñak
su-biltzen alde-an Fo-li-ta go-rik oz dot i-ku-si Ne-ro
be-gi-en zu-fo-an Cor-pu-be-gi-en au-fo-an ---

EZKONGAYETAN

Poesía y música de IPARRAGUIRRE.

Ez-kon-ga-yetan zer bait ba-nin-tzan ez kon-du e-ta e-zer
as
E-dor za-li-a banit-zan e-re asper-tu nint-zan e-de-
rrez nere gus-tu-a e-gin nu-ben da orain bi-zi naiz *25-ga* iruz.

IPARRAGIRRE BERTSOLARIA

Iparragirreren mendeurrena ospatzeko dela eta, ez legoke gaizki bertsolari modura zer izan zen azertzea eta horixe da, azaletik bada ere, artikulu honetan egin nahi dena.

KANTARIA ALA BERTSOLARIA?

Hasi bezain laster, zalantza hau datorkigu burura: Zer zen zehazki, kantaria ala bertsolaria? Ene ustez, bietariko zerbait zen, edo zehatzago esanez, bere kanta prestatzeko bertsolaritzaren teknikaz baliatzen zen kantari bat.

Bat aukeratzekotan, batez ere kantaria zela esango nuke: artista, orduko shownan-a, gitarrak lagunduz eta ahots gozoz kantatzen zuen kantaria berak kanta honetan dioskunez:

Gitarra zartxo bat da neretzatlaguna, onela ibiltzen da artista euskalduna; egun batean pobre beste batez jauna, Kantari pasatzen det nik beti eguna.

Baina, esan bezala, bere kanta bertsolaritzaren teknikaz prestatzen zituen, zortziko nagusi eta txikiak egokituz. Gero errepikatu egiten zituen behin eta berriro kanta erara. Hots, nagusiki, bertso jarriak egiten zituen.

Bat-bateko bertsolaria ere bide zen, bestela ez baita ulertzen Xenpelarren desafioa:

Iparragirre abila dela askori diot aditzen Eskola ona eta musika nori oiek zin berbitzen

Ni ez nauzu ibiltzen kantuz dirua biltzen komediante moduan; debalde festa preparamen det gogua dedan orduan.

Eskola ona eta musika bertsolaria gainera; gu ere zerbait izango gera orla ornitzen bagera. Atoz gure kalera baserriar legera musikak oiek utzita; Errenderian bizi naiz eta egin zaidazu bisita.

Bertso hauek zenbait pista ematen dizkigute. Iparragirre kantuaeren profesional bat zen, "Kantuz dirua biltzen" ari biltzen, horretaz gainera bertsolaria bazen ere. Hala ere, orduko bertsolariak erabat amateurak bide ziren, bertso-paperak



jartzean salbu. Dena den, musikaren arloan berrikuntzak ekarri bide zituen, doinu-mota berriak sartuz. Hain zuzen ere, diotenez, aurreko bertsoak kantatu aurretik, honelako zerbait gertatu omen zen Xenpelar eta Iparragirreren artean Donostiako sagardotegi batetan. Iparragirrek esan omen zion:

— Etorri nahi al dek nirekin? Nik soinua jo eta hik bertsoak kanta, ederki biziko gaituk.

Xenpelarrek ezetz esan omen zion. Orduan Iparragirrek:

Hik beti doinu zaharrean kantatzen dituk bertsoak. Ez haiz gauza, nire doinu berriez bertsoak egiteko. Horregatik ez dek nirekin etorri nahi.

Eta Xenpelarren erantzuna, aurreko bi bertsoak izan omen ziren, bertso-doinu berri bat erabiliz. Orduandik bertso horik famatu bihurtu dira bertsolariaren artean eta doinua "Iparragirreren doinua" izenez ezagutzen da.

IPARRAGIRREN BERTSOEN KALITATEAZ ZERBAIT

Hasteko, esan beharra dago, horrelako zerbait juzkatzeko, erizpide egokiak behar direla. Eta agian nik erabiliko ditudanak ez direla orduko bertsolaritzan erabiltzen zirenak. Baina Xenpelarren garaikidea zelarik, eta beronek erabiltzen zuen teknika ezagutzen dugunez, arriskatu egingo gara, erizpide eztabaidagarriak darabiltzagula dakigularik.

Nik neuk hutsune nagusi hau ikusten dizkiot:

a) Neurriari dagokionetik, neurketa

Nere Amak Baleki

Moderato
Música y poesía de IPARRAGUIRRE

Zi-bi-lek e-san nau-te Bi-zi-ro e-ro ki To-
lo-son bi-er da- la gauza e-ra-ba-ki Zi-ki Giltza
pi-an sartu naute po-li-ki po-li-ki Ne-er e-gin ro
lu-ke Ne-ra esak ba-le-ki Giltza ki.

AMERIKATIK URETXUAKO SEMIEI

Moderato
Música y poesía de IPARRAGUIRRE

Bi-la-foal de U-ro-txu Ne-ro eri mai-te-a
Se-ne bat e-mon de-zu A-no-rioz be-te-a
Nai ba-ri no lad-ku-si au-da-lan tris-to-a
zu-ro-tzat nai det bi-zi U-fo-txu ne-ro-a.

problema latzak ikusten dizkiot. Silaba gehiegi aurkitzen behin baino gehiagotan eta diptongoen egitura ez da batere ikusten. Adibide bezala, hor ditugu hurrengo kantako "nuanian" eta "deabruak" hitzen kasua:

Zugana, Manuela nuanian pentsatu uste det ninduala deabruak tentatu; ikusi bezin egin naiz enamoratu; ojala ez bazinan sekula agertu

b) Errimari dagokionez, bere garaikide den Xenpelar baino askoz askeago jokatzen du, nolabait esateko errima pobreak onartuz. Adibidez, Gernikako arbola kantatzen: "zuela, arbola, denbora, gera" (nahiz eta hau errimatze progresibotzat har daitekeen). Edo "eskatzeko, be-launiko, ezkerro, gero". Dena den, errimari buruz erizpide desberdinak egon daitezke.

c) Erabiltzen duen euskara, nahiko herri-tarra eta naturala den arren, oraindik ez dugu ongi ulertzen zergatik dioen "Zibilak esan naute", Urretxu inguruan

horrela esaten ez bada. Zenbait kasutan, euskara traketsa darabil, eta hori kontutan hartzekoa da. Dena den, garbizaletasun-burukominik gabe, euskara ulergarria eta bigura erabiltzen du, hitzen banaketa argiarekin, eta esangura zentratuz.

Gauza positiboak ere ba ditu:

d) Gaiaren garapena nahiko modu hunkigarriz burutzen du. Agian erabiltzen dituen gaien kausaz (atzerrian dela, edo amodioa dela,...), beraren hitzak sarkorrek gertatzen zaizkigu. Oso ongi lotuta doaz, bestalde, musikarekin eta, ondorioz, kantagarriak direla esan behar.

Dena den, atal honen bukaera eta eritzi orokor bezala, ene ustez, Iparragirre bigarren mailako bertsolaria izan zela esango nuke. Baina lehen mailako kantaria.

ZER EMAN DIO BERTSOLARITZARI?

Berriro lehengo bidetik, Iparragirreraren aportaziorik handiena doinuen arloan dagoela esango nuke. Doinu-mota asko herriartu zituen eta gaur egun ere, herri-kantatzat ditugun asko, berak asmatutakoak dira. Bertso-doinu asko, berak egini-ko hitzen izenez ezagutzen ditugu, horrela

etorri baitzaizkigu: "Ume eder bat" "Kantari euskalduna" "Nere amak baleki", "Agur Euskal Herriari" Doinu politak erabili eta asmatu zituen; eta gaur egun sinbolotzat ditugun kantak prestatu zituen: "Gernikako arbola", "Hara nun dira". Berari kantatutako bertso batzu ere historiarako geratu dira. Xenpelarrenak kasu. Bigarren mailako bertsolaria izateko ez da gutxi!

Bertsolarien historian ba du, beraz, leku bat, berak egin duenagatik eta berari buruz egin dutenagatik. Izan ere, beste zertara dator beraren mendeurrena ospatzea?

Bukatzeko, artikuluan eginiko oharrekin, batera zerbait merezi duelakoan bertso hau eskaintzen dizut, zuru, historiaren eternitatean zauden horri:

Nire lantxo hau irakurtzean egin dezakezu barre. Eritziren bat gusta ez arren ez duzu zertan haserre. Zure bertsotan txarretik ba da, hala ere nahiko urre. Mende bat pasa baina oraindik bizi da Iparragirre.

R. Garai



NERE ETORERA

Música y poesía de IPARRAGUIRRE

Andante

A- ra nun diran nondi naito-ak A-ra nun di-ran no-layak
 Ba- no-fi e-dor zu-ri zu-ri-ak i-tu-fi o- tak i- ba- yak
 Hon- du- yan na- go zo-ra-tu- ri- kan zabal-za ba- lik bo- gi-
 ak A-ra za- pa-ña lur obe- ri-kan ez du Eu-ro-pa gu- zi- ak.

ADIO EUSKAL - ERRIARI

Moderato Música y poesía de IPARRAGUIRRE

Gaz-to gaz-to tan fi- kan o- fi tik kanpo- ra Estrenjeri al-
 do- an pe sa det den-po- ra E- nya alde gu- zio- tan
 to ki onak be- di- ra toki onak be dira ba ne bi-ot-zak
 di- o zu az euzka-le-fi- ra E gin al de gu-zietan toki onak badi
 ra ba ha biot- zak di- yo zu az euzka-le-fi- ra.

IPARRAGIRREREN LANA LAUKITAN

Abiapuntu ezberdin bitatik egina dugu ondorengo gai hau. Alde batetik kuantifikazioa erabiliz datu batzuk ematen ditugu Joxe Mari Iparragirrerren lanari buruz eta bestetik lan berau erabiliz nortasun bat atzematzeko bideak jarri.

Lehen puntuari (gaiak zenbakitan) Iparragirrerren lana horainokoa izan den jakitea dagokio eta bigarrenari, berriz, nolakoa izan den legokio (nola-kotasun hori premisa bakar batetan oinarritzen dugularik: adjetibazioan).

1.- GAIK ZENBAKITAN

Gure lehen puntu honetan Iparragirrerren lana nola sailka daitekeen ikusiko dugu. Zazpi gai ezberdin aukeratu ditugu eta horretan sartu nahi izan da Joxe Mariren lan osoa.

Hogeita zazpi olerki aurkitu ditugu; haietariko bost "Maitasunari" eskeiniak dira, "Euskarari" bi izan dira, Euskal Herriaren egoera" gaitzat harturik sei eta erdi daude, "Erbestea, erbestetik idatzia edo erbestera joatean" gaia beste bost eta erdik hartzen dute (azken gaiok dituzten erdiok olerki berberatik datozkigu biei eskeinia bait da gai bera), "Kristautasuna" gai bitan doa, nahiz eta gai batetan "Euskal Herria" gai horrekin batera agertu. "Pertsonajeei", bere aldiko pertsonajeei, beste bost eskeintzen dizkie, eta "Abar" deitu izan dugun sailan beste bi agertzen zaizkigu.

Alboko koadroan ikus dezakezuenetz, zenbanakoki behintzat, gairik garrantzitsuena "Euskal Herriaren egoera" izendatu duguna da, ia mila hitzez doalako eta ahapaldien kopuruak hirutarik bat baino gehixeago hartzen bait du. Gerorxeago datozkigu elkarren atzean Pertsonaiak, Erbestea ta Maitasuna; azkeneruntz Kristautasuna, Euskera ta Abar gelditzen zaizkigularik.

Hizkirimiri bezala Euskal Herriaren egoerari buruz doazen olerkiak olerkirik luze- enak direla esan dezagun, "Aloña mendi" eta "Gernikako arbola" hain zuzen; lehe- na hogeita hiru ahapaldiz eta bigarrena hamabiz. Hirugarren toki batetan bada nahiko luzea den beste olerki bat, kasu honetan berak, Iparragirek, ezaguturiko pertsonai bati eskeinita dagoelarik: "Okendori" izenekoa, hamar ahapaldiz ornitua.

Eta koadroa ikusi baino lehen ohar bat- zuk. Izartxo (+) bat daramaten olerkiak gai ezberdin bitan daudelako da. "Euska- leri ta Amerika" izenekoa "Euskal Herriaren egoera" sailan eta "Erbestea, erbestetik, erbestera "sailan ere". Jaun- goikoa ta arbola" izenekoa ondorengo biotan: "Euskal Herriaren egoera"n eta "Kristautasuna" sailan ere.

Bigarren oharra hauxe duzue: laukietan zenbaki bi agertzen dira, lehen zenbakia orotara da eta bigarrena % hainbestea adierazteko da; kasureko: "12,%8" ho- nek zera adierazi nahi digu: hamabi aha- paldi direla gai horretan agertzen direnak eta ahapaldiok beste gaietakoekin konpa- ratuz %8a betetzen dutela. Hitzekin ber- dintsu jazotzen da: "215,%6,8" honek hauxe diosku: gaiak 215 hitz dituela eta hitzok lan osoa kontutan izanik %6, 8a baino ez dutela betetzen.

Iparragirrerren lana zazpi gaitan sailkaturik (Maitasuna, Euskara, Euskal Herriaren egoera, Erbestea/tik/ra, Kristautasuna, Pertsonaiak eta Abar) Euskal Herria gaitzat harturik duten olerkiek betetzen dute lanaren zatirik luzeena.



"Gernikako Arbola"

Música y poesía del bardo IPARRAGUIRRE

Moderato

Ger-ni-ka-ko ar-bo-la Dabe de nka-tu ba Euzkaldunen ar-
 te. ar Guztiz maite tu ba Ger-ba E-manda za bal za- zu
 Mundu-ban frutu-ba A-do-ratzen zaitu- gu Arbo-la san-tu- ba ---
 E-man-da za bal za zu Mundu-ban frutu- ba ---- A- do-ratzen zel
 tu gu Ar- bo- la san- tu ba.

GLU, GLU, GLU.

Música y poesía de IPARRAGUIRRE.

Andante.

Vi-va Ri- o- ja Vi- va Na- pa- fa ar-ku- no o- na- re
 iz ta ra E-don euz-ti-ok a- na-yak go-ra Us-tu es
 za-gua si- tra- fa Glu-glu, glu, glu glu glu glu glu glu glu glu glu
 glu, glu, glu, glu, glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu
 glu glu, lu, lu glu, glu glu

PREMISAK	MAITASUNA	EUSKARA	EUSKAL H.ren EGOERA	ERBESTEA/TIK/RA
OLERKIAK	Zugana, Manuela. Beltzerena Nere maitearentzat. Nere Izarra. Ezkongaietan	Arren ez bedi gaidu euskera Gora Euskera!	Gernikako Arbola Euskalerra ta Amer (+) Jaungoikoa ta arbol (+) Mairuen bandera Oroitza Elizondoko batzarra Aloña Mendi	Kantari euskalduna Nere amak baleki Agur Euskalerriri Ameriketatik Nere etorrera lur maitea.
AHAPALDIAK	21; %14	9; %6	54; %36	24; %16
HITZAK	434; %14	240; %7,6	968; %31,4	540; %17,5

KRISTAUTASUNA	PERTSONAIEI	A B A R	OROTARA
Nere oldozmena	Okendori Becerro-Bengoa... Galdu genduan Mo- raza Obia Ongille maiteai	Errukaria Glu, glu, glu	.27.
5; %3,33	25; %16,66	12; %8	.150 %99,99
74; %2,30	613 ;%20,4	215; %6,8	.3084 %100

NERE-IZARA

Andantino.

Música y poesía de IPARRAGUIRRE

Zu ze-ra ne-re i-za-fa zu-ne-ro eguz-ki-ya
 zu ze-ra ne-re i-za-fa zu-ne-ro eguz-ki-ya
 Ain-go-ru on ar-te-tik ze-ru-tik jat-xi-ya
 Ain-go-ru on ar-te-tik ze-ru-tik jat-xi-ya
 Ain-go-ru on ar-te-tik ze-ru-tik jat-xi-ya.

ERUKARIOYA

Moderato

Música y poesía de IPARRAGUIRRE

Ab-pal-dien ezta gu-ro e-txo-an O-gi-tik i-ku-si Ba-ñen
 gaur txitxi-ta pa-fa I-zango da nãz ki- - i
 Gaur bai ja-na ta e-da na la-bi-run le-na jan-go o-te
 de-gu da-na la-bi-run lu Gaur bai ja-na ta e-da-na
 la-bi-run le-na jan-go o-te de-gu da-na la-bi-run la-!ju!

2. KALIFIKATZAILEAK IPARRAGIRREAREN OBRAN.

Orain arte zenbaiterainoko lana egin zuen ikusi baldin badugu bigarren ataltxo honetan gure helburua lanaren nortasun bat aurkitzeko bideak zabaltzea da. Nortasun hori lortzeko era ezberdin ugari dagoelakotan, guk bat hartzea erabagi dugu: kalifikapena hain zuzen ere.

Adjetibo kalifikatzaile batekin doazen hitzek balio berezi bat dutela iruditzen zaigu eta uste horren arabera bi galdera ditugu: Hitz bakoitza zein adjetiborekin

doa? Adjetibo bakoitza zein hitzekin?

Gehien kalifikatu diren hitzak eta eurekin doazen kalifikatzaileak nabarmenak —A— koadroan dituzue. —B— koadroan, ostera, gehien erabilitako kalifikatzaileak zeri jarri zaion ikusi ahal izango duzue. Konparaketa moduan Iparragirre-ren lana Bilintxen lanaz konparatu dugu.

Baina aurrera jarraitu aurretik beste datu ta ohar batzuk eman behar ditugu. Lehen haxe dugu: Iparragirrek bere lan osan 3080 hitz erabilten baditu, heuratariko %3,34a kalifikatzaileak direla; hala ere

kontrara Bilintxen 6265 hitzetatik 131 baino ez dira kalifikatzaileak, hau da %2,09a. Lanon artean, beraz, eta kalifikatzaileei dagokienez behintzat, Iparragirrek adjetiboak jartzean %1,25 gehiago jartzen du Bilintzek baino.

Bigarren oharra haxe litzateke: Oso gai ezberdinak ikuitzen dituela eta hori dela eta azterketan ezbedintasun nabariak agertzen direla.

Azkenez gure helburua datoak erakartzea, eta ez ondorioak ateratzea dela esan dezagun.

IPARRAGIRRE

A-koadroa:
Hitzak eta
kalifikatzaileak

	EUSKALDUNAK	*gazte *onak *leialak	(askotan aipatzen dira)
	ARBOLA (1)	*santua *maitea *zuzena	(batzutan obran zehar)
	LURRA (2)	*maitea *santua *ona	(")
	BERA (3)	*beltzerena *graziosa *zoroa *tristea	
	OKENDO (4)	*ederra *azkarra *fededun ona	
	PELOTARIAK	*onak *gogor-azkarrak *altu-zabalak *galai-gazteak	
	MORAZA (5)	*ona noblea	
	GAZTEDIA	*eder-fiña *ederra	
	ONATI-ELIZONDO (6)	*ederra *zabala *fiña	
	AIZKIBEL (7)	*prestua *jakintsua	

BILINTX

	*maiteak *politik *onradeak *apainduak *badeinkatuak *meheak *ederrak *gazteak *finak *gozoak *amorosak *lirainak *eztiak *atseginak *kutunak *katolikuak *garbiak
ANDRAK	
BERA	*tristea *mindua *penatua *burlatua *xamurra *maitasunez eroa *desdixatua

GORA LUZKERA

Francisko Aizkibel - Jounari

Música y poesía de IPARRAGIRRE

Moderato

Ez-ja klan ga gi-zog bat bear do gu-na nai- ta

Francisko Aizki-bel jau-na Euzkel-au- nen ai- ta

Espressivo

txit da gi-zon pro- tu la ta ja kint zu- ba e-

rit.

fos- pe- ta de- sa- gun guk gu- ronsite- su- ba,

HERE OGUILE MAITEARI

Música y poesía de IPARRAGIRRE

Moderato

Ez da kit no la oa ke- rak e-zen ah na- re on ai le nai- ta.

ak no- re lu- re- ra boarnau oraman bear zu- on to- ron da- ta.

ak; Ez da ak; Egin de- zu- te zer o- fra o- ne a- be-

ratz e- ta pobre-ak o- fa cunplitu e- sintzanduana Je- su- kristoren le- ga-

rit.

ak o- fa cunpli- tu e- sin- tzanduana Je- su- kristoren le- ge- ak.

— B — koadroa
Kalifikatzaileak
eta hitzak.

BILINTX

IPARRAGIRRE

<p>MAITEA</p>	<p>*emakumea *damatxoa *izarra</p>	<p>MAITEA</p>	<p>*arbola *lurra *ama *mendia *Euskal Herria *anaia *Euskera *adiskideak</p>
<p>SANTUA</p>	<p>-----</p>	<p>SANTUA</p>	<p>*arbola *lurra *legea</p>
<p>ONA</p>	<p>*koadrilla *bihotza *deskantsua *zizenak *kontsejuak</p>	<p>ONA</p>	<p>*anaia *lurra *euskaldunak *Okendo *Moraza *Elizondo *Pelotariak *adiskideak</p>
<p>EDERRA-POLITA</p>	<p>*soinua *emakumeak, mutilak *damak *damen atributoak *gaua *izketa *festak *etxeak, zerua</p>	<p>EDERRA-POLITA</p>	<p>*arbola *andrak *umeak, gaztedia *zerua *Okendo *Euskera *Elizondo, Oñati</p>

NERE MAITIARENZAT (UME EDER BAT)

IPARRAGUIRRE

Allargato

U-ne e-der bat i-ku-si nubon Donos-ti-a ko ka-ti-
 an Itz er ditxo-bat a rie sanga be No la pa satu pa-ri-
 an U-ne an --- Gor-pu-tza zu-ben li-ra ña-o-ta o-ñak
 se-biltzen alde-an Fo-li-ta go-rik ez det i-ku-si Ne-re
 be-gi-en zu-fo-an Gor-pu-be-gi-en au-fo-an ---

ZUGANA ~ MANUELA

Música y poesía de IPARRAGUIRRE

Moderato

Zu-ga-na Ma-nu-e-la Nuani-an pon-se-tu
 Us-te det nin du-a-la deabru-ak ten-ta-tu
 I-ku-si be-zin e-kin Naiz ona mo-ra-tu
 O-ja-la ez ba-zi-ñan se-ku-lan a-ger-tu.

Ikus dezagun, orain eta bukatzeko, zeintzuk diren, gaietan banaturik Iparragirrenen olerki guztiak, gehien erabiltzen diren kalifikatzaileak:

MAITASUNA

- *graziosa
- *ederra
- *liraina
- *zuria
- *zoratu
- *gaztea
- *zikina
- *handia
- *alperra

EUSKARA

- *eder-maitea
- *zaharra
- *ona
- *bikaina
- *maitea
- *prestua
- *jakintsua

E. HERRIA

- *santua
- *maitea
- *zuzena
- *gaztea
- *tristea
- *polita
- ona
- *zaharra
- *argia
- *eder
- *leiala
- *fina
- *gogor-azkarra
- *altu-zabala
- *galai-gaztea
- *atsegina

ERBESTEA

- *zahartxo
- *berria
- *maitea
- *tristea
- *eder-zuriak

KRISTAUTASUNA

- *itzal-ederra
- *polit-gaixoa

PERTSONAIK

- *ederrak
- *leialak
- *azkarrak
- *fededunak
- *onak
- *saituak/nobleak
- *maiteak
- *prestua.

1: Gernikako arbolari dagokio
 2: lurra = Euskal Herria tokizat harturik
 3: Iparragirre bera

4, 5, 7: Iparragirrenen aldiko pertsonai lagun eta estimagarri batzak.

6: Elizondon egin zen behin euskaldunen biltzarre karlista bat. Oinati: "Aloña Mendi" ize-

neko olerkian kondatzen dena Gipuzkoako herri hortan igaroten da.

LURRA IKARA

1980.urtean.
Azaroak 23.
Italiako lurralde pobreena.
Lurra ikaratu egin da.
Hantxe geratu dira burdin hotzen artean zibilizatu omen den mundu honen zientziak zertarako balio duen sekulan jakin ez dutenak.

Italiako partean hau gertatzen dela ez da lehenengo aldiz. Oso ondo ezagutzen dute hango harriek Lurraren aharrusia: 1456.ean 30.000 lagun hil ziren; 1783.ean 60.000; 1908.ean 82.000; 1915.ean 30.000;... 1980.ean milaka lagun; eta hemendik aurrera?

Italiako azken lurrikara honek berriro atera du argitara betiko kontua: aurreikusitako ahal dira nolabait lurrikarak? Baina honekin batera beste gauza bat ere bai: XX. mendean, jakintsuenak Ilargira joan diren mendean, progresoaren mendean, Lurraren ikaran hiltzen ez direnak gero gosez hil behar. Azken egun hauetan, oraindik, Napoli hiriko egoera latza entzun dugu. Lurra egin ez zuena dago orain egiten estadia. Jendea kalean,... Baina, utz dezagun kontu hori zientzia neutrala da eta! Joan gaitezke berriz lehenengo harira!

Esana genuenez, azken lurrikara hau gertatu ondoren berriro entzun da batzuren kexa. Aldizkari zientifiko batetan agertu den historia benetan kontagarria. Berau 1979. urtean URSS-en kaleratutako programa zientifiko italo-sobietiko baten erresultaduetan datza. Izan ere, programa honen helburua Italia penintsulako fenomeno bolkanikoak aztertzea zen. Oso metodo konplexu desarroitatu zituzten foko


sismiko izan litezkeen puntuak finkatu nahirik.

Honek azalpen txiki bat merezi du. Azken urte hauetan egindako ikerkuntzek asko argitu dute lurrikaren jatorria. Lurbarnean diren materialeek, presio eta temperatura itzelak direla kausa, elkarren kontra jotzen dute gogor. Honen ondorioz, alde horretan energia askatuz doa, apurki apurki, apurketa gertatu arte. Une honetan energia askatu egiten da, baina bapatean, uhin gogorren bidez. Eta uhinok dira "desastreak" probokatzen dituztenak. Hau da, Lurrikaren jatorriak zerikusi handia dauka barneko egitura geologikoekin. Honetan oinarritu zen programa italo-sobietikoa: ahalik eta informazio gehien batu, era askotakoa, posibilitate guztiak matematikoki landu, eta azkenean puntu "arriskutsu" posibleak markatu.

Hau, jakina, gauza teorikoa da, baina, hala ere, gure gaurko arrazonamendu zientifikoan oinarrituta. Era honetan, Italiako hegorako 44 puntu ateratzen ziren foko sismiko posible bezala. Eman behar zen hurrengo urratsa, puntu horiek kontrolatzea, ez zen eman. Jakina denez, lurrikara den energia-askatze hori bapatean gertatu arren, aurretik denbora asko behar izan da apurketa heldu arte. Aurre-denbora horretan ere energia askatuz doa

(uhinen bidez) eta berak erregistratu posiblea dugu lurrikara gertatuko dela jakitea, hori ekiditzeko ezer egin ezina baten ere. Baina bai hilak ebitatu.


Aipatutako 44 puntu horietatik baten ondoko koordenada hau zeuzkan: 40° Iparra eta 15°Ekialdea. Urte bat geroago, 1980.eko azaroaren 23'an gertatutako lurrikararen fokoa koordenada hauetan finkatu zen: 40°75' Iparra eta 15°29' Ekialdea. EGINDAKO LANAREN EMAITZAK BEGIRA, ARRAKASTA HAUNDIA IZAN



TZEN DENEAN

DELA EZIN DA UKATU. BAINA ZERTARAKO BALIO DU? Gero zientzia neutrala dela esango digute!

Lurrikarak gertatzen direneko eskualdeetan bolkanketa ere agertu ohi da. Hauk biok batera doaz (orain gutxi laba botatzen hasi da Siziliako Etna) eta berauen kausa orokorra eskala handitan gertatzen diren kontinenteen mugimenduetan oinarritzen da. Eta konkretuan Italian, Ipar Afrikan eta Penintsulan gertatzen direnak Ozeano Atlantikok Iparrean eta Hegoan



daukan zabaltze-abiadura ezberdinean bilatu behar da. Izan ere, Hego Atlantikoa arinago doa zabalduz (3 cm. urtero) Ipar Atlantikoa baino (2 cm. urtero).

GURE INGURUAN

Kantaurialdean ere izan lurrikarak eta bolkanketa. Azken honen hondarrak leku askotan aurkitu dira. Lurrikarek dago-kienez, eta enpresa baten txostenak diaenez, Lemoiz zentrotzat hartuta eta 150 km-tako erradioan 36 lurrikara erregistratu dira, zelan edo halan, 1900-tik aurrera. Erradioa 300 Km-tara zabaltzen bada 187 dira, intentsitate ezberdinetakoa. Enpresa berak dioenez, oso gutxi da lurrikara hauetaz ezagutzen dena, hots ez dela informazio handirik: "En definitiva, se concluye que el estudio sismológico para la Central Nuclear de Lemóniz no podrá contestar a todas las preguntas lógicas que se plantean" (2.5.6.). Mila esker eregindako ahaleginagatik!!!

Bestetik, izen oneko aldizkari batetan (Boletín Geológico y Minero, fundada en 1874) honela irakur daiteke: "Gracias a la investigación petrolífera se han puesto de manifiesto los volcanismos del golfo de Vizcaya, asociados a una discontinuidad conocida internacionalmente como de Gibbs o Labrador-Biscaye Fault, coincidente con la discontinuidad nortpirenaica" (1978). Erantsiko nioke horri, ezen diskontinuitate hori Atlantikoko dortsalearekin lotuta dagoela, eta honelako zonak kontutan hartzekoak dira.

Ondoko mapa honetan (1980) arrisku-zona teorikoak agertzen dira. Zenbat eta informazio-kopurua haundiago izan (eta fidagarriago) fenomenoak hobe ulertzeko moduan, eta irtenbide posibleak aurkitzeko moduan egongo gara; eta errealitatetik hurbilago ere.

Iñaki

SNOBISMOAZ

Musika arloan, beste askotan bezala, zenbait jende oso "moderno" da; hots, uneko musika atsegin dute, edonalkoa, baina modan dagoena.

Zergatik esaten duzun hau? Erantzuna oso erraza da, jende hoiere snobismo delakoaz bururaino nagoelako.

Adibide adierazkor gisa, niri jazotako bi gertaera kontatuko dizuet.

Lehenengoa "saltsa" deritzonaz. Niri betidanik gustatu zait Erdi-eta Hego-Amerikako musika —manboak, sanbak, kunbiak, e.a.—, baina ezina zitzaidan askotan diskadendetan aurkitzea, modan ez zegoelarik edo, saltzen ez omen zuten eta. Gainera, sarritan arrotz sentitzen nuen neure buruz, edo orain esaten den modura "karroza"tzat hartzen, beste mundukoa izango banintz legez.

Esate baterako, Kataluniako "Orkestra Plateria"ren lehen diska erosi nahian Donostia eta Bilboko denda asko eta asko ikustatu nituen, duela bi urte edo, eta gehienetan ezagutu ere ez. Orain osterara, ospe handiko taldea dugu, eta edonon aurki dezakegu bilatzen ibili nintzen diska hura, eta berriki argitaratua ere. Harrigarria benetan!

Bigarren adibidea antzekoa da. Orain bi urte baino gehiago, Ingalaterran nengoela "reggae" delako musika entzun nuen lehen aldiz, eta eder ederra iruditu zitzaidan. Hantxe biziango kontzerturen batetara joan nintzen, eta ia egunero Jamaikako beltzen klub batetara holako musika entzuterara eta dantza egitera. Hona itzuli nintzenean, reggae diska pare bat ekarri nuen, Peter Toshen bat esaterako, eta lagun edo ezagunei entzunerazi nizkienean, denek esan zuten oso musika itsusia eta txarra zela, eta ez zidaten ipini ere uzten inongo bilera edo festatan. Geroxeago, berriz, hasi ziren F.M.an jartzen eta bultzatzen, eta horra hor guztien gustukoa bihurtu zela musika madarikatu hura. Orain denek maite dute Bon Marley, eta Eddy Grant ere..., eta baita Peter Tosh berbera ere!!

Ez esan ez denik etsitzeko. Eta holakoak bizitzaren eremu guztietan milaka. Gure zorioneko herri honetako jendea, zoritxarrez, modaren tendentzien arauera mugitzen da.

Amaitzeko, esaera zahar bat datorkit burura, Rafael Castellanos aldarrikatua berriz modan jarria: HALAJAIN-KOIA!

I.A.

"Hara, begira sorgin hori!" zioten hurrek Maria Blanchard kalean pasatzen ikusten zutenean. Eta harriak botatzen zizkioten eta burlaka, keinuka, oihuka hasten ziren' "E, sorgina!". Beste batzuk, berriz, Mariarengana hurbildu ohi ziren bere bizkar konkorra ikutzeko asmoz. Eta berak, isilik, umiliaturik, begiak malkoz beteta, etxean sartu, margoak hartu eta haur eder, loreak, emakume zoriontsuak pintatzen zituen..

MARIA BLANCHARD MENDEHURRI

Maria Blanchard, emakume margolari famatua, Santanderren jaio zen 1881.go Martxoan 6éan. Bere amak izandako istripu bategatik, makur edo deforma izango da jaiotzez. Honek, zeharo mugatuko du bere bizitza guztia. Geroago, famatua zelarik, batek arte edertasun fisikoaz gain dagoela esan zionean, berak erantzun omen zion, saminkin:

- *Non, non. c'est mieux la beauté!*

Kaleak sofrierazten badu Mari txikia, etxean berriz, giro goxo, maitagarri bat aurkitzen du. Marrazkigintzarako trebetasunaz jabeturik, etxekeok asko bultzatu eta lagunduko diote arte bideetatik. Maisu, liburu, kabilete eta margoak ez zaizkio faltatuko... eta unibertso txiki hartan kalean egindako zauriak sendatzen ditu.

Pintura ikastea Madrila doanean, berehala galardoatua gertatzen da erakusketa batean. Baina, Madrilek ez du horregatik hobe-

to tratatzen. Kaletik pasatuz gero, bere deformitateak mila irain eta iseka sorrerazten du; harriak ez zaizkio faltatzen, bultzakadak edo gustu txarreko trufak ere ez. Gainera, Madrilgo kultural kaxkarkeriak eta Akademiako ohikeriek itotzen dute Maria. Parisa joatea erabakitzen du 1908.urtean.

Garai hartan, Pariseko Montparnasseko tailer eta estudioetan, mundu guztiko artistak pilatzen dira. Bide berri batzuk zabaltzen zaizkio arteari, estilo iraultzaileak... Paris dardar batean dago, sukar artistiko batez jota. Eta han aurkitzen du azkenean Maria Blanchard-ek berak hainbat irrikatzen zuen giro egokia. Louxembourg parketik pasea daiteke trankil, inork ez du molestutzen, inori ez dio axola, inor ez du harritzen emakume txiki konkordun hark. Aldiz, lagun asko egiten du: Juan Gris, Picasso, kubistak; Dalí, Bernal, Dominguez, surrealistak; Bores, Cossio, Viñes, neokubistak;

eta Miro fauvisen artean. Hauengandik afektu, miresten eta txaloak, besterik ez jasoko.

Bizitza bohemía delakoa ezagutu arren, gose, hotz, miseria ugari, pintatzeari eta dio eten gabe. Kubisten artean leku bat lortuz. Baina, 1914-1918.go guda kabanatzen ditu Parisko artistak. Horia asko Espainiara bueltatzen dira eta R. Mez de la Sernak antolatzen du Madril lehengo kubista erakusketa, Maria Blanchard-ek parte hartzen duelarik... Oso erakusketa polemikoa izan zen. Madrilgo kalariek harrera txar, mespregarri eta bultzatza eskaintzen diete... Kubismoa, errotzuen lana dela diote. Hala ere, Maria rrazki katedra lortu eta Salamankan klasikatzen ematen hasten da. Ez du denbora irauten. Garaiko artistik konbentzionalak itotzen du forma berrietako ikertza amorratua den Maria. Kaleko iseka ta



Maria Blanchard ikasle batekin.



E, begira sorgin hori!

SUPERMAN' HEROEAK ETA HONDAMENAK



"Ondoko 12 orduak 150 mila miloi peseta eta 600 bizitza kosta ditzakete. Gizon batek bakarrik aldera dezake".

- Rescate en el Mar del Norte.

- o -

- Superman II-aren estrenaldiak (bigarren aldeak inoiz hobeak diren ala ez alde batera utziko dugu oraingoz) heroeak gaurko gizartean jokatzeko duen eginkizuna berriro dakarkigu burura.

Heroe hauen irudiak zeuden Iparamerikako bahituak edo Poloniako marmorezko gizona izateak ez du botereak, bere interesak hobe defenditzeko, duen pertsona batzuk mitifikatzeko beharra aldatzen.

Zinemak, mitoen sortzailea berez eta gizarte bakoitzaren eskemen isla, ezin du eta ez du kondairan, literaturan edo komikietan sortu diren heroen bizitza pantailara transkribitzeko aukera galdu nahi, jendearen harreka eta inbertsioa nolabait segurtatuak baitaude.

Cid, Aragoiko Agustina, Ben Hur, Ivanhoe edo Superman, Kasu ezberdinak izan arren, mito edo heroe irudian bihurtu dira.

Erreal edo fikziozko pertsonaia hauen inguru mitikoa oso urrutu gelditzen zaionez jendeari, sistema, zinemaren bidez, behartua dago heroizitate hau kaleko errealitateari eta eguneroko bizitzari lotzera, beste mito horiek zailegi direnez imitatzen. Hortik bide bikoitz bat sortzen da: Alde batetik, gizon eredu, self made man, bera bakarrik, bere ahaleginei esker, egin den gizona, eta hau dena agertzen duen zinema. (Emakumearen eginkizuna, ikuspegi honi dago-kionez, beste bat da eta horregatik ez da eskema honetan sartzen). Ideologi honen asmoa denontzat abiapuntu berdina dardela adieraztea datza, horrek Ipar Amerikako "paradisua" frogatzen baitu. Bestela, Reaganak esan dezala...

Bestetik, azken bolada honetan, G. Seatonen "Aeropuerto" filmaz sasi-apolitiko eta bere helburu nagusia denbora pasatzea den hondamenen zinema saila sortzen da. Zinema moeta hau ia beti munduko ekonomia-egoera larri baten inguruan sortu da. Pentsa dezagun, alegia, 30. urteetan "King Kong", "Freaks", edo "Dracula" bezelako filmak agertu zirela, ikuslegoari bere egoera prolematikoa ahatz-erazterko, beste arrazoin batzuen artean.

Baina filme hauek mezu garbi bat dute

(azken boladakoei berez mintzatzen ari naiz): Gizarteak teknikoen beharra duela frogatzea, eta beste guztien menpekotasunaren egokitasuna.

Har dezagun, orduan, oraingo sailaren edozein filme bat (Aeropuerto - Terremoto - El coloso en llamas - La aventura del Poseidón - Rescate en el mar del Norte...) Beti dago espazio itxi bat (etxe bat, hegazkin bat, itsasontzi bat) eta ihes egiteko ezintasun fisiko bat hondamena gertatzen denean.

Jendeak, gatazka hori gainditzeko edo soluzionatzeko dagoen funtzionapen sistema ez du ezagutzen. Beraz, ez da inoiz lagunartekotasunik sortzen. Bakoitza bere burua salbatzen saiatuko da, eta ez gertara hori gainditzeko, kolektibitate bat bezala.

Zentzu honetan berpiztu da zinemaren Superman mitoa, hondamenen zinemaren ordezkotzat, jendea honetaz nahiko aspertuta baitzegoen. (Ezin dugu ahantzi 48. eta 50. urteetan eramana izan zela zinemara ere historia hau, gerlondoa zela eta). Baina eskema bera da:

1.- Komunitate bat: E.E.B.B. munduaren lehen eredu eta sinbolotzat. (Ikus dezagun bestela hiru kryptoniarrek USA-ko lehen-dakaria eskuetan dutenean mundu osoa bereganatu dutela garbi azaltzen dela).

2.- Mundua salba dezaken gizon bakarra, Superman, nahiz eta horretarako bere giza irudia eta maitasuna ukatu behar.

Azkenean, Superman, Paris terrorismoaren hatzparretarik salbatu eta USA-n Kryptoniarrei irabazi ondoren, Etxe Zuriara itzultzen da, Estatu Batuetako bandera uhinduz. Umeak txaloka hasten dira eta norbera hori ere etrorismoaren apologia izanen ote den edo ez pentsatzen hasten da. Zer ez luke kritikak esan, beste bandera bat izanen balitz...

Engranaia honetan, Richard Lesterrek ("The Knack"; "Qué noche la de aquel día"; "Help"; "Golf de Roma...") oso humore fina erabiltzen du filmean zehar, baina manipulazioa edo ez, historia honek Costa Gavras edo Rosiren filme "politikoen" mezua gainditzeko lortzen du, nahiz eta beste norabide batetan.

Zalantzarik gabe, zinema politiko kontzeptua berraztertu beharko genuke.

Xabier Portugal

HARD-en NA

nak berriro.. Salamankako atmosfera jasan ezin gertatzen zaio eta bere lanpostua utziz, Parisa bueltatzen da.

1920.urtean, "La Comulgante" delako koadroarekin, arrakasta izugarria ezagutzen du.

Kritikalariek, publikoak, martxanteek inaguratzeko dute.. Garai bikainena da hura Mariarentzat... Picasso, Braque, Apollinaire eta Sueziko Gustavo V-a ditu bere estudioko sarritako bisitariak.

Bere azken urteetan, konbertsio baten eraginez, katolizismora jotzen du eta 1932. Apirilak 5ean hiltzen da, "lore asko, lore asko" pintatu nahi dituela esanez. Berez, hilkarte, lanari ekiten jarraitu zuen eta bere koadro batzua ikus daitezke Santanderreko Municipal Museoan eta Madrilgo Arte Contemporáneo museoan...

Mariasun Landa



PERTSONAIA INPORTANTEEN HIZKERA

Hitza: idea bat adierazten duen soinua ala soinu multzoa. Definizio hau edozein hiztegitan topa daiteke eta mundu guztiak onartzen duela dirudi. Honetan oinarrituz pertsona genezake, bi, hiru edo lau hitz bata bestearen atzean ipiniz, gramatikazko legeak ondo gordez gero, zenbait idea ala idea osotu bat eman behar dutela, baina ez da beti horrela. Hau oso argi ikus daiteke gaurreguneko pertsonaia askoren hizkera aztertuz: kapaz dira ordu bat hitz egiten egoteko eta ezer ere ez esateko.

Honek, berez, ez luke inportantzia handiegirik izan behar, baina ba du, zeren gehienetan, zenbat eta esaldi ilunagoak esan hainbat eta inportantzia gehiago ematen zaiolako hori esan duen pertsonari. Adibide

gisa: zenbat aldiz entzun diezue politikoei "una fase transitoria coordinada" edo "gaurkotasun iraunkor orokorra" edo antzeko esaldiak?, eta zer?, zabal zabal gertzen dira eta jende asko liluratuta.

Ba dirudi, horrelako gauzak esaten dituenak asko dakiela eta orduak eta orduak pasatu dituela goi mailako liburuak irakurtzen hain lexiko aberatsa hartu ahal izateko. Baina ez. Horrelako esaldi HUTSAK esateko ez da behar gauza handirik, eta joko baten bidez demostratuko dut oraintxe.

Hemen azpian datorren laukian hiru hitzzerrenda datoz, bakoitza bere letrarekin: A, B eta C. Ba, multzo bakoitzeko hitz bat hartuz horrelako esaldi rinbonbante huts

bat izango duzue, hau da, $A + B + C$ konbinaketa eginez.

Adibidez, imagina zaitezte nobela batera kritika egitera zoaztela, eta **originalak** nahiz duzuela izan, ba, arestian aipatutako konbinaketa horietako bat eginez, esan zenezakete, "gaiak, **itxaropen egozgarri neurtua** adierazten duela". Zelako esaldia da? Beste kasu bat. Periodista batek, zure eritzia eskatzen dizu oraintsu gertatu den ekintza politiko irristakor batez, eta zure noski, por la tangente nahi duzu irten. Ba, arau berbera erabiliz, zera erantzun ahal dizu: "ekintza honek, **gaurkotasun laguntzaile sustraitua** eduki arren, **sendotasun hazberri bideratua** darama bere barruan", eta periodista ausarta bada, gure hienez, hori zerbait azaltzeko eskatuko du zue, eta orduan, zuk, $A + B + B + C$ multzoa eginez, lau hitzeko koktel mortel honekin erantzun ahal dizu era honetara: "egia esan, ez da erreza hitz gutxitan esatea, baina laburtuz, argi dagoena zera da: ekintza honek **higikortasun logiko urtegarri erdiratua** salatzen duela", eta periodista indiskretua, seko. Eta metodo honen lagunartean barre apur bat egiteko ere balioko luke, adibidez, zure lagunari zera esateko: "zure begi urdin horiek, **mugikortasun zizenki iradokitua** daukate". Hau erantzun ondoren, edo zure besoetara jaustean, da, edo ematen dizun belarrondokoa Cantabriasetan ere entzun egingo da.

Beraz, ikusten duzue hizkera aberatsa hontan ez dela hain gauza gatxa.

Eta oharxo bat amaitzeko. Azpiko laukian honetan agertzen diren zerrrenda bakoitzean 20 hitz dago, beraz, matematikazko fallatzen ez badute (eta gure Herri honetan edozer gerta daiteke) $A + B + C$ motako 8.000 konbinaketa egin daitezke, eta $A + B + B + C$ motakoak, ez dakit zenbat, hain zuzen eraino ez naiz heltzen.

A	B	C
Gaurkotasun	egozgarri	iradokitua
aurkerabide	laguntzaile	erdiratua
egokitasun	hazberri	bideratua
itxaropen	logiko	sustraitua
iragazkaitasun	urtugarri	neurtua
egitura	lantzaile	sistematizatua
higikortasun	automatikoki	tajutua
emankizun	zizenki	elkargarria
egitura	desorekagarri	positiboa
oharkera	bultzatzaile	orekatsua
ezarkuntza	iraunkor	funtzionala
jasapen	zuzentzaile	orokorra
finkotasun	berrindartzaile	ezin hobea
fase	hestuki	paraleloa
programaketa	eragingarri	onartgarria
gerotasun	jasotzaile	koordinatua
hurbiltze	erosoki	bilbatua
zalutasun	frogaezin	erabakia
betekizun	iragankor	moldatua
gehitze	sortzaile	zuzena

Estamos a su servicio para que Gane Más.



Abono de sueldos

El Servicio de Abono de Sueldos consiste en cobrar su sueldo a través de la Caja, evitando riesgos, disponiendo de la máxima comodidad en los cobros y pagos que tenga que efectuar, y disfrutando de muchas ventajas.

Soldaten Abonua

Soldaten Abonu-Zerbitzua honetan datza, alegia zeure soldata Kutxaren bidez kobratzen duzula, honela artiskuak baztertzin dituzularik, egin behar dituzun kobrantza eta ordainketetan erosotasunik haundiena duzularik, eta ondoko abantaila hauetaz baliatzen zarelarik.

111 Oficinas en Guipúzcoa

Primera ventaja: la comodidad que le supone poder resolver sus gestiones en cualquiera de nuestras sucursales.

111 Bulego Gipuzkoan

Gure sukurtsaletatik edozeinetan zure gestioak erabaki ahal izateak dakarkizun erosotasuna.

La red de Cajeros Automáticos más amplia de la provincia

Para realizar ingresos, retirar fondos, pedir talonario, solicitar extracto de cuenta, etc... tanto de día como de noche.

Probintziako Kutxazain Automatikoen sarerik hedatuena

Egunez nahiz gauetz, sarrerak egin, fondoak atera, taloi-liburuka eskatu, kontu-laburpena eskatu etab. egiteko.

Puntual información de sus operaciones

Zure eragiketaren orduko informazioa

Rapidez y seguridad

Bizkortasuna eta segurtasuna

Domiciliación de Ingresos y Pagos

En la Cuenta de Abono de Sueldos podrá domiciliar todos sus cobros: haberes, ingresos por transferencia, prestaciones del INSS e INSALUD tales como pensiones, accidentes, desempleo, etc... y efectuar cómodamente todos sus pagos: recibos de luz, agua, teléfono, gas, colegios, sociedades, contribuciones, impuestos, etcétera.

Sarrera eta Ordainketen helbideratzea

Soldaten Abonu-kontuan helbidera ditzakezu zeure kobrantza guztiak, (hartzekoak, transferentzia bidezko sarrerak, INSS eta INSALUDen laguntzak, adibidez pensioak, istripuak, desentregia, etab.; halaber, erosotasun guztiz egin ditzakezu zeure ordainketa guztiak, (argi, ur, telefono, gas, ikastetxe, sozietate, kontribuzio, zerga, etab. ordain-agiriak).

Tarjeta 6.000

Con la Tarjeta 6.000 podrá obtener dinero en efectivo en las 8.000 oficinas de las Cajas de Ahorros Confederadas y pagar sus compras en más de 300.000 establecimientos de todo tipo.

6.000 Txartela

6.000 Txartelaren bidez Aurrezki Kutxa Konfederatuetako 8.000 bulegotan dirua atera eta zeure erosketak 300.000 establezimendu baino gehiagotan ordaintzeko modua daukazu.

Auto 6.000

Para adquirir carburante y pagar otras prestaciones para su vehículo en cualquier estación de servicio, talleres, garajes, etc...

6.000 Autoa

6.000 Autoa taloien bidez, zeure ibilgailuarentzat erregaia eta beste zerbitzuak lor ditzakezu.

Credito Automático

Por el hecho de cobrar su sueldo a través de la Caja podrá obtener en el acto un CREDITO AUTOMATICO y acceder a cualquiera de los restantes créditos de la Caja.

Kreditu Automatikoa

Zeure soldata Kutxaren bidez kobratzeagatik, horregatik bakarrik KREDITU AUTOMATIKO bat berehala eta Kutxaren beste kreditu edozein lor ditzakezu.

AHORROCAP80

Ahorrocap

Mensualmente, sorteos exclusivos para quienes utilizan el Servicio de Abono de Sueldos.

Ahorrocap

Soldaten Abonu-Zerbitzua darabilentzat bakarrik egiten diren hileroko zozketak.

Obras Sociales y culturales

Instituto Oncológico, ASPACE —Servicio de diagnóstico e investigación de la parálisis cerebral—, Premios literarios para especialidades en euskera y castellano, Certámenes de pintura y escultura, ciclos de conferencias, proyecciones, etc.

Y para los jóvenes, nuestro Club

Juvenil, las Colonias Infantiles de Goyeneche y Ribavellosa, la Oficina de Jóvenes, Becas de estudio y la Ciudad Laboral Don Bosco, el Centro Cultural de Nazaret, los E.U.T.G., etc donde se imparten estudios para su formación profesional o universitaria.

Kultur eta Gizarte-Ekintzak

Instituto onkológikoa, Buruelbarrientzako ASPACEko diagnostikoa eta ikerketa-zerbitzua, Literatur Sariketarak sail berezitan euskaraz eta gaztelaniaz, Pintura eta eskultura-lehiaketak, hitzaldien, emankizunen ikastaroak, etab.

Eta zure serne-alabentzat, Gaztekoen Elkarte, Goienerxe eta Ribavellosa-ko Haur-udalekuak, Gazteen Elkarte, ikasketa-beka eta heziketa profesional edo unibertsitate-mailako ikasketak egiten diren "Don Bosco" Hiri Laborala, Nazaret Zentru Kulturala, G.U.T.I. etab. dauzkagu.



SERVICIO DE ABONO DE SUELDOS



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA
GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA

Zenbait komunikabidetan entzun edo irakurri genuen "Kilikilariak" apurtu egin zela subentziorik ezagatik. Baina ba dirudi, aipatutakoa egiazkoa izanik ere, beste funtsezko arrazoirik ba zegoela egon; hots, erizpide ezberdinak teatroari buruz: "batzuk jotzen genuen teatro euskaldunera, eta besteek nahiago zuten teatroan jarraitzea, bai, baina euskara kontutan hartu barik".

MASKARADA ANTZERKIA



"MASKARADA" joan den urteko Urrian sortzen da "Kilikilariak" sakabanatu zenean. "Kilikilariak" (Comicos de la Lengua) taldetik irteniko batzuk sortzen dute, era batean edo bestean kultura mailan mugitzen den beste jenderekin batera.

TEATROA EUSKARAZ

"Comicos-en azken obra biak euskaraz izan ziren, eta guk esperientzia hori bizi eta gero, teatroa euskaraz egitea posiblea zela uste genuen profesionala izateko, teatrotik bizitzeko. Eta horregatik sortu zen, neurri batetan behintzat, "Maskarada". Hutsune bat ikusten genuen euskara arloan, teatro euskaldun barruan. Teatroa euskara hutsunean egiten zuten profesionalik ez zegoen".

Beraiek esaten digutenez, ez da gauza erraza gaur egun antzerkia euskaraz egitea, zeren texturik eza nabaria omen da eta.



"Erdaraz ba zegoen teatro "majo" pila bat idatzita, baina euskaraz zegoen teatroa "amateur" zen. Gainera bi moetakoa duzu: bata nahiko kontserbadorea, betikoa, eta bestea nahiko "gorria". Eta guk ez genuen nahi, ez bata ez bestea, beste gauza berri bat baizik. Orduan Atxagarekin hasi ginen harremanetan, lehendik ezaguna baikenuen Comicoserako lan batzu egin zituelako. Beraz egokiena eta ingurukoena bera zela uste izan genuen".

"Maskarada" k egin nahi duen lana hiru arlotan finka daitekela diote: umeentzako teatroa, kalekoa eta irakaskintza.

HAUR TEATROA

Lehen sailean kokatzen da, noski, "Jimmy Pottolo eta Zapataria" obra. Eskolaurreko umeentzat burutua dena. Nik ikastola batetan ikusi nuen eta oso inpresio ona egin zidan. Kolorez bete iruditu zitzaidan, eta benetako aktoreak txontxongiloekin nahastean, bizitasun berezia agertzen da. Haurra gainera, ez da ikusle pasibo bat, partaide aktibo baizik. Askotan elkarrizketa sortarazten dute aktore eta umeen artean, eta Afrikarako bidaian, adibidez, ume batzu ere sartzen dira itsasuntzian.

Antzezleen lana, bestalde, on ona da bai ahotsaren aldetik, bai gorputz adierazpenetik. Musika J.C. Perez (Itoiz) ena da.

"Beste obra bat ari gara prestatzen, "Logala zeukan trapezistaren kasoa". Nahiz ete eskolaurrekoek ikusi ahal izan, obra hau haundiagoxeentzat da 7-12 urte artekoentzat.

Obra biak "Mari Zorakeri señoitaren istorio harrigarriak" izenburu generikodun serie barruan sartzen dira. Sail honen barnean obra pila bat egingo dugu. Maria Zorakeri pertsonaia ipuin guztietan agertuko da, izen ezberdinez bada ere".

"Teatroarekin umeak bere irudimena bultzatzen du, bere sormena haunditzen, eta beraren gorputzak ematen dion adierazkortasuna ezagutzen. Honela berarentzat joku bat izan dena esperientzia, sentimendu eta problemen elkar aldaketa bihurtzen da".

KALE TEATROA

"Maskarada" ren lanaren bigarren arloa kale teatroa da. Euskadin egin diren forma teatral eta parateatral guztiak ikertu nahi dituzte: pastoralak, xaribariak, toberak, ihauteriak...

"Euskal tradizio guzti hoiek kalean egin dira; euskal teatroaren oinarriak kalekoak izan dira beti. Gaur egun, nahiz eta barruko ospakizunak egon, jendea kalean biltzea da elkarrekin egoteko, jaietarako..."

Guk egin nahi dugun teatroa hitz gutxiakoa da, irudizkoa, eta hori oso egokia da kalerako. Gainera, aipaturiko tradizio honen forma batzu hartu gura ditugu, musika eta dantza alegia. Honetarako espezialista batzuren kolaborapena daukagu".

"Kontutan hartu behar duzu, gain era, euskaraz egiten dugula, eta ez dugula nahi gure teatroa literarioa izan dadila, irudimenezkoa baizik, eta hau barruan egiteko azpiegiturarik ez dago. Erdal kulturako jendea gutxi joaten da teatro barruetara; orduan, hori euskarara itzulita oraindik laburragoa egiten da, eta guk, profesional garenaz, ezin dugu jokatu. Antzokiko jabeak ere %50 ra edo eramaten du. Azken batean, nahiz eta jende asko etorri irabazia nahiko pobre izaten baitira.

Gure kale teatroko hurrengo obra, Lantzeko ihauterietan finkatutua egongo da Pertsonaien esanahia, motibazioa eta alegoria mantenduta, forma estetiko aldatu nahi dugu. Lehenengo, pertsonaia hoiekin kalejira egingo dugu, jende guztia plazara eramateko, eta gero hantxe esketz bat edo bi antzertu. Dramatizazio hauetan jendearekin sartuko gara, eta jendearekin eta jende artean eta jendearekin batera amaituko dugu.

IRAKASKINTZA

"Euskadi mailan eskola batzu daude. Distantziak zentro dramatikoak ere sortu berriak da. Gure asmoak hortik urrun dabilte uste dugu. Forma berriago batzuekin sartu nahi dugu, forma aurreratuak hartu. Adibidez, eskolan Euskadiño dantza batzu iraka-

tsi behar direla pentsatzen dugu. Era berean forma parateatralak ere; Pastoral bat zer den, zeintzun kosntante erabiltzen diren e. a. jakinik irten daitezela ikastaroetatik.

Hori alde batetik. Bestetik aktorea gertatzea: gorputz adierazpena, dantza organikoa, euskal dantza, interpretazioa, akrobaziak, ahotsa, psikodramak, mimoa, clown"

Eta bukatzeko betiko berbera esanbeharrean aurkitzen naiz, penagarria dela holako lanak askotan, gehiegitan, asmo hutsetan gelditzen direla laguntza ofizialik ezagatik. Beraz, ikastolek ez badaukate nahiko diru, hainbeste ez bada ere, holako taldeak kontratatzeko, egin dezatela Udaletxeek, baina lana behar dute teatro taldeek aurrera jotzeko. Euskal Gobernuko Kultur Sailaren subentzioaren bat ere ez litzaieke sobraz egongo.

Orain arte bi lekutan daramatzate kurtsi-
loak, Bilbo zaharreko antzerkitailerrean eta Txurdinagako Institutoan (femenino delakoan). Honetatik aparte, asteburuko ikastaldiak ere ematen dituzte hauzo eta herrietan.

- Hau guzti honez gainera, ba dago proiektu aipagarri gehiagorik?

"Ba bai, Jon Intxaustegiren gidaritzapean telebistarako programa bat egiten gaudela. "Maskarada" taldeak "Jimmy Pottolo..." obrarekin, telebistarako bertsioa nolabait desberdina izango delarik, eta gurekin batera Mikel Laboa, Xabier Lete, J.C. Egillor

eta Lurdes Iriondo. Hau serie batetarako programa pilotoa izango da".

Eta bukatzeko betiko berbera esanbeharrean aurkitzen naiz, penagarria dela holako lanak askotan, gehiegitan, asmo hutsetan gelditzen direla laguntza ofizialik ezagatik. Beraz, ikastolek ez badaukate nahiko diru, hainbeste ez bada ere, holako taldeak kontratatzeko, egin dezatela Udaletxeek, baina lana behar dute teatro taldeek aurrera jotzeko. Euskal Gobernuko Kultur Sailaren subentzioaren bat ere ez litzaieke sobraz egongo.

tratatzeko, egin dezatela Udaletxeek, baina lana behar dute teatro taldeek aurrera jotzeko. Euskal Gobernuko Kultur Sailaren subentzioaren bat ere ez litzaieke sobraz egongo.

Norbaitek "Maskarada"koekin harremanetan sartu nahi badu, hona hemen helbidea eta telefonoak:

MASKARADA
BILBO-GALDAKAO errepidea
BOLUETA, BILBO
Tlf. 411 30 11 (bulegoa)
443 72 99 (21/2etatik-3 1/2etara)

I.A.



Teatroarekin umeak irudimena bultzatzen du, bere sormena handitzen eta beraren gorputzak ematen dion adierazkortsuna ezagutzen.

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

hiruhilabetero
Zenbaki bikoitzaren gai
nagusia:

ARABA
erakunde foralak
nekazaritza
industrigintza
demografia
euskara
ikastolak
euskalduntzea
euskal idazleak
historia politikoa

Santutxuko
bertsolari-eskola

Errepresiotik
gera zibilera?

1980ko euskal liburuak

500 pta. ale bikoitz hau
1.100 pta. urteko harpidetza

Eskabideak eta harpidetza:
Ategorrieta hiribidea, 23,1. esk.
Donostia-13
Tel. (943) 27 17 13

"MUGA"RI ERANTZUNEZ

MUGA aldizkariak euskararen egoera hartu du gai nagusitzat ("El euskera, patrimonio colectivo") bere 13. alean, (1981 ko Otsailekoa). Eta hizkuntzari buruzko iritziak biltzekotan, hiru jaun hauek hautatu ditu: Mitxelena, Caro Baroja eta Oteiza.

Bertan ematen diren ideiak, euskararen aldeko borroka zailean kaltegarri izan daitezkeelakoan, "EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ"ek ondoko puntu hauek jakin eraztea erabaki du:

1 - Euskara erabat baztertuta duen MUGA aldizkariak, nekez eman dezake baliozko iritzirik arazo honetaz; euskara behin eta berriz zapuztu, eta euskal idazle ziren batzuek erdarara behartzea baizik ez baitu gaur arte lortu.

2 - Era berean, oraindik ere euskaraz hitz egiteko gauza ez diren oriotar eta beratar bitxi horiek, nekez esan dezakete ezer onik beren praxi erdaltzale eta negargarri horren ondoren.

3 - Oztopo guztiak gaudituz eraiki diren ikastolek, eta bertan lan egiten duten andereño eta irakasleek, errespetua eta laguntza merezi dituzte; eta ez irain nazkagarririk. Hots, Oteizaren ustez, andereñoen lana "atontar niños en la ikastola" omen da. Hori esanez, euskararen etsaien artean jarri du Oteizak bere burua; oso minki 2.000 irakasle eta 60.000 ikasle zapuztuz.

4 - Nafarroa-ko egoeraz, bestalde, berri faltsuak eman ditu Caro Barojak: "Hace ya bastantes años que en la zona Norte de Navarra se enseña vasco", dio Carok. Gure galdera hau da: zein herritan, zein mailatan, eta zenbat haurri?

5 - Caro Baroja-ren ustez, bestalde, "la situación es grave y compleja"; eta "hay que evitar posibles discriminaciones y segregaciones". Nor dago, ordea, gaur eta betidanik, diskriminatua eta baztertuta: euskalduna ala erdalduna?

6 - "Si el vasco ha de rehacerse —beti Caro Baroja mintzo— serán en primer lugar los que lo hablan hoy los que tendrán que esforzarse como artistas creadoras en esa tarea". Harritu egin gaitu, zinez, Caro-ren mailako jakintsu batek, arazo soziolinguistikoa bat konpontzekotan, bide borondateko hori proposatzeak. Ez da horrelakorik inon eta inoiz proposatu, hain zuzen; eta beren

hizkuntzaz jabetu diren herriek bestela jokatu dute gaur arte.

7 - Mitxelena erabat beste bien zaku berean sartzea ezinezkoa izanik ere, euskarari buruz Mitxelenak egin duen iker-lanik gehien gehiena erdaraz egin du. Baita Euskaltzaindiaren barruan ere. Mitxelenak, beraz, aspaldiko "apologistek" bezala, euskara baztertuz egin du euskarari buruzko bere lana.

8 - Mitxelenak guri buruz presentatu duen oposizioa ez da egia. Berak "plan gradual" bat eskatzen du, "de manera política e inteligente" eramana, eta abar; eta gu, aldiz, honela aurkeztu gaitu: "esa monomanía de los pintadores y despintadores de rótulos. Y quisiera decir de paso que operaciones com éstas no conducen a nada más que a asquear a todo el mundo". Hots, **pintaketa-lanez gain**, EHE-ek "plangintzak" eskatu ditu behin eta berriz. Baina **plangintza zehatz** horien zai gaude oraindik, maila guztietan; eta euskararen suntsiera aurrera doa, begi-bistan dagoen bezala.

9 - Mitxelenak gure ekintzen okerra salatzen du. Baina Fraitziako eta Espainiako gobernuek maila guztietan euskara hiltzeko daramaten plangintza orokor eta nabarmen horren kontra, txintik ez du ateratzen. Gu ongi dakigu ez dela Mitxelena gure hizkuntzaren etsai nagusia; baina, alderantziz, gu bide gara euskararen arrisku nagusia Mitxelena-ren eta MUGA-ren eritziz. Eta bista labur hau ez dugu ulertzen.

10 - Era berean, ez da oso bidezkoa euskara Unibertsitatean sartzeko egiten diren ahaleginak kritikatzeko, eta erdara hutsez egiten den mundu oso horren kontra ez esatea: "el hecho de que el señor tal o cual imparta una determinada asignatura en euskera en la Universidad, no tiene la importancia inmediata que algunos se creen. Bueno, en euskera, o en algo que se parece al euskera; y digo esto porque leery oír ciertas cosas en euskera hace caer el alma a los pies". Unibertsitateetan, UZEH-tan, Udako Unibertsitatean, egiten den zaila eta eskergabea horrela tratatzea, lotsagarria iruditzen zaigu.

11 - Azken ohar bat, bukatzeko: "yo creo —dio Mitxelenak beste mementu batez— que los irlandeses admiran en nosotros que en círculos familiares y en la calle el euskera sea hablado. Y aunque este método parezca un tanto tradicionalista, "lege zaharrekoa" y tal, a eso nos tenemos que aferrar con todas nuestras fuerzas". Hots, EHE-en ari garenok, euskal telebista eta euskal irratia eskatzen badugu ere, euskal errokulazioa eskatzen badugu ere, udal-txeetako zerbitzuetan euskaraz mintzatzeko eskubidea eskatzen badugu ere, geure artean eta geure adiskide eta famili giroetan, euskaraz baizik ez dugu egiten. Areago, "euskera coloquial" hori indartzekotan hain zuzen, biltokiak eraikitzen hasiak baizik Euskal Herrian barrena. Oso zalantza handiak ditugu, hain zuzen, euskara ez ote den MUGA-ko gehienentzat "lengua heráldica" famatu hori: alegia, egiazko bizirik at, eta arrotzak harritzeko, folklore bihurturik jendo ikergai bikain ere bai, zenbaitentzat), hiltzen denera bat.



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-
Mahaia Nagusiala

Altsasun, 1981 ko Martxoaren 21 an.

HIZTEGIA-80

ERABILTZEKO DEN TRESNA BAT

Beharbada, hiztegi hau aspaldi samar agertua delarik, baten batek berandu erit-ziko dio orain kritika egiteari. Hala ere, ezer kritikatzeko alde aurretik ezagutu beharra dago eta hiztegi baten kasuan erabili beharra. Lauzpabost hilabetetako erabileraren ondoren, nolabaiteko aipamen edo kritika egitea komeni dela derit-zot. Hastera noa beraz.

Lehenik eta behin, hiztegi hau beste hiztegi baten eboluzioaren fruitua dela ja-kin behar da. Duela hiruzpalau urte "Eus-kal Hiztegi Modernoa" izenburupean eta "Irakasle talde batek" egin kalera-tu zen. Oraingoan, izen-aldaketa batzure-kin, "Hiztegia-80" da eta egilea, "Ekite-n taldea"; nahiz eta izenen bat desagertu den (J. Tobar), azken batez talde berbera dela esan dezakegu.

ZENBAIT AURRERAPAUO

Bigarren belaunaldiko hiztegi honek, ba ditu zenbait abantaila eta urrerapauso aurrekoarekin konparatuz. Aipa ditzagun horrelako batzu:

— Hitz-kopuruari dagokionez zabala-go da. Hitz gehiago eta aukeratuagoak sartu dira. Honetan kontutan hartu dira azken urteotako lanak eta berrikuntzak, hala nola U.E.U.n argitaraturiko zenbait li-buru edo eta U.Z.E.I.ren hiztegi-gintza.

— Ortografiari buruz ere egoki jokatu dutela uste dut. Hitz internazionalen idaz-keraz gaur egun nagusi (ia bakarra) den bidea harturik, Bergarako Biltzarrean Eus-kaltzaindiak transkripzioarako adierazitako erizpideen arauera jokatu dute, **ph, th, kh, y**, eta antzeko grafiak baztertuz. Bes-talde, egileak ez daude ados, **h**, letrari bu-ruz hartu diren azken erabakiekin, eta be-ren hitzez "hori dela eta, inoiz urak be-ren hibaira bihurtuko direlakoan, obe-dituz baina ez kunplituz, parentesi ar-tean utzi ditugu horrelako hitzen h-ak, irakurleak zeintzu diren jakin de-zan" Nik neuk zuzen deritzot jokabide horri.

— Hiztegian erabiltzen den letra-mota eta aurkezte-modua ere oso egokia dela uste dut. Bistarako askoz ere atseginagoa, hiz-kiak oso garbi irakurtzeko modukoak. Horretan asko aurreratu da.

— Irudiekin horniturik dauden orrialdeak egoki ikusten ditut. Dena den, eskola ikastoletarako gehitu egin beharko lirate-ke, benetako hiztegi grafiko batetarantz abiatzeko. Alde horretatik bide erdian gel-ditu direla esango nuke, nahiz eta lehen urratsa izan daitekeela ikusi.

ZENBAIT HUTSUNE EDO ATAL ZA-LANTZAGARRI

Dena ez baita arrosa kolorekoa izango, ondo bide dator hutsune batzu ere aipa-tzea.

— Ene ustez, hitzen erabilera adierazteko adibide gutxi daude; edo nahiago badu-zue, adibide gehiago eta zalantza-izpirik egon daitekeen kasu guztietan ipini behar direla uste dut. Arazo hau argiago ikusten da aditzen kasuan. Zein eratan jokatu behar dira? Egia esan, zenbait kasutan jartzen da, baina, ene ustez, kasu guz-tietan ipini behar da. Bestela, aditz ezeza-gun bat hartzean zalantzak daude NOR, NOR-NORI edo zer eratakoa den jakiteko. Demagun, adibidez, **jolastu, jostatu, jo-katu** hirukotea. Nola erabili behar dira?

— Antzeko zerbait diot hitzen maila gra-

matikalari buruz, horrek erabilera kondi-zionatzen baitu. Adibidez, zer da **ugari** zhitza? Adjetiboa, adberbioa ala zer?

Tira! Beharbada eskaintzen ez duen gauza bat eskatzen ari natzaio hiztegi ho-ni, alegia, hiztegi arauemailea izatea. Egi-leek barkatuko nautela uste dut, segur as-ko berek ere problema berbera dutelako-an bainago.

Erabilgarritasunari dagokionez, bestal-de, nik neuk zalantzak ditut koloretako orri-er buruz. Praktikan euskal eta erdal parteak banatzeko muga bezala jokatzan dute beren papera, baina hango esaldi gutxi batzu praktiko ikusi arren, gehienak alferrik daudela esango nuke, zereginik ez daukagun momentu batetan denborapasa ibiltzeko ez bada behintzat. Nik neuk ere horrelako zerbait egin dut, kuriositatez batez ere, eta hango hitzek zerbaiterako balio dezaketela ikusteko, hona hemen ni-re **mea culpa. Alea jacta est.**

EUSKARA HUTSEZKOA NOIZKO?

Hiztegi arauemailea aipatzean, neure kezka bat agertu dut. Noizko euskara hut-sezko hiztegi erabilgarria? Oraindik ez ote da hiztegi horren fruitua heldu?

Ba dakit, duela hiruzpalau urte I. Sara-sola horrelako zerbait prestatzen hasi ze-la. Ez dakit zer martxa daraman momentu honetan. UZEIk ere euskaraz prestatu ditu bere hiztegi teknikoak.

Agian Euskaltzaindiak ba dauka zeresan-ik arlo horretan, Espainiako Akade-miaren antzera.

Gauza bat diot: Ni neu horrelako hiztegi zabal baten premia sentitzen ari naiz, gero eta larriago. Hiztegi ia exhaustiboa nahi nuke, etengabe zerranda berriekin osotuz joateko, UZEIren fitxategiaren modura. Horrelako lan bat posibletuko duen az-piegitura eginez doa. Projektua bideratze-ko, dirua beharko da noski, eta lanerako talde bat. Talde hori osa dezaketena-ko direla uste dut; eta bestela, azken urteota-ko hiztegi-gintza ikus. Udaberriari sartu garelarik, noiz etorriko da udako eguzkia, fruitu hori heltzeko?





SORTUKO AL DA GIZAKIEN DETEKZIORAKO ZERBITZU BAT?

Haurregoztearen (1) kontrakoek, beren argumentoak ezartzerakoan, obulua espermatozoidearekin batzen den momentutik gizaki bat dagoela esatea dute nukleo oinarritzotzat. Gainerakoa zalaparta egin eta argumento hau apaintzea hunkigarritasunari (2) joz besterik ez da. Honelatan, "utz ezazue bizitzen", "ez erhan" eta antzeko ezaldiak entzungo ditugu; denek propietate bat dutelarik: garuna kamustea (3) kezko oihal bat zabalduz arrazoiaren aurrean eta honelaxe asasinatua (?) izan daitekeen delako sujetuari buruzko arrazonomendu lasai bat galeraziz.

Ernalkuntzaren (4) zein momentutik uste dute haurregoztearen aurkakoek jadanik hitz egin daitekeela gizaki (5) bat erhan izateaz? Lengoaia klerikalez esanda: zein unetan Jainkoak sortzen eta ezartzen dio arima kreaturari?

a) Espermatozoidea obulura iristean eta beronen mintzari (6) itsatsia geratzen denean.

b) Xede honetarakoxe zuzenduriko espermatozoidearen parte barneratu denean.

Egoera biotan indibiduo ezberdin biri dagozkien bi programa genetiko daude, eta jadanik gizaki baten existentzia onartzea, isurketa (7) bakoitzean jaurtikitzen diren milioika espermatozoideak gizakiak direla edo eta emakume batek bere barnean larogei bat mila gizaki dauzkala obulu eran pausatutik esatea bezainbestekoa da. Baina naturak diosku ez dugula negar egin behar hilerokoaren (8) bitartean obulu bat iraitzia (9) izan denean gero bainugelako komunean bukatzeko. Suposa dezagun espermatozoidearen parte "intruso"ak patxadaz itxaroten duela obuluko huna espermatozoidearenarekin nahasteko tenorean dagoen arte eta azkenean ama —eta aitagandiko kromosoma— konglomeratu bat dugula. Zelula diploide hau gizaki bat dea dagoeneko? Baietz esaten dutenek, **gizakien detekziorako** zerbitzu bat bultzatu beharko luke-

te, zeini emango balitzaioke hain gizatiarra eta aldi berean neketsua den eginkizuna: emakume ororen, sexu harremanik ez dezan arren, hileroko ziklo bakoitzaren muestrak hartzea eta analizatzea. Emakume "ororen" diot, ezen izan bailitezke partenogenesi kasuak, zeinetan arraren parte hartzerik gabe (uler bedi espermatozoideen interbentzio barik) obulua zatikatzen hasten baita zenbait umeki-fasetara (10) helduz (A)

Hileroko determinatu batetan gizaki bat egotzi izango zuten emakueek, erazko lurremateak (mezak, hiletak eta okasio honetan beharrezko izango litzatekeena) antolatuko zituzten. Ez da ironizatu nahi, baizik eta gauza oso simple bat azpimarkatu: **OSO LUZEA DA ZELULA DIPLOIDE HORREN BIDEA GIZAKI IZATERA HELDU ARTE.**

Arrautz zelularen urratsei jarraituz 30 bat orduren burura lehen zatiketa gertatzen dela ikusteraz dezakegu. Orain bi alaba-zelula dauzkagu, arrautz zelularen zatiketarik sortuak. Zelulabiko izaki baten aurrean gauden ala bi gizaki zelulabakarren aurrean? Experimentalki frogaturik egonik zelula bakoitzak umeki-bilakaera (II) independente bat ukan dezan zuzendurik izan daitekeela, fededunak aurrerantzen bi aukerabide izango dituzte: gizaki bakar bat bilaka dadila utzi edo bi gizakiren jaiotzea posibilitatu (arima primitiboa bi alaba-arimaten erdibitzen da experimentatzailearen esku-sartzeari esker?)

Gure zelulabiko protagonista Falopio-ren tronpetan dago, haitzuko iluna zeinetan barna irrist egingo baitu umetokira (12) heldu arte. Aurrerantzen duen bitartean, ugaldutik egingo da, zelula-masa bat (morula) eratuz. Morula izendatzen dugun zelula-biltze hau gizatiarra balitz, bi nahiz gizaki gehiagorekin (bi morula zein gehiago) hasiz bakar bat lor genezake. Hartarako nahikoa dateke morula ezberdinak bakar batetan batzeaz. Mintz-ek bere esperientzietan larruzal-kolore ezberdindun saguen bi morula fusiona-

tzen zituen eta morula bat lortzen zuten zeinetatik, umeki-bilakaera normal batetik ondoren, larruzala kolore ezberdinetatik zuten sagu bat sortzen baitzen; hain zuzen ere batu zireneko morulei zegozkien koloreekin (B).

Prozesu osoa alferrekoa litzateke gure gizaki berezia umetokian ezarri ez balitz. Errealitate naturalerik arrautzetatik lauren bat hiltzeko delako bilakaera-fase ezberdinetan tutuzko bitartean bitartean kalkulatu da. (C).

Nahigabeko umegaltzen hauek hain murriztuta gertatzen direnez gero, eta Naturak abisatu gabe gizakia komunitate bota ez ditzan erabakitzeko, beharrezkoa egiten da GIZAKIEN DETEKZIORAKO ZERBITZUA. Zerbitzu honen kolaboratzeko, beharrezkoa litzateke muestra salatzaileak dituzketen tampanekin gertatzea.

Gure protagonista metokiaren ormentan ezartzen diren zoritsuen talde estadistikoaren barnean egonik ere (60%-tik 65%-era) oraindik ez du bere etorkizuna argituta; baina karrik umetokian habitu zirenetik 58% dirau bigarren astean. Hurrengo asteetan naturak berezko umegaltzeak errazten jarraitu iraike alhaldu, eta honi erantzen badioguz umegai anormalen portzentia (ez hain txikia), espermatozoideen aurrean agertu diren obuluetatik 42%-ak bakarrik bizirik iraun eta jaiotzeraino transformazio luze bidea zeharkatu duela aterako dugu (D).

Beldur gara Gizakien Detekziorako Zerbitzua ez ote den lanaz saturaturik egongo zuzen eta umegaiaren tamaina, hasteko mikroskopikoa baita eta bakarrik hiru hilek beteren burura erdiesten ditu 10 zentimetroak; zeinengatik umegaltzea eta, bereziki, gizaki baten galtzea oharkabeki gertatzen baita edozein emakumerentzat. Berhain, ez da ezagutzen iraitzirik umegaiak gizakien duen ezein zibilizaziorik (ezta mendebaldeko katolikoa ere). Berezko umegaltze hau gertatzen direnean, ez dago dolore-martxan festapenik, ez dira hiletak antolatzen hildakoen pertsonaren (?) faborez. Erabateko gudiaketa antropologiko honek erakusten du egonero praxian, erditzen diren emakumeek ba dakitela bereizten gizaki jaiotzeko berriaren lehenengo irri eta negarraldiak eta umegaiak, bere bilakaera-egoera ezberdinetan. Egoera hauotan umegai arrain, anfibio, narrasti (13) nahiz ugaztuna (14) bezalako identifikatu litekeelako suzesiboki gizaki propio kontsideratua bezala baino gehiago (15)

Apezpikuaren zein momentuan momentu...

tuzko ideologoaren diskurtsoa argudio metafisikoetan oinarritzen da, zeinek obulutik gizakirainoko aldaketa kualitatiboak bazter-tzen dituan mekanizismo sinplista "konplementatzen" baitute.

Oso normala da aurkitzea pertsona berbererengan, txanpon baten bi aurpegi bezala, ideia metafisikoak eta mekanizistak: "bizipneuma" batek, edo "arimak", zuzentzen du umeki-prozesu lineal bat. Esentziala materia eratuz doan arima bat da.

Ontogeniak bilakaera dialektikoa bezala ikusita, bere kualitatezko jauzi ezberdinekin, azken maila arras berezi batetan amaitzen du. Maila honetan umekia gaitzen da gizateriaren kultur heredentzia osotzen duten ingurugiroko eragingarriak hartzeko eta grabatzeko. Umekia garun-neuronak giza kultura "programatzeko" gauzaturik daudenean hasten da gizatiartzen (gizatiartze-prozesua) orduan funtsezko interakzio neuronalak sortuz (F).

Hominidoa Homo sapiens izateraino bilakatzu joan zen; ez bakarrik biologi aldarazpenengatik, baizik eta gurasoek umeei transmititzen zizkieten (zentzu eragingarrien bidez) kultur ereduengatik ere, gero eta konplexuagoak. Laburki, gizatiartze-

prozesuaren errekapitulazio bat egiten dugu; mundura jaiotzea giza espeziaren kultur giroarekin kontaktatzen dugun momentutik.

- 1) Aborto
- 2) Emotibidad
- 3) Embotar
- 4) Fecundación
- 5) Ser humano
- 6) Menkara
- 7) Penetración
- 8) Reglas
- 9) Expulsado
- 10) Fase fetal
- 11) Desarrollo fetal
- 12) Matriz
- 13) Reptil
- 14) Mamífero

OHARRAK:

(A) "Further studies on the activation of rabbit eggs" Pincus eta Shapiro. Proc. Amer. phil. Soc. 83,631-647.orr, 1940.

Untxemeen sabeletik erauziriko arrautzekin egindako esperientzien agerpena. Arrautzek shock hotz baten bidez enbrigenesia hasten dute, orduan untxemearen sabelera eramanda izanik. Oraingo ez dira argitaratu gizakiengan egirikako esperientzien ondorioak, baina untxiaren kasuan bezain positiboak izan daitezke.

(B) "L'embryologie". Jean-Claude Seetschen. Que sait-je? bilduma, 68.zenbakia, 82-83.orr, Presses Universit. de France, 1974.

(C) "Embryologie humaine". M.D. Alnot. Edition Medical et Universitaire.

(D) "Embriología médica" J.Langman, Ed. Interamericana, Madrid, 1977. Hertig-ek obserbatuturiko emakume talde handi batetan umekibilakaerari eta umegaltze naturlai buruko datu estadistikoak ematen dira.

(E) "Historia de la revolución humana". "Los enigmas del universo". Lan hauetan E. Haeckel-en (1734-1819) ideiarik ezagutuenak agertzen dira: filogenia, era organikoan bilakaera-prozesu historikoa, elkarren segidan gertatzen diren zenbait ontogeniaz osatzen da eta, alderantz, ontogenia (indibiduo baten bilakaera) bakoitza filogeniaren produktua da eta ezin daiteke osokiro ezagut haren erakuntzaren historia ezagutzen ez bada.

(F) "Psychical control of the mind" J.M. Rodríguez Delgado. Harper and Row ed., 1969. Rodríguez Delgado irakasleak dioenez, jaiotzearen momentuan izaki berria gizaki posible bat besterik ez da, ez baitauka garun-azal sofistikatu bat, zein hain zuzen ere lehenengo hiru urteetan bilakatuko baita, nik "gizatiartze-prozesu" izendatzen dudana burutzea posibilitatzen duten kanpoko zenbait eragingarri esker.

AUZMENDI



SASTRE-VERGARA I.
DOMOSTIAKO ESTILOA.

BIZI DEZAGUN EUSKARA

Hizkuntza guztietan gauza bat da idaztea eta beste bat ahozkatzea. Arazo hau munduko hizkuntza guztietan gertatzen den fenomeno bat da. Kausak, batzutan ezberdinak izanik, ematen den fenomenologia antzekoa da eta horretarako fonetikari loturik doakion hainbat arau gertatzen da. Idazkera beti korapilotsuago gertatuko zaigu, hizkuntza idatziak hizkuntza beraren historiari lotuago baitago eta hizkuntza idatziaren bidez, sarri askotan, jatorria nondik etorri zaigun jakin dezakegu. Hizkuntza normalizatzerantz bultzatzen duen araurik gabe nahaste berraste handia sortu baino ez genuke egingo. Euskararen kasuan, orain gutxirarte batasunik gabekoa, gutxitan idatzia eta garapen txikikoa, eman den batasun bakarra —IDAZTEAN— izandakoa da, soinua eta ahozkatzea gerorako utziz. Hala ere, komunikabiderik ezean, batasun fonetikoaren arazoa handiagotuz doa eta problemak alde guztietatik sortzen dira. Erabakitzeotan, beste batzuk egin behar ko lukete Euskal Herriaren tradizioak, soinuak eta ahozkatzeak kontutan harturik. Nolabaina badirudi gauza askotan batasun hori ematen ari dela eta eman behar dela, erdararen presioarengatik "batueraz" hitzegiten dutenek Bilboko erdaraz ari direla askotxotan ematen baitu. Eta hau oso larria da, zoritxarrez kasu askotan ezinbestekoa, hizkuntza edo hizkera bat bere soinu eta ahozkatze bereziari loturik baitoa. Ezin gorde daitezke ahozkatzean Lapurdiko arau fonetikoak, berarekin batera lapurtarren soinua gordetzen ez bada. Ezin egin daiteke bizkaieraz Ziberoako doinuarekin. Hizkerak eta hizkuntzak eremu itxi bat osatzen dute. Arazo hauekosatzea konponezinezkoak direla ematen badu ere, ikastoletan gau eskoletan eta baita ere egin ziren euskal telebistarako saioetan arau simple batzu gero eta kontu handiagotuz hartzen ari dira. Ikus ditzagun beraz halako batzu:

IDAZTEAN	AHOZKATZEAN IRAKURTZEAN	ZILEGITZAT
(1) I + N = N Baina, arraina, labaina, gainera, baino, doinua, gaztaina, laino, etab.	I + N = N Baña, arraña, labaña gañera, baño, doñua, gaztaña, laño.	Lapurdiko eta Nafarroako hizkera batzutan (ñ) hau(n) ahozkatzen da.
I + L = LL Sarraila, muraila, oilo, hilabetea, ilun larramiloa, piloa, biluzik, etab.	I + L = LL Sarralla, muralla, olloa, hillabetea illun, larramilloa pilloa, billuzik	Hizkera batzutan (L) ahozkatzen da baina ez beti hitz guztiekin.
Z + D = ZT (Aditz laguntzaileekin batez ere) Ez dut, ez duzue, ez dio, ez digute, ez doa, ez dakar, ez dugu, ez ditugu etab.	eztut, eztute, eztio, eztigute, eztoa, eztakar eztugu, eztitugu.	Doinua eta azentu toniko ez berdinak direla bide, kasu honetan ere (T) barik (D) gertatzen da leku batzutan. Zergatik? Pausa bat dago (Z) esan eta gero
(2) Z + B = ZP / S + D = SP Ez baita, ez baititugu, ez baitoa etab. lkasbide. lkas bide	Ezpaita, ezpaititugu, ezpaitoa. lkaspi-de. lkas-bide.	
Z + G = ZK Ez gara, ez goaz, ez gaude etab.	Ezkara, ezkoaz, ezkaude, ezkinen etab.	Ez/gara, ez/gaude...
Z + Z = TZ Ez zen, ez zekien, ez zihoan ez ziren etab.	Etzen, etzekien, etzihoan etziren.	Ez/zen, ez/zekien.....

1) Baina (ñ) ez da = in vg: Auñamendi.

2) Ez da ahozkatzen, EZPOTA (Ez, bota) pausa bat ematen baita eta azentoa —a— gainera doa eta (Ez-botá) Halakorik askotan gertatzen da, hemen aipatzen den legerik askorekin.



**DINERO A
CUALQUIER HORA.**

**CREDITO EN
CUALQUIER SITIO.**



DIRUA ORDU GUZTIETAN

Ordu guztietan Kutxaren zerbitzuak zure mesedetan daude.

Hemen duzu gure Txatel Berdea. Txartel Berdearekin eragiketa guztiak, diru ateratzea, diru sartzea, etab. edozein ordutan egin dezakezu, gauean edo egunean, lanegunetan edo eta jaiegunetan. Txartel Berdeak ez du ezagutzen jairik.

Erlojua begiratu barik, behar dituzun soluziobideak zeure eskuetan daude:

- Edozein unetan dirua ateratzen.
- Dirua sartzen.
- Zure saldoa berehala ezagutzen.
- Taloi txekeak eskatzen.

KREDITUA EDOZEIN TOKITAN

Bidai agentzietan, hoteletan, jate-txetan, dendetan, erostetxe handietan.

Bizkaian 2.000 toki baino gehiagotan.

Munduan zehar 2.600.000 tokitan. Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Master Charge txartela erakutsirik NONAHI, txakur txiki bat ere gabe, erosiko duzu.

Horrela, ez duzu gainean dirurik eraman behar ez eta konturik atera behar.

Gauzez gozatzeko ez duzu itxaron behar. Pagatzeko itxaron behar duzu, gure kreditu osoa duzu eta.

ETA 5.000.000TAKO SEGURU DOHAIN BAT

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Master Charge txartelarekin harantz honantz ibiltzea ez da bakarrik erosoia. Segurua baita.

Abioiez, trepez edo eta itsasuntziz egindako bidaiak txartelaz abonatzen badituzu, zuek eta zeure etxekoek

istripuen kontrako aseguru bat duzue. 5.000.000 pztako aseguru hain zuzen. Dena debalde.

Horregaitik ere Bizkaiko Kutxaren Master Charge-a eduki eta erabili behar duzu.

Seguru gaude.

**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**



**BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA**

"EUKADI ES LA PATRIA DE LOS VASCO" "EUKOTARREN ABERRIA EUKADI DA"

H B

El Pueblo vasco es uno de los pueblos más antiguos de Europa.

Antes que España y el Estado español existiera existía ya el pueblo de Euskal Herria y esto es una verdad histórica y no la apología del terrorismo.

La conciencia nacional vasca

no puede ser callada por ninguna ley "antiseparatista" ni ninguna otra que regula en lo que a esto concierne el derecho inalienable del pueblo a su lengua a su formación jurídico-política o a su autodeterminación. Tal derecho concierne a los habitantes de este País. Podrá ser acallado por la fuerza y perseguido por la ley y esa misma ley estará denunciando ante el mundo la situación no democrática de este País. Aunque sólo de una minoría se tratará, ningún país democrático puede abolir por la fuerza el derecho a la libre expresión de estas ideas.

En este sentido ningún juramento impuesto bajo el temor de represalias legales podrá ser considerado como válido pues nadie puede obligar a jurar en lo que en conciencia no se cree. Tales juramentos a la luz de toda la historia jurídica y moral son totalmente inválidos.

Nadie puede estar obligado a realizar "condenas contra la

violencia" cuando no se admite por la ley lo que en conciencia se consideran las causas de la misma por que estas causas y explicaciones caen bajo el peso de la misma que las considera "apología del terrorismo".

No se puede estar callado ante el intento de recortar aún más las libertades individuales y colectivas de un pueblo, o impedir de muchas y diversas maneras incluso hasta su voz en las instancias de la reforma que ellos mismos fraguaron.

Por eso hoy más que nunca, cuando lo que se busca es simple y llanamente impedir a un pueblo sus legítimos derechos a su libre expresión, al desarrollo de sus ideas, de su lengua, de su cultura, de su trabajo, de la mejora de las condiciones de su vida e intentar por la fuerza ahogar sus aspiraciones, es hora de impedirlo basándose en la unidad de ese mismo pueblo, proclamando con fuerza una de sus verdades más antiguas: "EUKADI ES LA PATRIA DE LOS VASCOS". EUKOTARREN ABERRIA EUKADI DA".

Euskal Herria Europa-ko herririk zaharrenetako bat da. *Espania eta Estatu Espainola sartu baino lehen, Euskal Herria orain dagoen toki berean segun* eta halako gauza bat esatea historia errespetatzea da eta inola ere ez terrorismoaren apologia.

Inolako lege antiseparatistak ezin ixil dezake herri honen kontzientzia zaharra: Nazio bat, aberri bat, izatearen kontzientzia. Inolako lege demokratikoak ezin debeka dezake euskara normaltzeko dugun eskubidea, autodeterminazioaren eskubidea, gure herrialde guztien batasuna lortzeko dugun eskubidea. Hala balitz, delako legeek hemen ez dagoela inolako demokraziarik erakutsiko lukete. Eta zer pentsa daiteke halako legeak onartzen direnean? *De al delako, askok dioten modura, "demokrazia" honetan sakontzea?* Sakontzeagatik edo, or da falta. Hara zer bilatu dugun azpian, hondotan: Faxismo hutsaren oinarria.

Adiuerazpen edo espresio askatasunaren kontrako legea, lege antiseparatista", erdararen aldeko legea, kontuzioaren aldeko legea eta lehenik ere zeuden guzi hoiek (Konstituzio bera) Espainiakoez helburu bat besterik ez dutela esan nahi digute: Euskal Herria bera, sakabanatzea; Euskal

Herri bera, desagitea. Hori da beren joko maltzurren helburu bakarra. Abertzale izatea debekatutik dago legez, konstituzioak ez baitu onartzen aberri ezberdinek Estatu Espainolean. Kontzientziaren askatasuna ez da errespetatzen, zin egitean konstituzioarengatik egin behar da. Dударik ez, halako zinak, "zin egin ala gartzelara, zin egin ala kenduko zaitugu zauden tokitik" guztiz inmoralki dira eta ez dute kontzientzia bera lotzen. Fartsa nadagarri bat besterik ez dira izanen.

Estatu espainola oso minduta dago. Eta ez "terrorismoarengatik". *Bereziki problema bakarra, "El problema vasco" da. Nazio izatearen kontzientzia erakitzea da.*

Gaur, lege antidemokratikoen indarrez, espresio askatasuna ere debeketzen saiatzen direnean oso inportante da bere sareetan ez erortzea. Oso garrantzitsu da aberri honen batasuna lau haizetara botatzea, euskararen deretxoa exijitzea, kaleetan, telebistan, komunikabide guztietan. Ordua da Euskaldun guztien batasun hau lau haizetara botatzea eta *besturrik gabe, ikara berik gero senetik ateratu to egia zaharra indarrez abiatzea: EUKADI EUKOTARREN ABERRIA DA. "Eukadi es la patria de los vascos".*

Aberri Eguna 81

Euskal HERRIaren BATASUNAren eguna